



ARRUE IKERKETA:  
EAEko IKASLEEN EUSKARAREN  
ERABILERA ESKOLA-GIROAN, 2011-2015

# EMAITZA NAGUSIEN TXOSTEN TEKNIKOA

2017ko azaroa

**Egileak:**

- Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba (Soziolinguistika Klusterra)
- Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)

**Analisi estatistikoetan lankide:**

- Asier Etxenike (Aztiker)

**Arrue Proiektuaren koordinazio eta gainbegiraketa:**

- Lucía Torrealday (Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza)
- Iñigo Barruso (Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza)
- Ibon Olaziregi (Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza)
- Xabier Aizpurua (Eusko Jaurlaritza – ISEI-IVEI)
- Eduardo Ubieta (Eusko Jaurlaritza – ISEI-IVEI)
- Josune Zabala (Eusko Jaurlaritza – Kultura eta Hizkuntza Politika)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra)
- Iñaki Martínez de Luna (Soziolinguistika Klusterra)
- Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

## Aurkibidea

<b>SARRERA</b> .....	<b>6</b>
<b>0. METODOLOGIA OHARRAK</b> .....	<b>8</b>
0.1.EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA: HAINBAT XEHETASUN.....	8
0.2.IKERKETA-UNIBERTSOA .....	8
0.2.1.Aldagai aske batzuk lagin adierazgarri bidez.....	11
0.3.2011, 2013 ETA 2015 DATU BASE BATERATUAN DAUDEN ALDAGAIK ETA ITURRIA .....	11
0.4.ERABILERA-TASA ESLEITUAK.....	14
0.5.SORTUTAKO ALDAGAI TRINKOAK ETA BEREN SORRERA.....	15
0.6.ERREGRESIO ANIZKOITZAREN ANALISIAZ .....	19
<b>1. ESKOLAKO ERABILERA TESTUINGURATUZ (I): IKASLEEN TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA</b> .....	<b>20</b>
1.1.TESTUINGURU SOZIALA .....	20
1.1.1.UDALERRIEN EUSKALDUN-DENTSITATEA.....	20
1.1.2.HIZKUNTZA ERABILERA LAGUNEKIN: INTERNET BIDEZ (Txat) .....	21
1.1.3.ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN .....	23
1.1.4.HEDABIDE ETA KULTUR KONTSUMO-HIZKUNTZA.....	31
1.2.FAMILIA TESTUINGURUA .....	35
1.2.1.LEHEN HIZKUNTZA .....	35
1.2.2.FAMILIA-GIROKO ERABILERA .....	36
1.3.ESKOLA TESTUINGURUA .....	40
1.3.1.IRAKASTEREDUA .....	40
1.3.2.IRAKASLEEN ARTEKO ELKARRIZKETETAKO HIZKUNTZA.....	40
<b>2. ESKOLAKO ERABILERA TESTUINGURATUZ (II): IKASLERIAREN HAINBAT EZAUGARRI</b> .....	<b>43</b>
2.1.EBALUAZIO DIAGNOSTIKOKO EMAITZAK.....	43
2.1.1.EUSKARAZKO, GAZTELANIAZKO ETA INGELESEZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK .....	43
2.2.HIZKUNTZEKIKO HAUTEMATEAK ETA JARRERAK .....	46
2.2.1.EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESAREKIKO BEGIKOTASUNA .....	46
2.2.2.HAUTEMANDAKO EUSKARAREN, GAZTELANIAREN ETA INGELESAREN ZAILTASUNA .....	49
2.2.3.EGOEREN ETA JARDUEREN INGURUKO IRUDIKAPENAK (DBH2 SOILIK) .....	51
<b>3. IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-GIROAN</b> .....	<b>54</b>
3.1.IKASKIDEKIN GELAN .....	54
3.2.IKASKIDEKIN JOLASLEKUAN .....	56
3.3.IRAKASLEEKIN GELAN .....	58
3.4.IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO .....	60
3.5.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERARI BURUZKO SINTESI-IKUSPEGIA: ERABILERA OROKORRA .....	62
<b>4. ESKOLAKO ERABILERA ALDERATUZ</b> .....	<b>65</b>
4.1.ESKOLAKO EUSKARAREN ERABILERA BESTE TESTUINGURUEKIN ALDERATUTA, IKUSPEGI OROKORRA .....	65
4.2.ESKOLAKO EUSKARAREN ERABILERA BESTE TESTUINGURUEKIN ALDERATUTA, IKUSPEGI XEHETUA .....	66
4.3.IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-GIROAN, HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA.....	68
4.3.1.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA EREMU SOZIOLINGUISTIKOA .....	69
4.3.2.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA LEHEN HIZKUNTZA.....	72
4.3.3.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA IRAKASTEREDUA.....	75
4.3.4.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA IKASTETXEAREN TITULARITATEA .....	78
4.3.5.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA IKASTETXEAREN MAILA SOZIOEKONOMIKOA (ISEK).....	81
4.3.6.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN .....	84
4.3.7.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA ETXEKO ERABILERA.....	87
4.3.8.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUN ERLATIBOA (EUSKARA/GAZTELANIA) .....	90
4.3.9.IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA (EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA).....	93

4.3.10. IKASLEAREN SEXUA.....	96
<b>5. ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA ALDAGAI ASKEAK: KORRELAZIOAK ETA ERREGRESIO ANIZKOITZA .....</b>	<b>99</b>
5.1. KORRELAZIO-ANALISIA .....	99
5.1.1. KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREKIN .....	99
5.1.2. KORRELAZIOEN BILAKAERA 2011-2015. ....	106
5.1.3. KORRELAZIOAK IRAKASTEREDUKA (2015) .....	108
5.1.4. KORRELAZIOAK ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREKIN ETA BERAU OSATZEN DUTEN ALDAGAIEKIN .....	110
5.2. ERREGRESIO ANIZKOITZAREN ANALISIA .....	113
5.2.1. ERREGRESIO BIDEZKO ANALISIETARAKO ERABILITAKO ALDAGAIK .....	113
5.2.2. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISI OROKORRA .....	115
5.2.3. ERREGRESIO ANIZKOITZAREN 2011-2015 ALDERAKETA .....	122
<b>6. ONDORIO NAGUSIAK.....</b>	<b>126</b>
6.1. Ikasleen testuinguruaren ezaugarri batzuk.....	126
6.2. Ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerak 2011-2015 .....	127
6.3. Eskolako hizkuntza-erabileren loturak beste aldagaiekin .....	128
6.4. Emaitzen interpretazioak eta gogoetak .....	129

<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>131</b>
<b>7. IKASLEEN EZAUGARRIAK</b> .....	<b>132</b>
7.1. Sexua .....	132
7.2. Ikasleen lurralde banaketa .....	132
7.3. Ikasleen (eta euren gurasoen) jatorria .....	133
7.4. Ikastetxeen titularitatea .....	134
<b>8. TAULA GURUTZATUAK (I): ESKOLAKO ERABILERAK HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA</b> .....	<b>135</b>
8.1. Ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, hainbat aldagaien arabera: informazio osagarria. ....	136
8.2. Aldagai askea: Eremu soziolinguistikoa .....	144
8.3. Aldagai askea: Lehen hizkuntza .....	146
8.4. Aldagai askea: Irakasteredua .....	148
8.5. Aldagai askea: Titularitatea .....	150
8.6. Aldagai askea: Ikastetxearen ISEK maila multzokatu .....	152
8.7. Aldagai askea: Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan .....	154
8.8. Aldagai askea: Etxeko erabilera .....	156
8.9. Aldagai askea: Euskara-Gaztelania begikotasuna .....	158
8.10. Aldagai askea: Euskarazko hizkuntza-konpetentzia .....	160
8.11. Aldagai askea: Sexua .....	162
8.12. Aldagai askea: Erreferente soziolinguistikoa (Erabilera tasa esleituak) .....	164
<b>9. TAULA GURUTZATUAK (II): ESKOLAKO ERABILERAK HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA</b> .....	<b>166</b>
9.1. TESTUINGURU SOZIALA. ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	167
9.2. ESKOLA TESTUINGURUA. IRAKASTEREDUA BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	172
9.3. ESKOLA TESTUINGURUA. IRAKASLEEN ARTEKO ELKARRIZKETETAKO HIZKUNTZA BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	178
9.4. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. EUSKARA-GAZTELANIA BEGIKOTASUNA BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	183
9.5. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. EUSKARA- INGELESA BEGIKOTASUNA BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	187
9.6. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. ZEIN HIZKUNTZAN HOBE LAGUNEKIN BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	191
9.7. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. ZEIN HIZKUNTZAN HOBE HEZKUNTZAN BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	195
9.8. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. ZEIN HIZKUNTZAN HOBE LAN MUNDUAN BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	199
<b>10. TAULA GURUTZATUAK (III)</b> .....	<b>203</b>
10.1. TESTUINGURU SOZIALA. ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN BESTE ALDAGAIETAN ERAGITEN .....	204
10.2. ESKOLA TESTUINGURUA. IRAKASTEREDUA BESTE ALDAGAIETAN ERAGITEN .....	212
10.3. ESKOLA TESTUINGURUA. IRAKASLEEN ARTEKO ELKARRIZKETETAKO HIZKUNTZA BESTE ALDAGAIETAN ERAGITEN .....	217
10.4. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. EUSKARA-GAZTELANIA BEGIKOTASUNA BESTE ALDAGAIETAN ERAGITEN .....	225
10.5. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. EUSKARA-INGELESA BEGIKOTASUNA BESTE ALDAGAIETAN ERAGITEN .....	229
10.6. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. ZEIN HIZKUNTZAN HOBE LAGUNEKIN BESTE ALDAGAIETAN ERAGITEN .....	233
10.7. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. ZEIN HIZKUNTZAN HOBE HEZKUNTZAN BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	237
10.8. EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA HAUTEMATEAK. ZEIN HIZKUNTZAN HOBE LAN MUNDUAN BESTE ALDAGAIEN ARABERA .....	241
<b>11. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAREN ETA BESTE ALDAGAIEN ARTEKO KORRELAZIOAK 2011-2015</b> .....	<b>245</b>
11.1. LMH4 .....	245
11.2. DBH2 .....	246

## SARRERA

Atsegina da guretzat **Arrue** ikerketaren 2011-2015 emaitzak bere luze-zabalean biltzen dituen Txosten Tekniko hau aurkeztea. Euskal irakaskuntzaren testuinguruan, zeregin batean edo bestean ari diren irakasle eta bestelako profesional asko eta askoren jarduna dago –modu batean edo bestean– ikasleen euskarazko hizkuntza-erabilera eskola-giroan ahalbidetzearekin eta sendotzearekin lotua. Eta legeari erreferentzia eginaz ere, 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko legeak finkatu zuen iparraren norabidean –hau da, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan gure ikasleak bi hizkuntza ofizialak behar adinako maila praktikoan erabiltzeko gai izan daitezen– asko dira, ikasturtea joan eta ikasturtea etorri, hamaika ahalegin egiten dituzten lankideak.

Eta zenbatekoak dira gaur egun EAEko ikasleen euskarazko erabilerak eskolan? Eta gaztelaniazkoak? Eta ingelesezkoak? Nola aldatzen dira hizkuntza-erabilera horiek egoeraren edota solaskideen arabera? Eta ikasleen beste ezaugarrien arabera? Zein aldagai dira erabilera horien aldaketekin lotura estatistikorik sendoenak dituztenak? 2004. urtean sortu zenez geroztik **Arrue** proiektuaren helburu nagusia izan da Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak nolakoak diren ikertzea, eta beraz proiektuaren jarduna halako galderen inguruan ardaztu da. Lan hau ere bete-betean dago ildo horretan kokatua.

2015. urtean jasotako datuak eskaintzen dira lan honetan, 2011n eta 2013an jasotako datuekin alderatuta. Aurreko bi kasuetan bezala, hizkuntza-erabilera datuok, ikasleek *Ebaluazio diagnostikoa* proban erantzundako galdetegiaren testuinguruan jaso dira, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundeak (ISEI-IVEIk) prestatzen eta bideratzen duen hezkuntzaren baitako ebaluazioan. Aurreko bi kasuetan bezala, 2015ean ere LMH4ko (9-10 urte) eta DBH2ko (13-14 urte) ikasleen datuak aztertu dira, eta 2011-2015 alderaketaren bitartez mugari berri bat jarri ahal izan da EAEko ikasleen hizkuntza-erabileraren azterketan, lehen aldiz azterketa izaera *longitudinala* izatera iritsi baita. Hau da, urte berean jaiotako ikasleen bi une ezberdinetako erabilerak alderatu ahal izan dira, 2011n LMH4n zeuden ikasleak baitira, neurri handian, 2015ean DBH2n aztertu direnak. Azterketa horrek hein handi batean berretsi egin ditu 2011n ikasleen eskolako erabileraz eginiko deskribapenak eta analisisien ondorio nagusiak, baina aldi berean xehetasun berriak ere gehitu dizkio.

Maila teknikoan 2011n eta 2013an eginiko azterketen ildoari jarraitzen dio lan honek, baina ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerari buruzko jakin-mina duenak informazio zabalago eta aberatsagoa topatuko du lan honetan aurreko bietan baino. Alde batetik, hiru urteetako datuen bilakaera eskaintzen delako puntu guztietan, bestetik 2011-2015 urteetako datuek aipatutako alderaketa *longitudinala* egiteko aukera ere eskaintzen dutelako, eta horrez gain, txosten honetan aurreko lanetan baino analisi eta xehetasun gehiago eskaintzen direlako, bai txostenean bertan eta, zer esanik ez, eranskinen atalean.

0 atalean (“Metodologia oharrak”) topatuko ditu irakurleak azterketarako erabilitako aldagaiei eta metodologiari dagozkion xehetasun guztiak. Ondorengo bi ataletan (1 eta 2), EAEko ikasleen eskolako erabileraren testuingurua deskribatzen da, datuen bitartez: ikasleak zein neurritan bizi diren udalerrri euskaldun edo erdaldunetan, nolakoak diren euren hizkuntza-erabilerak familian edota nolako hautemateak dituzten hizkuntzen inguruan. 3. atalean ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileraren deskribapen zuzena jasotzen da: 2011n finkatu ziren eskolako lau egoeratako erabileraren datuak eskaintzen dira (*ikaskideekin gelan, ikaskideekin jolaslekuan, irakasleekin gelan eta irakasleekin gelatik kanpo*), eta horiekin batera, lau erabilera horietan oinarrituz kalkulatu den *Eskolako erabilera orokorrenak*. 4. atalean urrats bat aurrera egiten da azterketan, eskolako erabilera horiek hainbat aldagai askeren arabera

alderatuz. Atal honetan, esaterako, aurreko lanetan baino informazio aberatsagoa eskaintzen da, bai txertatu diren aldagai askeen aldetik eta bai bakoitzean kalkulatu diren datuen aldetik ere. EAEko ikasleen hizkuntza-erabileren xehetasunetan murgildu nahi duenak informazio ugari topatuko du atal horretan (4.3 atalean bereziki). Eta 5. atala ere teknikoki aberatsa da datuetan. Orain arteko ildoari jarraituz, *korrelazioak* eta *erregresio anizkoitzaren* analisiak baliatu dira ikasleen erabileretik aztertutako beste aldagaiekin nolako loturak dituzten arakatu eta deskribatzeko. Eta azkenik, ohikoa denez, ondorioen azken atalean bildu eta laburbildu dira daturik aipagarrienak eta haietatik ondoriozta litezkeen ideiak.

Lan hau ere, *Arrue* proiektuaren ibilbide guztia bezala, erakunde ezberdinen arteko lankidetzan oinarrituz garatu dugu. ISEI-IVEIko lankideak izan dira *Ebaluazio diagnostikoa* proban hizkuntza-erabilerari buruzko galderak txertatu, proba EAEko ikastetxe guztietan antolatu eta datu-baseak atontzeko lan-prozesua burutu dutenak. Ondoren, Soziolinguistika Klusterreko lankideek izan dute jasotako hizkuntza-erabilerari eta beste aldagaiei buruzko informazioarekin lan honetan eskaintzen diren analisiak egiteko ardura. Hezkuntzako Euskara Zerbitzuko lankideek, bestalde, proiektuaren jarraipen orokorraren ardura izan dute, hala lan teknikoarena nola erakunde ezberdinen arteko lankidetzarena. Eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako lankideek, azkenez, hurbileko jarraipena egin diote lanari, proiektuan sortutako informazioa aztertuz eta prozesuan zehar ekarpenak eginaz. Guztiok biltzen gara, hain zuzen, *Arrue* proiektuaren Jarraipen Batzordean, eta guztion nahia da lan hau baliagarri suertatzea ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileraren egungo errealitate konplexua hurbilagotik eta hobeto ezagutzeko, ondoren ahalik eta modurik egokienean esku-hartzeko.

*Gasteizen, 2017ko azaroan*

*Maite Alonso Arana*

*Hezkuntza sailburuordea. Eusko Jaurlaritza*

## 0. METODOLOGIA OHARRAK

### 0.1. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA: HAINBAT XEHETASUN

Txosten honetan aurkezten diren datuak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ISEIk bideratzen duen Ebaluazio Diagnostikoa probaren barnean jaso dira. Ebaluazio Diagnostikoan, Lehen Mailako Hezkuntzako 4. mailako (LMH4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako (DBH2) ikasleen hainbat gaitasun neurtzen dira proba batzuen bidez: Euskarazko hizkuntza-kompetentzia, Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia, matematikarako kompetentzia, eta abar. Proba hau bi urtetik behin egiten da eta txosten honetan 2011, 2013 eta 2015ean egindako Ebaluazio diagnostikoen emaitzak jasotzen dira, horien bilakaera aztertuz. Ebaluazio Diagnostikoari buruzko informazio zehatza, bai metodologiari buruzkoa eta baita emaitzak ere, bi txosten hauetan ikus daiteke sarean: *Ebaluazio Diagnostikoa 2015. Txosten exekutiboa. LMH4. maila*<sup>1</sup>, eta *Ebaluazio Diagnostikoa 2015. Txosten exekutiboa. DBH2. maila*<sup>2</sup>.

Hainbat alorretan ikasleek duten gaitasuna neurtzeaz gain, Ebaluazio Diagnostikoan ikasleen eta euren familien hainbat ezaugarri ere biltzen dira galdera sorta baten bidez (ikus galdera sortak I. eranskinean), tartean hizkuntzen ezagutza, erabilera eta jarrereri buruzko alderdiak. 2011. urtean paperean eta aplikazio informatiko bitartez erantzun zieten ikasleek galdera horiei. 2013. eta 2015. urtean, aplikazio informatiko baten bitartez.

Txosten honetan, galdera sorta horietan hizkuntzen inguruan jasotako informazioaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

### 0.2. IKERKETA-UNIBERTSOA

Ebaluazio Diagnostikoa ez da lagin batera mugatzen, eta bere helburua izan ohi da bi ikasmaila horietan, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, unibertso osora iristea. 2015eko proban, aurreko aldietan bezala, diru publikoarekin finantzaturako ikastetxeetan (publiko eta itunpeko) eskolatutako LMH4. mailako eta DBH2. mailako ikasle guztiek osatu dute ikerketa-unibertsoa. Egun ia haur guztiak eskolatuta daudela jakinik, maila horiei dagozkien adin-multzoetako EAeko haur guztietara zabaltzen da unibertsoa. Ahalegin handia egin da probak ikasmaila horietan eskolatutako ikasle guztiek egin zitzaten bermatzeko, beren egoera edo ezaugarri pertsonala edozein izanda ere. Gure kasuan, ikasle ia guztiek bete zuten galdera sorta, eta egun horretan arrazoia edozein izanda ere eskolara joan ez ziren haur eta nerabeak albo batera utzita, gainerako ikasle guztien datuak ditugu esku artean. Zehazki, 2015ean:

- LMH4ko 21.167 ikasleetatik, 19.823en datuak ditugu aztergai, beraz, horiek unibertso osoaren %93,7 osatzen dute.
- DBH2ko 20.221 ikasleetatik, 19.095en datuak eskuratu ditugu (unibertso osoaren %94,4).

<sup>1</sup> [http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=a5662da8-8f58-4ee1-a678-03ea1fc0309b&groupId=635622](http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=a5662da8-8f58-4ee1-a678-03ea1fc0309b&groupId=635622)

<sup>2</sup> [http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=efa9069b-264c-44e5-a1dd-d89cd2f4506b&groupId=635622](http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=efa9069b-264c-44e5-a1dd-d89cd2f4506b&groupId=635622)



Hona hemen 2011., 2013. eta 2015. urteetako datuak elkarren ondoan jarrita:

1. *TAULA: UNIBERTSO TEORIKOA ETA UNIBERTSO ERREALA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15*

LMH 4	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua		Erreala / Teorikoa (%)
			Unibertso teorikoa (ikasle guztiak)	Unibertso erreala (Galdera-sortari erantzun diotenak)	
2011	522	986	19.254	18.636	96,8
2013	522	937	20.683	19.114	92,4
2015	517	971	21.167	19.823	93,7

DBH2	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua		Erreala / Teorikoa (%)
			Unibertso teorikoa (ikasle guztiak)	Unibertso erreala (Galdera-sortari erantzun diotenak)	
2011	329	731	18.279	17.184	94,0
2013	324	750	19.241	17.121	89,0
2015	326	835	20.221	19.095	94,4

Ikusten denez, ikasle-kopuru oso handia dugu (ia unibertso osoa) gaia xehe eta sakon aztertzeko.

Neurriz unibertso erreala oso egokia izanagatik, jakin nahi izan dugu horren osaera orekatua ote den ikasleen zenbait alor kontuan hartuta. Zehazki, gure ikergaia (euskararen erabilera eskola-giroan) izan dezakeen eraginagatik, arreta bereziz aztertu dugu unibertso errealeko ikasleen eta unibertsoen banaketa bat datorren ikasten duten irakasteredua aintzat hartuta. Horretarako, unibertso teorikoan eta unibertso errealean ditugun datuak aztertu ditugu irakastereduka (ikus hurrengo taula).

2. TAULA: UNIBERTSO TEORIKOA ETA UNIBERTSO ERREALA IRAKASTEREDUKA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15

	Unibertso teorikoa	Unibertso erreala	Erantzun-tasa (%)
<b>LMH4 2011</b>			
A eredia	1.469	1.386	94,3
B eredia	5.563	5.314	95,5
D eredia	12.222	11.936	97,7
Guztira	19.254	18.636	96,8
<b>LMH4 2013</b>			
A eredia	1.289	1.133	87,9
B eredia	5.499	5.089	92,5
D eredia	13.895	12.892	92,8
Guztira	20.683	19.114	92,4
<b>LMH4 2015</b>			
A eredia	1.094	1.010	92,3
B eredia	5.150	4.816	93,5
D eredia	14.923	13.997	93,8
Guztira	21.167	19.823	93,7
<b>DBH2 2011</b>			
A eredia	2.622	2.272	86,7
B eredia	5.134	4.801	93,5
D eredia	10.523	10.111	96,1
Guztira	18.279	17.184	94,0
<b>DBH2 2013</b>			
A eredia	2.389	1.904	79,7
B eredia	5.329	4.765	89,4
D eredia	11.523	10.542	90,7
Guztira	19.241	17.121	89,0
<b>DBH2 2015</b>			
A eredia	1.839	1.727	93,9
B eredia	5.359	5.065	94,5
D eredia	13.023	12.303	94,5
Guztira	20.221	19.095	94,4

Taula horretako datuak aztertuta, ikus dezakegu irakasteredu guztietako ikasleen presentzia handia dela gure unibertso errealean. Hala ere, sistematikoki bada alboraketa bat, eta unibertso teorikoarekiko unibertso errealearen proportzioa txikiagoa da A eredian, B eredian eta, batez ere, D eredian baino (alboraketa horren arrazoia litzateke ereduaren artean dagoen eskola absentismo edo hutsegite maila ezberdina). B eta, batez ere, D eredu euskaldunen aldeko alboraketa hori aztertutako bi ikasmaila eta hiru urteetan gertatzen bada ere, LMH4n baino indartsuagoa da DBH2an eta 2013an beste bi urteetan baino.

Alboraketa sistematiko horrek zenbateraino eragingo zuen txosten honetan aurkeztera goazen emaitzetan? 2013an horrela genioen: *“Laginaren desoreka hori orekatzeko probak egin ditugu ikasleen erantzunak euren irakastereduaren arabera haztatuz, eta ondorioa honako hau da: gure datuek erakutsiko duten baino pisu apur bat txikiagoa du euskarak ikasleen egunerokotasunean, baina alde oso txikia da, puntu erdi ingurukoa (-%0,5) erabilera-tasa esleituetan”*

Horretaz gain, hiru urteen arteko alderaketak egiterakoan (2011, 2013 eta 2015 urteen artekoak), kontuan hartu behar da alboraketa hori ez dela areagotu, aitzitik, 2015eko unibertso erreala pixka bat orekatuagoa da beste urteetan baino. Ondorioz, txosten honetan aurkeztuko ditugun bilakaera-joerak sendoak dira eta pentsa daiteke, unibertso errealean osaeran izandako aldaketa txikiak aintzat hartuta, bilakaera datuek unibertso horretan erakusten dutena baino pixkatxo bat positiboagoa izango zela unibertso teorikoaren errealitatean (+%0,2 inguruko alde). Laburtuz, hala ere, hauxe da ideia azpimarragarriena: unibertso errealean antzematen diren alboraketa txikiak ez diete funtsean datuei eragiten.

### 0.2.1. Aldagai aske batzuk lagin adierazgarri bidez

Ebaluazio Diagnostikoa proban ikasleei egiten zaien galderen kopurua arindu nahian, 2015ean azterketa honetan baliatu diren aldagai aske batzuei buruzko informazioa ez da inkesta bete duten ikasle guztien galdetegietatik jaso, ikasleen heren batek osaturiko laginaren bitartez baizik. Lagin hori modu erabat adierazgarrian hautatu da, ikasgela bakoitzean ausaz ikasleen heren bat hautatuz. Modu horretan unibertso osoaren azterketarako erabat baliagarria den lagina lortu da, bai kopuruz eta bai ikastetxe eta ikasgela guztien errealitatea jasotze aldetik. 0.3 ataleko ondorengo tauletan zehazten da zein diren halako lagin bidez jasotako aldagaiak (gainerako kasuan unibertso errealeko guztiaren datuak dira aztertutakoak).

## 0.3. 2011, 2013 ETA 2015 DATU BASE BATERATUAN DAUDEN ALDAGIAK ETA ITURRIA

Lan honetan, hiru urte eta bi ikasmila ezberdinetako datuak ustiatu ditugu. Horretarako, lehenik, datu baseak bateratu ditugu eta hori egin ahal izateko lanaren edizio bakoitzean erabilitako inkestak eta itemak aztertu. Horrela, lan honetara ekarri ditugu hiru edizio horietan bateragarriak ziren datuak. Dena dela, aldagaiaren interesagatik, batzuetan edizioen batean datua izan gabe ere beste urteetako edo urte bakarreko datuak jaso ditugu.

Ondoko tauletan ikus daiteke zeintzuk diren aldagai horiek, eta zein edizioetan jaso diren. Aldagai bati buruzko informazioa urte horretan jaso denean “✓” ikur batekin adierazi da, eta jaso ez denean berriz “✗” ikurrarekin. Horrez gain, gorago adierazi berri dugun moduan, 2015. urtean lehen aldiz, zenbait aldagai askeren informazioa ez da ikasleen unibertso osoarentzat jaso, ikasleen heren baten lagin adierazgarri baten bitartez baizik. Halako kasuetan, tauletan “✓ [lagina]” adierazten da dagokion gelaxkan. Azkenik, “Zein hizkuntza doakio hobeto?” ataleko sei aldagaiak DBH2ko ikasleentzat jaso dira soilik, eta xehetasun hori “[DBH2 soilik]” zehaztapenarekin adierazi da taulan.

### 3. TAULA: USTIAKETARAKO JASOTAKO EDIZIO BAKARREKO, BIKO EDO HIRUKO DATUAK, ZEIN EDIZIOKOA ETA UNIBERTSOA EDO LAGINA DEN. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15

ALDAGAI A	2011	2013	2015
Irakasteredua	✓	✓	✓
Ikasmila	✓	✓	✓
Ikastetxearen Arrue kodea	✓	✓	✓
Ikaslearen Arrue kodea	✓	✓	✓
Ikaslearen jaiotza urtea	✓	✓	✓
Ikaslearen jaiotza hilabetea	✓	✓	✓

ALDAGAIA	2011	2013	2015
Ikaslearen jaiotza eguna	✓	✓	✓
Ikastetxearen titularitatea	✓	✓	✓
Zein udalerritan bizi zara?	✗	✗	✓
Ikaslearen ISEK maila	✓	✓	✓
Ikastetxearen ISEK maila	✓	✓	✓
Sexua	✓	✓	✓
Non jaio zen zure aita?	✓	✓	✓
Non jaio zen zure ama?	✓	✓	✓
Non jaio zinen zu?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure aitarekin?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure amarekin?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu neba-arrebekin?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten dute zure gurasoek beraien artean?	✓	✓	✓
Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...) zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?	✓	✓	✓
Egiten duzu eskolaz kanpoko jardueraren bat ingelesez?	✗	✗	✓
Eskolaz kanpoko jardueraren bat ingelesez egitekotan, zenbat ordu astero?	✗	✗	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolako ikaskideekin gela barruan?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu Klase partikularretan?	✓	✗	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolaz kanpoko ekintzetan?	✓	✓	✓
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu Udaleku edo kanpamentuetan?	✓	✗	✓
Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelan	✓	✓	✓
Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelatik kanpo.	✓	✓	✓
Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duten zure irakasleak beraien artean.	✓	✓	✓
Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?	✓	✗	✓
Gustuko al duzu euskara?	✓	✓	✓ [lagina]
Gustuko al duzu gaztelania?	✓	✓	✓ [lagina]
Gustuko al duzu ingelesa?	✓	✓	✓ [lagina]
Zer iruditzen zaizu euskara?	✓	✓	✓ [lagina]
Zer iruditzen zaizu gaztelania?	✓	✓	✓ [lagina]
Zer iruditzen zaizu ingelesa?	✓	✓	✓ [lagina]
Zer iruditzen zaizu matematika?	✗	✗	✓ [lagina]
Zer iruditzen zaizu ingurumena?	✗	✓	✓ [lagina]
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: A. Gehien bisitatzen duzun web orrian	✓	✗	✓ [lagina]
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: B. Gehien ikusten duzun telebista saioan	✓	✗	✓ [lagina]
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: C. Gehien entzuten duzun musika taldea edo abeslaria	✓	✗	✓ [lagina]

ALDAGAIA	2011	2013	2015
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: D. Gehien entzuten duzun irratsaioan	✓	✗	✓ [lagina]
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: E. Zineman ikusi duzun azken filmean	✓	✗	✓ [lagina]
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: F. Zure lagunekin txateatu duzun azken aldian	✓	✗	✓ [lagina]
Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? Familia	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]
Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? Lagunak	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]
Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? Formazioa	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]
Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? Hizlaria	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]
Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? Fabrika	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]
Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? IKT	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]
Euskaldun proportzioa ikastetxearen udalerrian (%)	✓	✓	✓
Ia euskaldun proportzioa ikastetxearen udalerrian (%)	✓	✓	✓
Erdaldun proportzioa ikastetxearen udalerrian (%)	✓	✓	✓
Euskarazko hizkuntza-kompetentzia (Sailkatua)	✓	✓	✓
Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia (Sailkatua)	✓	✓	✓
Ingeleseko hizkuntza-kompetentzia (Sailkatua)	✓	✓	✓
Euskarazko hizkuntza-kompetentzia (Pertzentiletan)	✓	✓	✓
Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia (Pertzentiletan)	✓	✓	✓
Ingeleseko hizkuntza-kompetentzia (Pertzentiletan)	✓	✓	✓

#### 0.4. ERABILERA-TASA ESLEITUAK

Inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko asmoz, eta hizkuntza-erabilerari buruzko hainbat galderari emandako erantzunetan oinarrituta, euskararen erabilera-tasa esleituak kalkulatu ditugu, honako aldagai hauetan:

- Ikasleen erabilera irakasleekin gela barruan.
- Ikasleen erabilera irakasleekin gelatik kanpo.
- Irakasleen erabilera euren artean.
- Ikasleen arteko erabilera gela barruan.
- Erabilera gelako lagunekin jolaslekuan.
- Ikasleen eskolako erabilera orokorra.
- Ikasleen erabilera klase partikularretan.
- Ikasleen erabilera udaleku eta kanpamentuetan.
- Ikasleen erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan.
- Etxeko erabilera denak batera daudenean (jatorduetan, telebistan...).

Zehazki, aldagai horietako bakoitzean, ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako erabilera-balio hau eman diogu erantzun bakoitzari:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Balio horietan oinarrituta, eta ikasle guztiak kontuan hartuta, euskararen erabilera-tasa zenbatekoa litzatekeen kalkulatu dugu. Adibide gisa, hona hemen “Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan?” galderari LMH4ko ikasleek emandako erantzunak eta horietan oinarrituta nola kalkulatu dugun erabilera-tasa esleitua.

4. TAULA: TASA ESLEITUA KALKULATZEKO ADIBIDEA. (%)

	LMH4 2015	Erabilera esleituaren tasaren kalkulua	
	A	B	A * B / 100
Beti euskaraz	20,8	100	20,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	13,3	75	9,9
Bietan berdin	10,7	50	5,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	19,2	25	4,8
Beti gaztelaniaz	35,7	0	0,0
Beste hizkuntzan batean	0,3	0	0,0
Guztira	100,0		
Oinarria (n)	19.773		
<b>Erabilera-tasa esleitua (%)</b>			<b>40,9</b>

Erabilera-tasa esleituak zera esan nahiko luke: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (unibertsoan alboratzerik ez balego), zenbat euskara entzungo litzatekeen, ehunekoetan adierazita. Adibidearen kasuan, kopuru horrek zera adieraziko digu: inkestako erantzunen arabera, %40,9koa da euskararen erabilera LMH4ko haurren artean EAeko ikastegietako jolaslekuetan.

Bestetik, lagunekin txateatzean eta kultura eta komunikabideen arloko aldagaietan (gehien bisitatzen duten web orriari, ikusten duten telebista saioari, entzuten duten musika taldea edo abeslaria, entzuten

duten irratsaioan eta zineman ikusi duten azken filmean) aukeran jarritako erantzun kategoriak ezberdinak izan dira. Aldagai horietako bakoitzean, aukera posibleen artean ikasleek emandako erantzunak hartu eta honako balio hau eman diogu erantzun bakoitzari:

- Euskara = %100 euskaraz
- Gaztelania = %0 euskaraz
- Ingelesa = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

## 0.5. SORTUTAKO ALDAGAI TRINKOAK ETA BEREN SORRERA

Aldagai batzuk aldagai ezberdinen informazioa konbinatuz sortu dira, emaitza gisa aldagai trinkoak berriak sortuz. Aipatu aldagaiak hainbat tauletan, zehazki korrelazioen atalean, [tr] (Trinko) bereizgarriarekin adierazi dira. Guztira 10 aldagai trinko sortu dira 29 aldagai ezberdinek eskainitako informaziotik abiatuta. Zehazki hau da aldagai trinko guztien zerrenda (parentesi artean zenbat aldagaien konbinaketa den):


1. Ikasleen eskolako erabilera orokorra [tr] (4)
2. Euskararen eta gaztelaniaren erraztasuna/zailtasuna [tr] (2)
3. Euskararen eta ingelesaren erraztasuna/zailtasuna [tr] (2)
4. Euskararekiko eta gaztelaniarekiko begikotasuna [tr] (2)
5. Euskararekiko eta ingelesarekiko begikotasuna [tr] (2)
6. Errendimendu akademikoa batez beste [tr] (3)
7. Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr] (3)
8. Kultur eta komunikabide kontsumoko erabilera orokorra [tr] (5)
9. Etxeko erabilera [tr] (5)
10. Ikasleen jatorria [tr] (3)

Ikasleen eskolako erabilera orokorra [tr]. Ikasleen eskolako euskararen erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako lau galderaren emaitzak hartu dira kontuan (honako irizpide hauek 2011ko Arrue ikerketan finkatu ziren<sup>3</sup>, eta hemen ere aplikatuko ditugu):

- Ikaskideen artekoa gelan
- Gelako lagunekin jolaslekuan
- Irakasleekin gela barruan
- Irakasleekin gelatik kanpo

Lau erabilera horiek konbinatu dira *Ikasleen eskolako erabilera orokorra* mendeko aldagai trinkoa osatzeko, baina ez zaie lau erabilerei pisu bera eman aldagai trinkoaren barnean. Irudi honetan adierazten da zer-nolako pisua eman zaion lau erabilera horietako bakoitzari:

<sup>3</sup> Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*.



**Ikasleen eskolako erabilera orokorra**

Zergatik eman zaie lau erabilerei pisu ezberdina aldagai trinkoa osatzean? Eta zeren arabera hobetsi da haztapen hori eta ez beste bat? Hona hemen 2011ko txostenean galdera horiei ematen zitzaaien erantzuna:

“Ondoko hiru parametroak hartu dira kontuan haztapena egiteko garaian:

- Mintzajardunaren zenbatekoa: zenbaki zehatzetan ezin eman baliteke ere normalean, bistan da ordu gehiago “sartzen” dituela LMH4ko (zer esanik ez DBH2ko) ikasleak bere gelako lagunekin , irakasleekin baino. Ordu gehiago hitz egiten. Funtsezkoa da puntu hori: jardunak, hitz egiteak (mezu-iturri izateko gaitasun eragileak, ez besteri entzundakoa ulertzeko jasotze-gaitasun hutsak) aktibatzen du hiztunon erabilera, bere osoan. Ahozko jarduna, hitzezkoa, bereziki da alor horretan zentrala.
- Mintzajardunaren nolakoa: gizarte-bizitarako garapen-oinarri gisa esanguratsuagoa da ikasleen arteko erabilera informala, eguneroko asmo-gogo-beldur-irrikeratua, trebetasun- edo ezagutzatitem kurrikularrak lantzeko jardura formala baino. Funtsezko puntua da hori: Pitagoras-en teorema (eta hura azaltzeko hizkera moldea) ez dugu gehienok, eguneroko bizian, baliatu beharrik izaten: han jasotzen den hainbat pautu egoki gerta liteke interakzio-baldintza formaletarako, baina (lanbide batzuetako jardura-esparru batzuetan izan ezik) gutxi dira halakoak hiztun-elkarte gehienetan eta are gutxiago (euskara-erdaren funtzio-moldaera nagusiaren ondorioz) gurean.
- Mintzajardunaren situazio-egoera (non-norekiko jardunaren eragina): diferenteak dira irakasleekiko harreman-jarduerak eta ikaskideekikoak, aurreko ataletan esandakoaz gainera, situazio-egoerak eragindako baldintzen aldetik ere. Libreagoak dira jardura batzuk, eta ingurumen-baldintzek behartuagoak besteak. Ingurumen-baldintza horiek adierazgarriak dira, bestalde, solidaritate/aginte parametroen aldetik ere. Horrek ere pisua du, nola ez, jardura horren aurrera begirako garapen-aukeretan”.

Irizpide horietan oinarrituta eta arestian finkatutako haztapena aplikatuta sortu dugun aldagai berriari *eskolako erabilera orokorra* deitu diogu eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da. Bestalde, ikasleen eskolako erabilera gurutzaketetan aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, *eskolako erabilera orokorra multzotan* aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren eskolako erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Guztia euskaraz, %100,0 (erabilera-tasa esleituak %100,0koa denean).
- Euskara %70,1-%99,0 (erabilera-tasa esleituak bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskara %30,1-%70,0 (erabilera-tasa esleituak bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskara %0,1-%30,0 (erabilera-tasa esleituak bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0 (erabilera-tasa esleituak %0,0koa denean).



Euskararen eta gaztelaniaren erraztasuna/zailtasuna [tr]. Euskara batetik eta gaztelania bestetik zein neurritan iruditzen zaizkien zailak/errazak aintzat hartuta (oso zaila, zaila, normala, erraza, oso erraza), hiru multzotan sailkatu ditugu ikasleak<sup>4</sup>:

- Euskara errazagoa dela diotenak (euskararen zailtasun maila gaztelaniarenaren azpitik jarri dutenak).
- Bi hizkuntzei erraztasun-/zailtasun-maila bera aitortzen diotenak.
- Gaztelania errazagoa dela diotenak (euskararen zailtasun maila gaztelaniarenaren gainetik jarri dutenak).

Euskararen eta ingelesaren erraztasuna/zailtasuna [tr]. Arestian aipatutako irizpide berberekin sortu dugu aldagai berri hau ere.

Euskararekiko eta gaztelaniarekiko begikotasuna [tr]. Euskara batetik eta gaztelania bestetik zein neurritan dituzten gustuko aintzat hartuta (batere ez, gutxi, normal, nahiko edo asko), hiru multzotan sailkatu ditugu ikasleak:

- Euskara nahiago dutenak (euskararekiko gaztelaniarekiko baino begikotasun handiagoa adierazi duten ikasleak).
- Bi hizkuntzekiko begikotasun-maila bera adierazi dutenak.
- Gaztelania nahiago dutenak (gaztelaniarekiko euskararekiko baino begikotasun handiagoa adierazi duten ikasleak).

Euskararekiko eta ingelesarekiko begikotasuna [tr]. Arestian aipatutako irizpide berberekin sortu dugu aldagai berri hau ere.

Errendimendu akademikoa batez beste [tr]. Kalkulua hiru pausotan burutu da. Lehendabizi, gaztelaniako eta ingeleseko Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak pertzentiletan sailkatu eta horien batez bestekoa egin dugu. Beraz, aldagai hau ez da gai horietan edukitako notaren batez bestekoa, baizik eta gai horietako bakoitzean ikasle bakoitzak beste guztiekin alderatuta, 1etik 100era sailkatu direnean lortutako “postuaren” (pertzentilen) batez bestekoa. Ondoren, emaitza hori Ebaluazio Diagnostikokoan matematikan lortutako emaitzaren arabera lortutako pertzentilarekin batera guztiaren batez bestekoa egin da. Hau da, gaztelania eta ingelesari elkarrekin hartuta matematikari bezain besteko pisua eman diogu (%50 gaztelania eta ingelesa eta %50 matematikak).

Azkenik, kasu honetan ere, aurreko aldagaiarekin egin bezala, ikasleak taldekatu ditugu honela:

- 0tik 10,0ra.
- 10,1etik 30era.
- 30,1etik 50era.
- 50,1etik 70era.
- 70,1etik 89,9ra.
- 90,0tik 100era.

Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]. Ikasleen eskolaz kanpoko jardueretako erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako hiru galderaren emaitzak hartu dira kontuan:

- Ikasleen erabilera klase partikularretan
- Ikasleen erabilera udaleku eta kanpamenduetan
- Ikasleen erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan

<sup>4</sup> Urte bakoitzean itemaren formulazioa ez da berbera izan. 2011n “hizkuntzei” buruz galdetu zen, 2013an “ondorengo ikasgaiak” eta 2015ean berriz 2011n bezala (“ondorengo hizkuntzak”). Emaitzak ikusita ikasleek gauza bera ulertu dutela uste badugu ere, batzuen kasuan ez du zertan horrela izan behar.

Hiru erabilera horiek konbinatu dira *Ikasleen eskolaz kanpoko jardueren erabilera orokorra* aldagai trinkoa osatzeko, hiru erabilerei pisu bera eman zaie aldagaiaren barnean, hau da, batez besteko balioa kalkulatu da. Ikasle batek hiru erabilera horietakoren bat ez duenean izan, hori kontuan hartu da batez bestekoa kalkulatzeko.

Ikasleen eskolaz kanpoko jardueren erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, *eskolaz kanpoko jardueren erabilera orokorra multzotan* aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Guztia euskaraz, %100,0 (erabilera-tasa esleitua %100,0koa denean)
- Euskara %70,1-%99,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)
- Euskara %30,1-%70,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)
- Euskara %0,1-%30,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)
- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0 (erabilera-tasa esleitua %0,0koa denean)

Kultur eta komunikabide kontsumoko erabilera orokorra [tr]. Aurreko aldagaiarekin egin bezala, prozedura berdina jarraitu dugu kultur eta komunikabide kontsumoko erabilera orokorra kalkulatzeko, kasu honetan ondorengo bost aldagaiak pisu berdinarekin konbinatuz:

- Ikasleen erabilera WEB orrietan
- Ikasleen kontsumoa telebistan
- Ikasleen musika-kontsumoa
- Ikasleen kontsumoa irratsaioetan
- Ikasleen kontsumoa filmetan

Aurreko aldagai trinkoarekin bezala, ikasleen kultur eta komunikabide kontsumoko erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, *kultura eta komunikabide kontsumoko erabilera orokorra multzotan* aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Guztia euskaraz, %100,0 (erabilera-tasa esleitua %100,0koa denean)
- Euskara %70,1-%99,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)
- Euskara %30,1-%70,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)
- Euskara %0,1-%30,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)
- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0 (erabilera-tasa esleitua %0,0koa denean)

Etxeko erabilera [tr]. Etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako bost galderaren emaitzak hartu dira kontuan. Zehazki, taulan ikusten da galdera bakoitzari eman zaion pisua aldagai birkodetu berria sortzerakoan, eta bertan aipatzen da ere kategoria bakoitzari esleitutako balioa:

Jatorrizko galdera	Galdera bakoitzari eman diogun pisua etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko	Erantzun posible bakoitzari eman diogun balioa
<i>Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...), zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?</i>	%50	Erabilera-tasa esleituari aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure amarekin?</i>	%15	Beti edo gehienetan euskaraz = %100 Beti edo gehienetan gaztelaniaz = %0 Beste hizkuntza batean = %0
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure aitarekin?</i>	%15	
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure neba-arrebekin?</i>	%10	
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten dute zure gurasoek beraien artean?</i>	%10	

Horren emaitza etxeko erabilera-tasa esleitua dugu, *etxeko erabilera* izendatu duguna, eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da. Bestalde, etxeko erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, etxeko erabilera multzotan aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren etxeko erabilera-tasa esleituaren arabera (honako irizpide hauek 2011ko Arrue ikerketan finkatu ziren<sup>5</sup>, eta hemen ere aplikatuko ditugu):

- Guztia euskaraz, %100,0 (erabilera-tasa esleitua %100,0koa denean).
- Euskara %70,1-%99,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskara %30,1-%70,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskara %0,1-%30,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean).
- Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0 (erabilera-tasa esleitua %0,0koa denean).

Ikasleen jatorria [tr]. Ikaslea, haren ama eta haren aita non jaio diren aintzat hartuta, honako kategoria hauetan multzokatu ditugu ikasleak:

- Bi gurasoak eta ikaslea Euskal Herrian jaioak.
- Gurasoetako bat kanpoan jaioa; ikaslea Euskal Herrian jaioa.
- Gurasoak kanpoan jaioak; ikaslea Euskal Herrian jaioa.
- Guraso bat edo biak Euskal Herrian jaioa(k) eta ikaslea kanpoan jaioa.
- Gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak.
- Beste egoerak eta informazio hutsuneak.

## 0.6. ERREGRESIO ANIZKOITZAREN ANALISIAZ

Erregresio anizkoitzaren analisia aldagai aske multzo baten bidez mendeko aldagai bat azaltzeko erabiltzen den teknika estatistikoa bat da. Analisi honen bitartez eredu estatistikoa bat eraikitzen da, mendeko aldagaia (kasu honetan, euskararen eskola erabilera orokorra) ahalik eta neurririk handienean azaltzea bilatzen duena, aldagai askeek eskaintzen diguten informaziotik abiatuta.

Erregresio analisiaren interpretazioan garrantzitsua da, besteak beste, ondoko puntuei erreparatzea: eratu den eredu osoak mendeko aldagaia azaltzeko lortzen duen ahalmena; ereduari sartu diren aldagaien zerrenda eta hauen ordena; aldagai bakoitzak bere aurrekoen bidez aurrean zitekeenari egiten dion ekarpena ere kontuan hartzea ( $R^2$  gehikuntza); eta azkenik, erabilitako aldagaietatik ereditik kanpo geratu direnak zein diren identifikatzea.

<sup>5</sup> Ikus, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*

# 1. ESKOLAKO ERABILERA TESTUINGURATUZ (I): IKASLEEN TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA

Gure ikergai nagusia aztertzen bete-betea sartu aurretik, hots, euskararen erabilera eskola-giroan zer bilakaera izan duen azken lau urteetan azaltzeari ekin aurretik, atal honetan LMH4ko eta DBH2ko ikasleen hainbat ezaugarri aurkeztuko ditugu, zuzenean edo zeharka gure ikergai nagusian eragina duten aldagaiak direla jakinik.

Ezaugarri horiek hiru testuingurutan banatu ditugu, baina jakitun gara hainbat aldagai eremu batean edo bestean sartu zitezkeela edota testuinguruen sailkapena bera beste bat izan zitezkeela. Edonola, asmoa ez da eremu hauetan zehaztapenetan sartzea, gure helburua den eskola erabileraren datuei testuingurua jartzea baizik. Horrenbestez, lortutako datuak testuinguru soziala, familia testuingurua eta eskola testuinguruetan sailkatu ditugu hurrengo azpiataletan.

## 1.1. TESTUINGURU SOZIALA

### 1.1.1. UDALERRIEN EUSKALDUN-DENTSITATEA

Ikastetxea kokatua dagoen udalerrian biztanle euskaldunek osatzen duten ehunekoaren arabera, bederatzi multzo sortu ditugu, 2011ko biztanleriaren datuetan oinarrituta<sup>6</sup>. Multzo horietako bakoitzean dagoen ikasleen proportzioa taula honetan aurkeztu dugu.

5. TAULA: IKASLEAK, EUREN IKASTETXEA DAGOEN UDALERRIKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Eremu soziolinguistikoa					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
%90,01-%100,0	0,2	0,3	0,4	0,0	0,2	0,1
%80,01-%90,0	2,5	3,9	3,7	1,4	2,9	2,7
%70,01-%80,0	5,8	5,9	5,9	5,1	5,5	5,3
%60,01-%70,0	6,7	5,7	5,7	7,7	6,1	6,4
%50,01-%60,0	11,8	11,4	11,9	12,1	11,5	11,8
%40,01-%50,0	15,3	14,9	13,6	15,9	15,8	14,8
%30,01-%40,0	9,0	9,4	9,2	8,4	8,8	9,1
%20,01-%30,0	38,7	38,2	39,3	40,2	39,8	40,3
%10,01-%20,0	9,9	10,2	10,3	9,1	9,3	9,5
%0-%10	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.636	19.114	20.987	17.184	17.121	19.095

Irakurketa errazte aldera, hurrengo grafikoan lau taldetan multzokatu ditugu bederatzi eremu horiek. Grafikoan ikus daitekeenez, 2011tik 2015era aldaketa txikiak eman dira. Joera orokorra geroz eta ikasle gehiago eremu euskaldunagoetan egotera delarik.

LMH4n %0 eta %20 arteko multzoa 4 hamarrekoko irabazi ditu baina hurrengo tartea (%20 eta %50 artekoa) 9 hamarrekoko jaitzi. Hurrengo bi tartetan aldiz kontrakoa gertatu da: %50etik %80ra doan taldea 9 hamarrekoko jaitzi da eta “muturreko” tartea (%80tik %100era) 1,4 hamarrekoko igo. DBH2n hamarrekoko batzuen gorabehera tarte bakoitzean, baina joera berdina eman da LMH4rekin alderatua. Gehien hazi den multzoa, multzo euskaldunena (%80-%100) izan da (1,5 puntu).

<sup>6</sup> EUSTAT Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak, 2011

A. GRAFIKOA: IKASLEAK, EUREN IKASTETXEA DAGOEN UDALERRIKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERAKO PROPORZIOA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Bestalde, euskaldunen ehunekoaren arabera hiru multzo osatzen baditugu (%10etik %30era; %30,1-%60 eta %60,1etik gora), ikusten dugu EAeko ikasleen ia erdiak euskaldunak %30etik behera diren udalerrietan ikasten duela: LMH4ko ikasleen %49,6k eta DBH2koen %49,8k. Aldiz, euskaldunak %60tik gora diren herrietan ikasten dutenak gutxiengo nabarmena dira: ikasle guztien %15,7 LMH4n eta %14,4 DBH2n.

1.1.2.HIZKUNTZA ERABILERA LAGUNEKIN: INTERNET BIDEZ (Txat)

EAeko haur eta nerabe gehienek ez dute euskara askorik erabiltzen lagunekin txat bidez dituzten harremanetan. LMH4n hamarretik 7 gaztelaniaz aritzen dira eta DBH2n hiru laurdenak. LMH4ko gaztelaniazko proportzioa 2011tik hona, 1,8 puntu jaitسي da eta DBH2n antzera mantendu da (0,3ko igoera).


Ikasleen laurdenak baliatzen du euskara LMH4n eta hiruzpalau puntu gutxiago DBH2n. Erabilerak aldiz, kontrako joera izan du bi mailetan: LMH4n puntu bateko igoera eta DBH2n 0,8ko jaitسي. Ingelesak edo beste hizkuntzek oso presentzia txikia dute EAeko gaztetxoaren artean, lagunarteko txatetan (kasurik onenean %2,5era ez da iristen bi aukeren batuketa).

6. TAULA: IKASLEEK LAGUNEKIN TXATEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzun holako egoeratan: Zure lagunekin txateatu duzun azken aldian					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara	25,8	-	26,8	22,3	-	21,5
Gaztelania	72,4	-	70,6	76,3	-	76,6
Ingelesa	-	-	0,8	0,0	-	1,1
Beste hizkuntza bat	1,8 <sup>7</sup>	-	1,8	1,4	-	0,8
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	14.360	-	5.911	16.651	-	5.934

<sup>7</sup> 2011n Euskara eta Gaztelaniaz gain “beste hizkuntza bat” aukera zegoen soilik; 2015ean berriz, aukera hori bitan banatu da, “Ingelesa” alde batetik eta “Beste hizkuntza bat” bestetik. Hortik letozke datuen aldeak.

B. GRAFIKOA: IKASLEEK LAGUNEKIN TXATEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



1.1.3.ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN

Eskolaz kanpoko jarduera ezberdinak (eskolaz kanpoko ekintzak, klase partikularrak eta udaleku eta kanpamenduak) zein hizkuntzetan egiten dituzten galdetu diegu EAEko haur eta nerabeei. Euren erantzunen arabera, nagusiki gaztelaniaz gauzatzen dira jarduera horiek guztiak, bai LMH4ko ikasleen eta batez ere DBH2ko ikasleen artean, baina jardueraren arabera alde esanguratsuak daude, are gehiago bilakaerei erreparatzen badiegu.

**KLASE PARTIKULARRAK**


Eskolaz kanpo jasotzen dituzten *klase partikular*rengatik hasita, LMH4 gehiago dira beti edo gehienetan euskaraz jasotzen dituztenak (%34,9) beti edo gehienetan gaztelaniaz jasotzen dituztenak baino (%30,2) eta bien arteko aldea 1,8 puntukoa izatetik 2011n, 4,7 puntukoa izatera pasa da 2015ean. DBH2n ordea, multzo nagusia beti edo gehienetan gaztelaniaz jasotzen dituztenen multzoa da (%42,5), baina bilakaera oso bestelakoa izan da. Horrela 2011n multzo horrek erdia baino gehiago barnebiltzen zuen (%51,7) eta 2015erako ia 10 puntuko jaitsiera izan du (9,2koa zehazki). Klase partikularretan euskaraz beti edo gehiago erabiltzen dutenen multzo aldiz, hazi egin da %22,7tik egungo %26,2ra, hau da, 3,5 puntu.

Bietan modu esanguratsuan igo egin dena, LMH4n DBH2n baino gehiago, “beste hizkuntza” batean aritzen direnen multzoa da. Euskara eta gaztelaniaren azpitik baldin badago ere, LMH4n biekiko tartea asko murriztu da 2011z geroztik eta DBH2, euskararekiko tartea zertxobait txikitu egin bada ere, gaztelaniarekiko nabarmen txikitu da.

7. TAULA: IKASLEEK KLASE PARTIKULARRETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Zein hizkuntzatan ... Klase partikularretan?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	26,0	-	24,9	14,9	-	17,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	10,1	-	10,0	7,8	-	9,0
Bietan berdin	11,7	-	10,4	9,0	-	9,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	8,4	-	8,4	9,6	-	9,4
Beti gaztelaniaz	25,8	-	21,8	42,0	-	33,0
Beste hizkuntzan batean	18,1	-	24,5	16,6	-	21,8
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>11.836</i>	-	<i>14.270</i>	<i>13.928</i>	-	<i>13.871</i>
Erabilera-tasa esleitua (%)	41,5	-	39,7	27,7	-	31,1

**C. GRAFIKOA: IKASLEEK KLASE PARTIKULARRETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)**



Guztia laburtuz, erabilera-tasa esleitua erabilita, LMH4n euskararen erabilera %40 ingurukoa da (%39,7 zehazki) eta 2011tik jaitsiera egon da (1,8 puntukoa). DBH2n berriz, erabilera txikiagoa da, %31,1ekoa, baina 2011z geroztik hazkundera nabaria izan da, 3,4 puntukoa.

**D. GRAFIKOA: IKASLEEK KLASE PARTIKULARRETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. EUSKARAREN ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)**



**ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

*Eskolaz kanpoko ekintzetan* gaztelania da nagusi bi ikasmailetan. 2011tik 2015era bi ikasmailetan jaitsiera eman da beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenen proportzioan (1,9 puntu LMH4n eta 1,1 puntu DBH2n).

Beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen proportzioa bigarrena da bi ikasmailetan baita ere. LMH4n egun %31,7 da eta 2011k ia ez da aldaketarik egon. DBH2n berriz, 1,1 puntuko hazkundera egon da 2011tik, 2015ean 21,9koa izanik.




Beste hizkuntza batean aritzen direnen datuek gorantz egin dute bi ikasmailetan. 2011tik 2015era bitartean. Igoera 2,9 puntukoa izan da LMH4n, 2015ean %10,4ra iritsiz, eta 1,5 puntukoa 2,8 DBH2n, 2015ean %8,7koa izanik.

8. TAULA: IKASLEEK ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolaz kanpoko ekintzetan?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	21,5	18,9	20,9	12,7	10,7	13,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	10,3	13,2	10,7	8,1	8,9	8,7
Bietan berdin	10,4	12,7	9,6	8,8	8,9	8,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	11,8	14,1	13,0	11,7	16,0	13,0
Beti gaztelaniaz	38,4	35,0	35,4	51,6	49,7	48,2
Beste hizkuntzan batean	7,5	6,1	10,4	7,2	5,9	8,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	16.529	18.816	17.957	15.812	16.969	16.710
Erabilera-tasa esleitua (%)	37,4	38,6	37,0	26,1	25,8	27,1

E. GRAFIKOA: IKASLEEK ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Erabilera tasa esleituei erreparatuta, kontrako joerak ageri dira LMH4 eta DBH2ren artean. Lehen bi urteetan (2011-2013) LMH4n tasa esleitua igo egin zen bitartean, DBH2n jaitsi egin zen. 2013 eta 2015 artean justu kontrakoa gertatu da. 2011tik 2015era bitartean esan dezagun, LMH4n jaitiera izan dela (0,4 puntukoa) eta DBH2n igoera (puntu batekoa).

F. GRAFIKOA: IKASLEEK ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. EUSKARAREN ERABILERA-TASA ESLEITUA LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



## UDALEKU ETA KANPAMENDUAK


Eskolaz kanpoko jardueren artean, azken aldagaia, udaleku eta kanpamenduetan aztertuko dugu. LMH4n 2011tik 2015era beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenek beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak gainditu dituzte. 2011n parean baina azpitik ziren eta egun 3,2 puntuko aldea dago bien artean. DBH2n berriz, multzo nagusi berdina bada ere (beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenak), euskararekiko tartea txikitu da, gaztelaniaren aldeko proportzioa jaitسي eta euskararen aldekoa igo egin delako (24,5 puntuko aldea izatetik, 21,4ra).

Eremu honetan ere, oraindik bai presentzia eta bai 2011tik egondako igoera txikia badira ere, “beste hizkuntza baten” presentzia handitzen doa, %5,0 gaindituz bi ikasmailetan.

9. TAULA: IKASLEEK UDALEKU ETA KANPAMENDUETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Zein hizkuntzatan ... Udaleku edo kanpamenduetan?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	29,3	-	27,7	16,0	-	16,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	13,0	-	12,4	12,3	-	13,0
Bietan berdin	13,1	-	10,9	13,5	-	12,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	10,5	-	11,2	12,6	-	13,2
Beti gaztelaniaz	31,0	-	32,2	40,2	-	38,0
Beste hizkuntzan batean	3,1	-	5,6	5,3	-	6,4
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	13.968	-	16.081	15.292	-	15.513
Erabilera-tasa esleitua (%)	48,3	-	45,3	35,2	-	36,2

G. GRAFIKOA: IKASLEEK UDALEKU ETA KANPAMENDUETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Orain arte komentatutakoa, tasa esleituei erreparatuta argiago ageri da. LMH4n 3 puntuko jaitسي era egin da udaleku eta kanpamenduetan ikasleek egiten duten euskara erabilera (%45,3an geratuz), DBH2n puntu baten igoera egin den bitartean (%35,2tik %36,2ra).

- H. GRAFIKOA: IKASLEEK UDALEKU ETA KANPAMENDUETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. EUSKARAREN ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN [tr]


Eskolaz kanpoko jardueren artean Arrue ikerketan aztertu izan diren hiru jardueren artean, 2013an aldagai bakar baten informazioa jaso zen (*eskolaz kanpoko ekintzak*), beste biak ez baitziren neurtu. 2011 eta 2015 urteetan aldiz, gorago azaldu berri diren hiru aldagaien informazioa jaso da eta horiekin osatu da *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* aldagai trinkoa (tr). Aldagai orokor horren informazioa da ondorengo taulan eta grafikoan eskaintzen dena.

Erabilera-tasa esleituaren arabera, LMH4n DBH2n baino euskara gehiago erabiltzen bada ere, lau urteetako bilakaera beheranzkoa izan da (1,4 puntu gutxiago, %40,5ean kokatu da). DBH2n berriz, aldaketa handia izan ez bada ere, igoera txiki bat egon da (1,2 puntu, %31,0an kokatuz).

10. TAULA:ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN [TR], multzotan (%). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN [TR], multzotan					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Guztia euskaraz, %100,0	13,1	-	11,1	6,4	-	6,8
Euskara %70,1-%99,0	12,1	-	11,3	8,7	-	8,8
Euskara %30,1-%70,0	31,8	-	34,2	25,1	-	26,7
Euskara %0,1-%30,0	18,3	-	18,9	23,1	-	23,2
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	24,7	-	24,4	36,7	-	34,5
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	17.516	-	19.038	16.374	-	17.425
Erabilera-tasa esleitua (%)	41,9	-	40,5	29,8	-	31,0

I. GRAFIKOA: ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN [Tr]. EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA.LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)




**ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK INGELESEZ**

Aurretik, hainbat eremutan ikusi da, ingelesaren (batzuetan “beste hizkuntza baten” barruan ere sartuta) presentzia igotzen doala. Horrela, egun, LMH4ko ikasleen %40,0k jardueraren bat egiten du ingelesez eskolatik kanpo. Proporzio hori %49,9ra igotzen da DBH2ren kasuan.

11. TAULA: ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN INGELESEZ BATEN BAT EGITEN DUTEN IKASLEAK ETA ASTEAN ESKAINITAKO ORDUAK. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Egiten duzu eskolaz kanpoko jardueraren bat ingelesez?	
	LMH4 2015	DBH2 2015
Bai	40,0	49,9
Ez	60,0	50,1
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	19.773	18.045
	Eskolaz kanpoko jardueraren bat ingelesez egitekotan, zenbat ordu astero?	
	LMH4 2015	DBH2 2015
Ez dut ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzarik egiten	60,0	50,1
Bi ordu baino gutxiago	28,2	15,1
Bi eta lau ordu artean	10,5	33,2
Lau ordu baino gehiago	1,3	1,5
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	19.773	18.045

J. GRAFIKOA: IKASLEEK ESKOLAZ KANPO INGELESEZ JARDUERARIK EGITEN DUTEN. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Ingeleseko jardueraren bat egiten dutenak gehiago izanik DBH2n LMH4n baino, astean zehar ordu gehiago eskaintzen diote ere. Horrela, LMH4ko ikasle guztien artetik %28,2k bi ordu baino gutxiago eskaintzen diote ingelesari astean, eta beste %10,5 bi eta lau ordu artean. DBH2n, proportzio horiek aldatu eta multzo nagusia (%33,2) bi eta lau ordu artean eskaintzen diotenena da. Ondoren ikasle guztien %15,1ek bi ordu baino gutxiago eskaintzen diotenak datoz.

K. GRAFIKOA: IKASLEEK ESKOLAZ KANPO INGELESEZ JARDUERARIK EGITEN DUTEN ETA ZENBAT DENBORAZ. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



#### 1.1.4. HEDABIDE ETA KULTUR KONTSUMO-HIZKUNTZA

Atal honetan neurtutako bost eremuetan, soilik DBH4ko ikasleak gehien entzuten duten musikan ez da ageri gaztelania lehen lekuan edo portzentajerik handienarekin. Eta aipatu kasuan, ingelesak hartzen du proportziorik handiena.

Baina goazen atalez atal. WEB orrietan LMH4ko ikasleen euskara erabilerak gora egin du lau urteetan: %16,2tik %19,8raino. Hori eta gehien entzuten duten irratsaioarena dira euskararen erabilerak gora egin duen eremu bakarrak. Igoera hori gaztelaniaren erabilera jaistetik etorri da. DBH2ren kasuan, WEB orrietan gaztelaniak 3,2 puntuko igoera izanik %84,9an kokatu da eta euskara 2011n zuen portzentajetik erdira jaitsi egin da (%15,7tik %7,6ra).

Gehien ikusten duten telebista eta filmaren kasuetan zenbakiak oso antzekoak dira. LMH4ko kasuan 10etatik zortzi eta erdiak gaztelaniaz ikusten dituzte eta aldaketa txikiak egon dira 2011tik. DBH2ren kasuan 10etik 9k eta gehiagok ikusten dituzte gaztelaniaz eta hemen ere aldaketa gutxi egon da 2011z geroztik.

Gehien entzuten duten musika taldearen edo abeslarien kasuan, errealitatea ezberdina da. LMH4n oraindik ere gaztelaniak lehen postuari eusten badio ere, oso gutxigatik lortzen du (0,9 hamarreko) eta joera, DBH2n bezala, ingelesak lehen lekua hartzea da. DBH2ren kasuan, egun erdiak baino gehiagok horrela egiten dute (%51,7).

Azkenik, gehien entzuten duten irratsaioan lortzen du euskarak presentzia altuena, bi ikasmailetan. LMH4ko kasuan heren batek (%33,4) euskaraz entzuten dute irratsaioa eta 2011tik hazkundera egon da (3,9 puntukoa). DBH2ren kasuan pixka bat gutxiago dira euskaraz entzuten dutenak, laurden bat pasa (%26,8), baina hemen ere hazkundera egon da 2011tik (1,9 puntukoa).

12. TAULA: IKASLEEK HEDABIDE ETA KULTUR KONTSUMOAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: A. Gehien bisitatzen duzun web orrian				
	LMH4		DBH2	
	2011 <sup>8</sup>	2015	2011 <sup>9</sup>	2015
Euskara	16,2	19,8	15,7	7,6
Gaztelania	81,7	74,4	81,7	84,9
Ingelesa	-	3,6	-	6,6
Beste hizkuntza bat	2,2	2,2	2,5	0,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	16.769	6.174	16.760	5.958
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: B. Gehien ikusten duzun telebista saioan				
Euskara	13,6	11,5	4,2	5,3
Gaztelania	84,9	85,2	93,9	91,6
Ingelesa	-	1,9	-	2,2
Beste hizkuntza bat	1,5	1,3	2,0	0,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.291	6.426	16.816	5.957
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: C. Gehien entzuten duzun musika taldea edo abeslaria				
Euskara	14,7	14,4	11,9	9,5
Gaztelania	47,6	41,6	40,9	36,2
Ingelesa	-	40,7	-	51,7
Beste hizkuntza bat	37,7	3,2	47,2	2,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	17.849	6.378	16.699	5.946
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: D. Gehien entzuten duzun irratsaioan				
Euskara	29,5	33,4	24,9	26,8
Gaztelania	67,3	60,7	71,8	68,9
Ingelesa	-	3,8	-	3,3
Beste hizkuntza bat	3,2	2,1	3,3	1,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	16.071	6.091	16.237	5.715
Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: E. Zineman ikusi duzun azken filmean				
Euskara	12,6	12,4	3,5	2,4
Gaztelania	86,2	84,9	95,1	95,2
Ingelesa	-	1,7	-	1,7
Beste hizkuntza bat	1,2	1,0	1,5	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.319	6.372	16.819	5.942

<sup>8</sup> 2011n Euskara eta Gaztelaniaz gain "beste hizkuntza bat" aukera zegoen soilik; 2015ean berriz, aukera hori bitan banatu da, "Ingelesa" alde batetik eta "Beste hizkuntza bat" bestetik. Hortik datuen aldeak.

<sup>9</sup> Idem



L. GRAFIKOA: HEDABIDE ETA KULTUR KONTSUMORAKO HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)<sup>10</sup>




<sup>10</sup> Grafikoa argiagoa izan zedin eta 2011 eta 2015 urteen arteko alderaketa errazteko, 2015eko datuetarako “Beste hizkuntza bat” eta “Ingelesa” batuta daude. Xehetuta ikusi ahal izateko jo aurreko taulara.

13. TAULA: IKASLEEK HEDABIDE ETA KULTUR KONTSUMO OROKORRA. EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOA [TR]					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Guztia euskaraz, %100,0 (erabilera-tasa esleitua %100,0koa denean)	1,7	-	1,7	0,5	-	0,6
Euskara %70,1-%99,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)	3,6	-	3,0	1,3	-	0,8
Euskara %30,1-%70,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)	17,6	-	19,6	14,6	-	11,4
Euskara %0,1-%30,0 (erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)	20,1	-	24,0	17,2	-	18,4
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0 (erabilera-tasa esleitua %0,0koa denean)	57,0	-	51,7	66,3	-	68,7
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	18.179	-	19.764	16.745	-	18.043
Erabilera-tasa esleitua (%)	17,0	-	18,1	11,9	-	10,2

Guztia kontuan hartuta, kontsumo mota guztiak adierazle bakarrera ekarrita, LMH4n igoera egon dela ikus dezakegu 2011tik 2015era. Zehazki, 1,1 puntuko igoera, eta euskarazko kontsumo oso txikiak zituztenen aldetik etorri da, dena gaztelaniaz kontsumitzen zutenen kaltetan. Epealdi berebean, DBH2n berriz, jaitsiera izan da, 1,7 puntukoa, egun 10,2an kokatuz. Hauen kasuan jaitsiera kontsumo altuak edoertainak zituztenen aldetik etorri da (%99 eta %30 artean).

M. GRAFIKOA: HEDABIDE ETA KULTUR KONTSUMORAKO HIZKUNTZA. EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



## 1.2. FAMILIA TESTUINGURUA

### 1.2.1. LEHEN HIZKUNTZA


Hiru urte bete arte lehen hizkuntza gisa euskara soilik izan dutenak, LMH4n, %19,8tik %21,4ra pasa dira lau urtetan. DBH2n balio bertsuetan mantentzen da: %20,4tik, 2011n, %20,2ra, 2015ean. Euskara hutsa edo euskaraz gain gaztelania ere lehen hizkuntza izan dituztenak elkarrekin hartuta, LMH4n 3,6 puntukoa da igoera (%33,5etik %37,1era) eta DBH2n 0,7 puntuko jaitsiera (%35,4tik %34,7ra). Era berean, lehen hizkuntza beste hizkuntza bat dutenek ere gora egin dute: LMH4n %4,5etik %5,5era eta DBH2n %4,4tik %5,2ra.

Horren guztiaren ondorioz, aldaketa nagusia LMH4n soilik gaztelania lehen hizkuntza izan dutenen artean eman da. Bilakaera honetan, 4,6 puntuko jaitsiera egon da, hau da, 2011n %62,0 ziren gaztelania zutenak lehen hizkuntza bakartzat, eta 2015ean %57,4 dira. DBH2ko ikasleen artean, aldiz, ez da halako bilakaerarik eman.

14. TAULA: LEHEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara	19,8	-	21,4	20,4	-	20,2
Bai euskara bai gaztelania	13,7	-	15,7	15,0	-	14,5
Gaztelania	62,0	-	57,4	60,2	-	60,1
Beste hizkuntza bat	4,5	-	5,5	4,4	-	5,2
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	18.206	-	19.740	16.758	-	18.020

N. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### 1.2.2.FAMILIA-GIROKO ERABILERA

Familia-giroko hizkuntza-ohituren inguruko bost galdera txertatu genituen inkestan. Amarekin, aitarekin eta neba-arrebekin zein hizkuntzetan egiten duten galdetu diegu ikasleei. Horretaz gain, gurasoek euren artean nola egiten duten ere galdetu diegu, eta familia osoa elkarrekin dagoenean (otorduetan edo telebistaren aurrean, adibidez) zein hizkuntzetan aritzen diren ere bai. Galdera horiei guztiei emandako erantzunak taula eta grafiko hauetan aurkeztu ditugu.

Beherago –tauletan- ikus daitekeenez, gutxiengoa dira etxeko harreman guztietan euskaraz aritzen diren haur eta nerabeak. Aldeak ikusten dira, hala ere, eta ikasleek emandako erantzunen arabera betiere, amarekin gehiago egiten dute euskaraz aitarekin baino (2,6 puntuko alde LMH4n eta 1,1ekoa DBH2n), eta neba-arrebekin gehiago amarekin baino. Bilakaeran, LMH4ko ikasleek gero eta gehiago dira beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak bai aitarekin (2,6 puntu) bai amarekin (3,1 puntu). DBH2n, ia-ia proportzio berean mantentzen dira. Neba-arrebekin 2011tik 2015era LMH4n igoera egon bada ere (%30,8tik %33,5era), DBH4n jaitsiera txikia dago (%26,6tik %25,6ra).Gurasoen arteko euskararen erabilera dezente jaisten da guraso-haur elkarriketekin alderatuta (7 bat puntu ikasmailako). Hala ere, haien arteko elkarriketetan euskararen presentzia igo da, bai LMH4ko gurasoen artekoetan (5,5 puntu) bai DBH2koen artekoetan (0,9 puntu)..


15. TAULA: IKASLEEK FAMILIAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZARI BURUZKO GALDEREI EMANDAKO ERANTZUNAK. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure aitarekin?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti edo gehienetan euskaraz	23,9	25,7	26,5	20,6	20,6	20,9
Beti edo gehienetan gaztelaniaz	72,4	69,6	67,8	75,8	75,5	75,0
Beste hizkuntza batez (arabieraz, txineraz, errumanieraz, ingelesez...)	3,7	4,7	5,7	3,6	4,0	4,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.198	18.729	19.528	16.682	16.832	17.715
	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure amarekin?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti edo gehienetan euskaraz	26,0	28,5	29,1	21,2	21,4	22,0
Beti edo gehienetan gaztelaniaz	70,3	67,1	65,5	75,4	74,9	73,9
Beste hizkuntza batez (arabieraz, txineraz, errumanieraz, ingelesez...)	3,7	4,4	5,4	3,4	3,8	4,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.277	18.794	19.640	16.783	16.990	17.923
	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu neba-arrebekin?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti edo gehienetan euskaraz	30,8	34,0	33,5	26,6	26,6	25,6
Beti edo gehienetan gaztelaniaz	66,8	62,7	62,9	70,6	70,3	72,0
Beste hizkuntza batez (arabieraz, txineraz, errumanieraz, ingelesez...)	2,4	3,4	3,6	2,7	3,1	2,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	15.837	16.994	17.210	14.854	15.368	15.597
	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue zure gurasoek beraien artean?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti edo gehienetan euskaraz	13,5	17,0	19,0	11,9	12,8	13,8
Beti edo gehienetan gaztelaniaz	82,4	78,6	75,7	84,5	83,2	81,9
Beste hizkuntza batez (arabieraz, txineraz, errumanieraz, ingelesez...)	4,1	4,4	5,3	3,5	4,0	4,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.068	18.877	19.578	16.641	16.882	17.724
	Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...) zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskaraz bakarrik	11,0	12,5	13,8	8,8	9,5	9,7
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	7,8	8,6	8,3	7,9	7,5	7,6
Bietan berdin (gaztelaniaz eta euskaraz)	8,2	8,5	8,0	5,5	4,6	4,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	15,6	18,4	16,5	17,3	17,5	16,1
Gaztelaniaz bakarrik	54,1	48,0	48,5	57,4	57,3	58,0
Beste hizkuntza batez (arabieraz, txineraz, errumanieraz, ingelesez...)	3,2	3,9	4,8	3,2	3,6	3,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.403	19.001	19.773	16.874	17.072	18.045
Erabilera-tasa esleitua (%)	24,9	27,8	28,2	21,8	21,8	21,8

Etxeko guztiak elkarrekin daudenean ere gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa da etxerik gehien-gehienetan. Zehatzago, 2015ean %65,1ekoa da LMH4n eta %74,1ekoa DBH2n. Hala ere, LMH4n euskaraz presentzia irabazten joan da neurketa batetik bestera (%18,9tik 2011n %22,1era 2015), ez horrela DBH2n, non ia-ia lau urteetan emaitzak berdinak izan diren (%17,3 2015ean).

Euskaraz bakarrik eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago batetik eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta gaztelaniaz bakarrik bestetik gehitu dira ondoko grafikoan.

O. GRAFIKOA: FAMILIAKO KIDEEKIN GUZTIAK DAUDENEAN (OTORDUETAN, TELEBISTAN...) ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)




Datu horiek guztiak laburtuta, *etxeko erabilera [tr]* aldagaiaren tasa esleitu kalkulatu dugu (ikus aldagai horren osaketa eta haztatzerako irizpideak 0.5 ataleko metodologia oharretan). Etxeko erabilera orokorrari buruzko datuak irakurrita, argi antzematen da egun EAEko haur eta nerabe gehienek gaztelaniaz egiten dutela beti edo nagusiki euren etxeetan. Aitzitik, etxeko erabilera-tasa esleituak adierazten duenez, etxeko harremanen %28,7 dituzte euskaraz LMH4ko ikasleek eta horrek esan nahi du, lau urteetan 3,4 puntuko igoera egon dela etxeko testuinguru honetan. DBH2koen kasuan, etxeko erabilera tasa orokorra, 2015ean, %22,1 da. Horien kasuan, igoera 0,5ekoa izan da 2011tik, LMH4koena baino apalagoa, baina bi urtero pixkanaka igotzen joan dena. Funtsezko datuak ditugu honako hauek beste esparru batzuetan ikasleek dituzten hizkuntza-ohiturak eta joerak ulertzeko.

16. TAULA: IKASLEEK OROKORREAN FAMILIA-GIROAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA, ERABILERA-TASA ESLEITUAK MULTZOTAN. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Etxeko erabilera [tr] (multzotan)					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Guztia euskaraz, %100,0	8,4	8,4	11,5	7,7	8,4	8,7
Euskara %70,1-%99,0	8,9	8,8	8,8	6,8	6,9	7,3
Euskara %30,1-%70,0	12,4	13,6	12,5	10,4	8,8	8,6
Euskara %0,1-%30,0	21,3	25,3	23,2	19,1	20,4	18,6
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	49,0	44,0	44,0	56,0	55,6	56,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	15.456	19.114	16.713	14.580	17.121	15.134
Erabilera-tasa esleitu (%)	25,3	26,5	28,7	21,6	21,8	22,1

P. GRAFIKOA: IKASLEEK OROKORREAN FAMILIA-GIROAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. EUSKARAREN ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### 1.3. ESKOLA TESTUINGURUA


#### 1.3.1. IRAKASTEREDUA

2015. urtean inkesta bete zuten LMH4ko ikasleen bi herenek pasa (%70,5) eta DBH2koen ia bi herenek (%64,4) D ereduan ikasten zuten, laurdenek B ereduan (LMH4koen %24,3k eta DBH2koen %26,5ek) eta gutxiengo txiki batek A ereduan (LMH4koen %5,2k eta DBH2koen %9,0k). Ikasmaita batetik bestera datuotan dagoen aldea, ikasturtez ikasturte EAEn irakastereduetan ematen ari den bilakaera orokorraren isla da (A ereduko ikasleen proportzioa beherantz eta D eredua gorantz).

17. TAULA: IKASLEEN IRAKASTEREDUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Irakasteredua					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
A eredua	7,4	5,9	5,2	13,2	11,1	9,0
B eredua	28,5	26,6	24,3	27,9	27,8	26,5
D eredua	64,0	67,4	70,5	58,8	61,0	64,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.636	19.114	21.167	17.184	17.121	19.095

Q. GRAFIKOA: IKASLEEN IRAKASTEREDUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



#### 1.3.2. IRAKASLEEN ARTEKO ELKARRIZKETETAKO HIZKUNTZA

Inkestako galdera batean ikasleei galdetu genien euren irakasleak zein hizkuntzatan aritzen diren euren artean. Irakasleen esanetan, irakasleen arteko harremanetan euskara da nagusi EAEn. Dena dela, irakasleak ikasleekin bezala, *irakasleen erabilera haien artean* ikasmaitaren arabera alderatzean ezberdintasunak ageri dira bilakaeretan.

LMH4n beti edo gehienetan euskaraz egiten duten irakasleen proportzioa mantendu da 2011 eta 2015 artean (azken urte horretan, %70,5). Beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenen multzoa berriz, gutxinaka bada ere, igotzen joan da 2011tik (2015ean, %18,5).




Aldiz, DBH2n, beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen multzoa nabarmen igo da, 2011tik 2013rako jautzia 2013tik 2015erakoa baino handiagoa izan zelarik (4,4 lehenengoan, 2,3 bigarreanean), guztira 6,7ko igoerarekin eta 2015ean %66,5 izatera iritsiz. Horrek, beste bi multzoen proportzioak txikitzea ekarri du.

18. TAULA: IRAKASLEEK EUREN ARTEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA (IKASLEEN HAUTEMATEAREN ARABERA). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan...hitz egiten duten zure irakasleak beraien artean.					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	52,1	51,2	53,5	33,7	38,1	40,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	18,6	17,6	17,0	26,1	26,0	26,3
Bietan berdin	12,9	12,4	10,4	18,7	15,7	15,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,3	8,2	8,2	10,0	9,3	9,2
Beti gaztelaniaz	8,7	9,9	10,3	10,9	10,2	8,6
Beste hizkuntzan batean	0,4	0,7	0,6	0,6	0,6	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.338	19.075	19.764	16.824	17.102	18.043
Erabilera-tasa esleitua (%)	74,3	72,7	73,5	65,1	67,9	69,8

R. GRAFIKOA: IRAKASLEEK EUREN ARTEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA (IKASLEEN HAUTEMATEAREN ARABERA). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Erabilera-tasa esleituei begiratuta, aipatutakoa ageriago geratzen da. LMH4ko irakasleen artean 0,8 puntu jaitsi egin da euskara erabilera tasa 2011tik 2015era. DBH2ko irakasleen artean berriz, 4,7 puntuko igoera egon da guztira.

S. **GRAFIKOA: IRAKASLEEK EUREN ARTEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA (IKASLEEN HAUTEMATEAREN ARABERA) EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)**



## 2. ESKOLAKO ERABILERA TESTUINGURATUZ (II): IKASLERIAREN HAINBAT EZAUGARRI

### 2.1. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOKO EMAITZAK

#### 2.1.1. EUSKARAZKO, GAZTELANIAZKO ETA INGELESEZKO HIZKUNTZA- KONPETENTZIAK


*Euskarazko hizkuntza-kompetentzian*<sup>11</sup>, 2015ean LMH4ko ikasleen %63,1ek gainditu du gutxieneko maila (“hasierako-maila”). Horien artean, maila aurreratua eskuratu dutenak %25,3 da; ehuneko hori 2011tik txikiena da. Hasierako mailan gelditu diren ikasleen ehunekoa, berriz, lau urteetako handiena da izan da 2015ean (%36,8).

DBH2n ere “hasierako maila” gainditzen ez duten ikasleen ehunekoa lau urteko altuena izan da 2015ean (%47); alegia, ia ikasleriaren erdia. Aldi berean, behera egin du *euskarazko hizkuntza-kompetentzian* gutxieneko maila gainditu dutenen proportzioak (%53) (“erdi-maila” eta “maila aurreratua”), 2013tik 2015era indartsuagoa izan delarik joera hori.

19. TAULA: IKASLEEN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)

	Euskarazko hizkuntza-kompetentzia					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Maila aurreratua	32,4	25,7	25,3	20,9	20,7	16,0
Erdi-maila	37,0	43,1	37,8	41,9	41,0	37,0
Hasierako maila	30,6	31,1	36,8	37,2	38,3	47,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	17.935	18.854	19.604	16.117	14.373	17.720

T. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



<sup>11</sup> Ebaluazio Diagnostikoa probari buruzko argitalpenetan, euskarazko kompetentzia hau *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* izendatzen da. Nolanahi ere, lan honen izaera soziolinguistikoan oinarrituz, eta kontuan izanik ikasleen kompetentzia hori neurtzeko garaian ikasleen *ulermenezko* kompetentziak soilik neurtzen direla (idatzizko ulermeneko kompetentzia eta ahozko ulermenekoa), egokiago iruditu zaigu lan honetan aldagai hori *Euskarazko hizkuntza-kompetentzia* izendatzea.


Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia<sup>12</sup> “hasierako maila” gaituz, ikasleen %89,4k nahikotasun maila ziurtatu du, 2015ean. Horien artean, maila aurreratua eskuratu dutenak % 27,1 dira. Hasierako maila gaituz iritsi ez diren ikasleak %10,6 dira 2015ean; hots, 2011koak (%11,4) baino pixka bat gutxiago.

DBH2n 2015ean handitu da gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia nahikotasun maila lortu ez dutenen proportzioa, halakoan zifra %14,0a iritsiz (1,6 puntu gehiago 2011koarekin alderatuta). Aurrekoaren osagarri, erdi-maila eta maila aurreratua lortu dutenen batuketak pixka bat egin du gora, 2015ean %86,1 izanik.

20. TAULA: IKASLEEN GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMPETENTZIA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)

	Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Maila aurreratua	27,3	28,9	27,1	29,3	29,4	28,8
Erdi-maila	61,3	64,7	62,3	58,3	55,6	57,3
Hasierako maila	11,4	6,4	10,6	12,4	15,0	14,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	17.946	18.468	19.515	16.492	13.689	18.187

U. GRAFIKOA: IKASLEEN GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMPETENTZIA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



Hizkuntza-kompetentziaren emaitzetatik abiatuz ikusi ditugun bi hizkuntzak alderatuta, Euskara eta Gaztelania 2011-2015 bilakaera erreparatuta alegia, gaztelaniaren mailan gorabeherak txikiak izan eta ikasleen proportzioek hiru mailatan (hasierakoa, erdikoa eta aurreratua) berdintsu banatuta jarraitzen duten bitartean, euskarazko nahikotasun maila, hasierako mailan gelditu direnen proportzioa handituz, nabarmen apaldu da ikasleengan.

Ingelesezko hizkuntza-kompetentziaren<sup>13</sup> mailen banaketari dagokionean, 2015ean ikasleen % 73,0k gaituz iritsi du kompetentzia honetako hasierako maila, hizkuntza horretan hezkuntza arloan eskatzen den

<sup>12</sup> Gorago euskarazko kompetentzia neurtzen duen aldagaiari buruz esan bezala, Ebaluazio Diagnostikoko probetan eta txostenetan aldagai hau *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* da, baina lan honetan egokiago iruditu zaigu *Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia* izendapena erabiltzea, eskaintzen den informazioa berdina izan arren eta gorago aipatu arrazoiengatik.

<sup>13</sup> Euskarazko eta gaztelaniazko aldagaiekin bezala jokatu da hemen ingelesezkoarekin ere.


gutxieneko kompetentzia badutela agerian utziz. Horien artetik, maila aurreratua eskuratu dutenak %22,3 dira. Emaitzak kompetentzia-mailen arabera aztertuz gero, “erdi-maila”n eta “maila aurreratua”n dagoen ikasle kopurua 4,6 puntu jaitsi da ehunekoetan 2011rekin alderatuta (%73,0 dira 2015ean eta %77,6 2011n).

DBH2n, 2011n eta 2015ean, *ingelesezko hizkuntza-kompetentzian*, ikasleen % 84,0k eta %84,1ek, hurrenez hurren, hasierako maila gainditzen dute. Ebaluazio Diagnostikoko bi edizio horietan, 2011n eta 2015ean, ikasleen ehunekoak alderatzean, ikusten da jaitsiera oso arina dagoela hasierako maila gainditzen ez dutenen artean (0,2 behera) eta erdiko errendimendu mailan (0,2 behera) kokatutako ikasleen ehunekoan. Aldiz, ikasleen ehunekoak goiera arina izan du maila aurreratuan (0,3 gora).

21. TAULA: IKASLEEN INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMPETENTZIA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)

	Ingelesezko hizkuntza-kompetentzia					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Maila aurreratua	24,2	-	22,3	25,2	-	25,5
Erdi-maila	53,3	-	50,7	58,8	-	58,6
Hasierako maila	22,4	-	27,0	16,1	-	15,9
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	17.409	-	18.686	15.729	-	16.822

V. GRAFIKOA: IKASLEEN INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMPETENTZIA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



## 2.2. HIZKUNTZEKIKO HAUTEMATEAK ETA JARRERAK

### 2.2.1. EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESAREKIKO BEGIKOTASUNA

Ikasleei euskara, gaztelania eta ingelesa, hiru hizkuntza horiek zein mailatan duten gustuko galdetu diegu, eta ondorengo taula honetan aurkeztu ditugu eurek emandako erantzunak.

22. TAULA: EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA GUSTUKO DITUZTEN EDO EZ (GALDEREI EMANDAKO ERANTZUNAK). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


	Gustuko al duzu euskara?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Asko	44,2	48,7	44,6	32,9	36,2	29,7
Nahikoa	19,4	19,5	18,1	21,6	21,6	21,0
Normala	24,9	20,9	25,2	26,7	24,0	27,8
Gutxi	7,6	6,5	6,9	11,0	10,1	11,6
Bat ere ez	3,9	4,5	5,2	7,7	8,0	9,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.394	19.109	6.475	16.859	17.119	5.985
	Gustuko al duzu gaztelania?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Asko	63,8	67,1	64,2	39,6	44,4	42,3
Nahikoa	18,6	16,9	17,4	31,1	29,5	28,8
Normala	13,4	11,4	13,6	23,1	20,1	22,8
Gutxi	3,0	3,0	3,1	3,9	3,6	4,2
Bat ere ez	1,2	1,5	1,6	2,1	2,3	2,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.393	19.109	6.475	16.859	17.119	5.985
	Gustuko al duzu ingelesa?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Asko	24,8	30,3	29,3	23,0	27,7	27,6
Nahikoa	23,8	24,0	23,0	26,2	28,2	27,5
Normala	26,9	23,9	25,4	26,8	24,5	24,7
Gutxi	15,3	12,5	12,7	13,8	11,5	11,8
Bat ere ez	9,2	9,3	9,6	10,2	8,0	8,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.392	19.109	6.475	16.860	17.119	5.985

LMH4ko ikasleentzat gaztelania da hiru hizkuntza hauen artean “gustuko” erantzun dutenen multzorik handiena lortzen duena: %81,6ari “nahiko” edo “asko” gustatzen zaio. Euskara ere ikasleen gehiengo handi batentzat da gustukoa, eta %62,7koa da aipatu proportzio hori. Ingelesaren kasuan berriz, gustuko dutenen proportzio hori euskararena baino 10 bat puntu baxuagoa da (%52,4). DBH2ko ikasleen kasuan ere, hizkuntzekiko begikotasunean hurrenkera berdina zen 2013 arte (gaztelania > euskara > ingelesa), baina 2015ean ingelesak aurre hartu dio euskarari, batez ere azken hizkuntza hori gustuko dutenen multzoa murriztu delako.

23. TAULA: EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA GUSTUKO DITUZTEN (ASKO EDO NAHIKO BATUTA).  
LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Gustuko al duzu...? (Asko edo nahiko)					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara	63,6	68,2	62,7	54,6	57,8	50,7
Gaztelania	82,4	84,1	81,7	70,8	73,9	71,0
Ingelesa	48,6	54,3	52,4	49,2	55,9	55,1
<i>Oinarria (n)</i>	18.392	19.109	6.475	16.860	17.119	5.985

- W. GRAFIKOA: EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA GUSTUKO DITUZTEN (ASKO EDO NAHIKO BATUTA).  
LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Erantzun horietan oinarrituta guk egindako bi sailkapenen emaitzak aurkezten ditugu ondorengo taulan *Euskara-Gaztelania begikotasuna*, eta *Euskara-Ingelesa begikotasuna* (sailkapenak egiteko prozedura metodologia-oharretan azaldu dugu).

24. TAULA: HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)


	Begikotasun Erlatiboa Euskara-Gaztelania					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara nahiago	22,1	22,0	21,3	25,8	26,1	22,0
Biak berdin	31,3	34,7	33,5	28,5	27,8	29,8
Gaztelania nahiago	46,6	43,4	45,2	45,8	46,1	48,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.388	19.109	6.475	16.858	17.119	5.985

	Begikotasun Erlatiboa Euskara-Ingelesa					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara nahiago	48,7	46,9	44,0	42,2	40,1	34,7
Biak berdin	30,6	31,9	34,3	27,5	27,6	29,7
Ingelesa nahiago	20,7	21,2	21,6	30,3	32,4	35,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.387	19.109	6.475	16.859	17.119	5.985


Euskararen eta gaztelaniaren artean, bi ikasmailetan nabarmen altuagoa da “gaztelania nahiago” duten ikasleen proportzioa “euskara nahiago” dutenena baino eta azken urteko neurketan aldea igo egin da. 20 bat puntu altuagoa izatetik 2013an 25 puntu inguruko aldea egotera pasa da, bi kasuetan).

X. GRAFIKOA: EUSKARA ETA GAZTELANIA ZEIN GUSTUKOENA . LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Euskarari eta ingelesari buruz diotena alderatuta berriz, bi ikasmailetan joera argi bat ikusten da: euskararen beherazko joera. LMHn lau urtetan 4,7 puntuko jaitsiera egon da euskararen begikotasunean %44,0an kokatu arte eta DBHn 7,5 puntuko jaitsiera, %34,7an kokatuz. Ordainetan LMHn bi hizkuntzen arteko orekak irabazten du pisua (%34,3ra iritsita) eta DBHn ingelesak du goranzko joera argia, lehen lekua eskuratu duen azken urtean (%35,6).

Y. GRAFIKOA: EUSKARA ETA INGELESA ZEIN GUSTUKOENA . LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Euskara-gaztelania eta euskara-ingelesa hizkuntzekiko ikasleek erlatiboki dituzten begikotasunak kontuan harturik, beraz, esan genezake 2011-2015 datuen bilakaerek euskarekiko atxikimenduen edo haren prestigioaren jaitsiera moduko bat erakusten dutela beste bi hizkuntzekiko, nabarmenagoa dena DBH2n LMH4n baino.



**2.2.2. HAUTEMANDAKO EUSKARAREN, GAZTELANIAREN ETA INGELESAREN ZAILTASUNA**

Euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren erraztasun-zailtasunari buruz galdetu diegu ikasleei eta emaitzak hurrengo taulan aurkeztu ditugu<sup>14</sup>. LMH4ko ikasleen erdia pasatxorentzat (%55,4) euskara hizkuntza “erraza” edo “oso erraza” da. Gaztelania aldiz, are ikasle gehiagori erraza iruditzen zaie: hamar ikasletik ia zortzi dira hala uste dutenak (%77,2). Ingelesa da, hiru hizkuntzetatik, zaila ikasle gehienari iruditzen zaiena (“erraza”+ “oso erraza” %34,4). DBH2ko ikasleen artean kopuru horiek nabarmen apalagoak dira: aipatutako bi aukeren proportzioa (“erraza”+ “oso erraza”) %28,8koa da euskarari buruz galdetuta, %39,8koa gaztelaniaren kasuan eta %38,9 ingelesarenean.

25. TAULA: EUSKARAREN, GAZTELANIAREN ETA INGELESAREN ZAILTASUNARI BURUZKO IRITZIAK. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

Zer iruditzen zaizu euskara?						
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Oso erraza	35,7	28,0	30,0	18,2	8,1	7,4
Erraza	24,5	26,7	25,4	26,0	22,9	21,4
Normala	30,6	34,7	35,0	36,3	46,0	46,9
Zaila	6,7	7,8	7,1	14,2	16,8	18,1
Oso zaila	2,5	2,8	2,5	5,3	6,2	6,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.392	19.109	6.475	16.858	17.119	5.985
Zer iruditzen zaizu gaztelania?						
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Oso erraza	60,8	52,9	49,8	34,9	13,1	11,2
Erraza	23,4	25,1	27,4	32,8	29,5	28,6
Normala	12,7	17,7	18,2	26,3	43,1	45,9
Zaila	1,9	2,6	2,9	4,6	11,6	12,2
Oso zaila	1,2	1,8	1,6	1,3	2,7	2,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.385	19.109	6.475	16.858	17.119	5.985
Zer iruditzen zaizu ingelesa?						
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Oso erraza	8,5	-	15,7	7,6	-	13,6
Erraza	17,0	-	18,7	20,8	-	25,4
Normala	37,1	-	34,6	37,7	-	34,4
Zaila	26,2	-	21,5	23,3	-	19,1
Oso zaila	11,2	-	9,5	10,6	-	7,6
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.379	-	6.475	16.857	-	5.985

<sup>14</sup> Item edo galdera honen ñabarduren inguruan, ikus 4. oin oharra.

Euskara eta gaztelania alderatzean, deigarria da gaztelania errazagoa dela esaten dutenen proportzioak jaitsez joan direla epealdi guztian zehar bi ikasmailetan, 2011-2015 epean (%45,6 LMH4n eta %38,3 DBH2n). Horren ordez, bien arteko erraztasun/zailtasun bera dagoela esaten dutenen proportzioa igo da (%36,8 LMH4n eta %39,6 DBH2n). Datu deigarri bat da, DBH2ko ikasleen artean euskara gaztelania baino errazagoa dela dioten ikasleen proportzioa altuagoa dela LMH4koen artean baino (hurrenez hurren, ikasleen %22,1 eta %17,5).


26. TAULA: HIZKUNTZEN ZAILTASUN ERLATIBOA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Zaila-Erraza Euskara-Gaztelania					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara errazagoa	18,8	17,1	17,5	19,1	22,7	22,1
Biak berdin	31,1	34,1	36,8	29,3	38,9	39,6
Gaztelania errazagoa	50,1	48,8	45,6	51,6	38,5	38,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.380	19.109	6.475	16.857	17.119	5.985

	Zaila-Erraza Euskara-Ingelesa					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskara errazagoa	65,4	-	54,7	50,2	-	31,2
Biak berdin	20,9	-	25,8	25,5	-	31,0
Ingelesa errazagoa	13,6	-	19,5	24,3	-	37,9
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	-	100,0
Oinarria (n)	18.372	-	6.475	16.856	-	5.985

Z. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ZAILTASUN ERLATIBOA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Euskara eta ingelesaren kasuan, begikotasun erlatiboarekin bezala, euskara errazagoa dela uste dutenen proportzioak jaitziera nabarmena izan du 2011tik, eta aldi berean ingelesaren ingurukoa igo. LMH4n, euskara errazagoa dela uste dutenen proportzioa handiena izaten jarraitzen badu ere, 10,7 puntuko jaitzieren ondoren %54,7koa da proportzio hori, eta, aldiz, ingelesa dela uste dutenena %19,5koa. DBH2n 19 puntuko jaitzieren ondoren %31,2koa da proportzioa eta orain ingelesa errazagoa dela uste dutenena (%37,9) baino txikiagoa.

2.2.3. EGOEREN ETA JARDUEREN INGURUKO IRUDIKAPENAK (DBH2 SOILIK)

Gai honi buruzko galderak DBH2ko ikasleei soilik egin zaizkie. Horregatik, kasu honetan ez dago ikasmilak alderatzeko aukerarik. 2013an gainera galdera hauek ez ziren egin, ondorioz 2011 eta 2015eko datuak ditugu.

Ikasleek egoera eta jarduera zehatzak zein hizkuntzarekin lotzen dituzten aztertzeke, horiek adierazten dituzten irudiak erabili dira. Ikasleei galdetzean, ez da hitzik erabiltzen egoera eta jarduera horiek izendatzeko<sup>15</sup>; hitzek eurek hizkuntza bat ala bestearen kutsua eman ez diezaioten. Beraz, emaitzei buruz hitz egiteko, komeni da erabilitako irudiak ikustea, hauek baitira emaitzen oinarri, deskribapen idatzian jarduera eta egoerak hitzez izendatu arren.



DBH2ko ikasleen proportzio handi batek (%48,2) uste du gaztelania doakiola hobeto familiaren irudiari eta lau urteetan 1,4 puntuko igoera izan du. Euskara doakio hobeto ikasleen %22,9aren iritziz, eta epe berdinean 3 puntuko igoera izan du. Ondorioz, beste bi aukerak izan dira jaitsi egin direnak (Ingelesa hobeto eta Hiru hizkuntzak berdinean). Ingelesa hobeto 4 puntuko jaitziera izan du, %9,1ean geldituz eta hiru hizkuntzak berdinean 3 hamarrekoen jaitzierarekin %19,9an geratu da.

Lagun taldea adieraz dezakeen irudiari gaztelania hobeto doakiola iruditzen zaio ikasleen %45,4ri 4,2 puntuko igoera izan duelarik. Euskara hobeto doakiola uste dutenen proportzioa berriz jaitsi egin da, 3,7 puntu zehazki, %29,6an geratuz. Ingelesak ere jaitziera izan du, baina apala, 0,9 puntukoa, %8,3an geratuz eta hiru hizkuntzak berdinean doakioala uste dutenen bilakaera ia mantentzekoa izan da, 2 hamarrekoen igoera edukiz (%16,6).

Hezkuntzaren irudiaren kasuan aldiz (3.a), euskara hobeto doakiola erantzun dutenak izan dira gehiengoak (%47,8), gaztelania %18,8ak aipatzen duen bitartean. Biak jaitziera txikia izan dute epe honetan, gaztelaniak pixka bat gehiago. Ingelesa %9,0k aipatzen du eta %24,5ek hiru hizkuntzak berdinean. Azken hau izan da igoera nabarmenena izan duena, 2 puntukoa hain zuzen.

Gizarteko beste bi jardueren kasuan ordea, hitzaldi publikoak (4. irudia) eta IKTak (5. irudia) adierazten dituzten irudietan, ikasleen gehiengoak berriz erantzun du gaztelania dela hobeto doakien hizkuntza (%55,6 eta %50,0), baina bietan jaitziera izan

du 2011z geroztik. Ikasleei aurkeztu zaizkien beste testuinguruekin alderatuta, euskararen aipamena oso nabarmen gutxitzen da eta gainera jaitziera izan du ere lau urte hauetan. Puntu batekoa hitzaldien testuinguruan (6,9an geratuz) eta 1,8koa IKT eremuan, %7,0an geratuz. Ingelesaren aipamenak igo dira 5,5 puntu IKTn kasuan (%17,6) eta hiru hizkuntzak berdinean ikusten dutenen aukera ere beste 2,3 puntu (%25,5).

Azkenik lantegia (6. irudia) da egonkorren mantendu den eremua epe honetan. Horrela, gaztelaniak eskuratzen jarraitzen du nagusitasun erabatekoa, %66,6arekin. Hiru hizkuntzak berdinean erantzuten dutenen proportzioa bigarrena da, %20,1az. Euskara ingelesaren aurretik badago ere, tartea txikia da (%7,2 eta %6,1 hurrenez hurren).

<sup>15</sup> Galdetegiaren, ikasleei irudiak jarri zaizkie, ondorengo galdera honekin: Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei?

27. TAULA: IKASLEEN IRUDIKAPENAK. DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)


Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauei? Familia		
	DBH2	
	2011	2015
Euskara hobeto	19,9	22,9
Gaztelania hobeto	46,8	48,2
Ingelesa hobeto	13,1	9,1
Hiru hizkuntzak berdin	20,2	19,9
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>16.816</i>	<i>5.983</i>
Lagunak		
Euskara hobeto	33,3	29,6
Gaztelania hobeto	41,2	45,4
Ingelesa hobeto	9,2	8,3
Hiru hizkuntzak berdin	16,4	16,6
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>16.817</i>	<i>5.983</i>
Hezkuntza		
Euskara hobeto	48,6	47,8
Gaztelania hobeto	20,5	18,8
Ingelesa hobeto	8,4	9,0
Hiru hizkuntzak berdin	22,5	24,5
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>16.787</i>	<i>5.983</i>
Hitzaldi publikoak		
Euskara hobeto	6,9	5,9
Gaztelania hobeto	58,8	55,6
Ingelesa hobeto	15,4	16,9
Hiru hizkuntzak berdin	18,8	21,6
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>16.790</i>	<i>5.983</i>
Lan mundua		
Euskara hobeto	6,6	7,2
Gaztelania hobeto	65,6	66,6
Ingelesa hobeto	6,5	6,1
Hiru hizkuntzak berdin	21,3	20,1
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>16.790</i>	<i>5.983</i>
IKT		
Euskara hobeto	8,8	7,0
Gaztelania hobeto	55,8	50,0
Ingelesa hobeto	12,1	17,6
Hiru hizkuntzak berdin	23,2	25,5
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>16.788</i>	<i>5.983</i>

Guztia kontuan hartuta, DBHko ikasleen aburuz, euskara irakaskuntzako hizkuntza da lehen tokian eta bereziki, testuinguru horretan baita beste hizkuntzen parean jarrita lehen postua lortzen duen bakarra. Lagun artekoa bigarren postuan eta familiar-tekoa hirugarrenez. Jendaurreko hitzaldian, lantokian eta informazio-komunikazio teknologiei lotuta, euskara “lekuz kanpo” legoke.

Gaztelaniaren kasuan testuinguru guztietan eskuratzen du lehen tokia, irakaskuntzan ezik. Ikasleen begietara, bereziki lan mundua da gaztelaniaren esparrua (%65etik gora), jendaurreko agerpena bigarrenez (%55) eta IKT testuinguru hirugarrenez (%50). Familian eta lagunartean ere hizkuntza nagusia litzateke, %45aren bueltan eta azkenik irakaskuntzan eskuratzen du proportziorik txikiena (%18,8).

Azkenik, ingelesa IKT eremuan kokatzen dute lehenik (%17,6) eta oso gertu, hitzaldi publikoak bigarren (%16,9). Gainerako esparru guztietan %6-9 artean dago.

AA. GRAFIKOA: IKASLEEN IRUDIKAPENAK (II). DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### 3. IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-GIROAN

#### 3.1. IKASKIDEEKIN GELAN


Euren ikaskideekin gela barruan ari direnean ere, euskara da nagusi LMH4ko ikasleen artean eta joera nagusitasun hori handitzen joatea da: %45,7k diote beti euskaraz aritzen direla (9,3 puntuko igoera lau urteetan) eta %20,3k euskara gehiago erabiltzen dutela gaztelania baino (3,5eko jaitsiera denbora tarte berdinean). Beste aldean, beti gaztelaniaz egiten dutenak, lau urteetan gorabehera txikiekin, baina mantendu egin dela esan daiteke (%13,7 egun), eta jaitsi dira 1,8 puntu gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten dutenak (%10,2).

28. TAULA: IKASLEEK IKASKIDEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolako ikaskideekin gela barruan? <sup>16</sup>					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	36,4	40,1	45,7	14,4	13,7	15,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	23,8	23,1	20,3	13,7	14,7	15,0
Bietan berdin	14,0	11,9	9,3	11,5	11,7	10,8
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	12,0	11,4	10,2	22,7	27,8	26,2
Beti gaztelaniaz	13,3	12,7	13,7	37,4	31,8	32,7
Beste hizkuntzan batean	0,5	0,7	0,8	0,4	0,3	0,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.334	19.075	19.773	16.823	17.102	18.045
Erabilera-tasa esleitua (%)	64,2	66,2	68,2	36,1	37,5	38,3

Bestelako egoera antzematen da DBH2an. 14 urte inguruko nerabeek gela barruan ikaskideekin izaten dituzten harremanetan gaztelania da nagusi eta joera euskararen presentzia handitzea baldin bada ere, joera hori apalagoa da LMHn baino. Beti gaztelaniaz egiten dutenen proportzioak 4,7 puntuko jaitsiera izan du azken lau urteetan %32,7an kokatuz eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten dutenena 3,5 igo da %26,2ra iritsiz. Beti euskaraz egiten dutenak %15,2 dira eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago %15,0, 0,8 eta 1,3 puntuko igoera hurrenez hurren.


BB. GRAFIKOA: IKASLEEK IKASKIDEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



<sup>16</sup> Erabilera hau lan honetan horrela izendatu da: *ikaskideekin gela barruan*

Datu horiek guztiak laburtzen dituen erabilera-tasa esleituak erakusten du LMHn 4,0 puntuko hazkundera egon dela 2011tik 2015era, eta azken urte horretan ikasleen arteko gela barruko harremanetan %68,2a dela euskaraz. Horrek esan nahi du gela barruan, batez beste, ikaskideen arteko hiru elkarrizketatik bi euskaraz izaten direla. Ikasmilaz aldatuz, DBH2ko ikasleen arteko gela barruko harremanetan %38,3koa da euskararen tasa esleitu, 2015ean, eta hemen ere hazkundera egon dela 2011tik (2,2 puntukoa).

CC. GRAFIKOA: IKASLEEK IKASKIDEekin GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA, EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)




### 3.2. IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN

Gela barrutik jolaslekura ateratzen direnean, EAEko haur eta nerabeak orokorrean hartuta, gaztelaniaren erabilera gora egiten du euren arteko harremanetan eta behera euskararenak. LMH4n eta DBH2n bilakaera ezberdina izan da ordea. LMH4n beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen direnak gutxitzen joan dira (%59,4tik %54,9ra), baita, apalago bada ere, bietan berdin egiten dutenak ere (%11,3tik %10,7ra), beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen alde (%28,9tik %34,1era). DBH2n berriz, lau urteko perspektiban, beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak mantendu dira (%18,1etik %18,2ra), bietan berdin egiten dutenak gutxitu (%6,4tik %5,2ra) eta beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenak zertxobait igo (%75,2tik %76,4ra).

29. TAULA: IKASLEEK IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan? <sup>17</sup>					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	16,6	17,6	20,8	11,1	10,3	11,0
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	12,2	13,8	13,3	7,0	6,5	7,2
Bietan berdin	11,3	13,1	10,7	6,4	6,6	5,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	22,0	22,6	19,2	16,5	21,2	18,4
Beti gaztelaniaz	37,4	32,2	35,7	58,6	54,9	58,0
Beste hizkuntzan batean	0,5	0,7	0,3	0,3	0,5	0,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.349	19.075	19.773	16.818	17.102	18.045
Erabilera-tasa esleitua (%)	36,9	40,2	40,9	23,7	23,8	23,6

DD. GRAFIKOA: IKASLEEK IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)




Tasa esleituei erreparatzen badiegu, aipatu joerak argiago ikusten dira. Horrela, LMH4n lau urteetan 4 puntuko igoera egon da, nahiz eta 2013tik joeraren intentsitatea apaldu den. Lehen bi urteetan 3,3

<sup>17</sup> Erabilera hau lan honetan horrela izendatu da: *ikaskideekin jolaslekuan* erabilera



puntuko igoera izan zen, 2013-2015 artean 0,7koa. DBH2n berriz, lau urteetako neurketetan tasa hau ia ez da aldatu (2011 %23,7koa izan zen, 2013an %23,8 eta 2015ean %23,6).

EE. GRAFIKOA: IKASLEEK IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### 3.3. IRAKASLEEKIN GELAN


Gela barruan irakasleekin ari direnean, euskaraz hitz egiten dute nagusiki (beti euskaraz edo euskaraz gehiago gaztelaniaz baino) EAEko ikasleek eta igoera egon da bi ikasmailetan lau urte hauetan. LMH4ko ikasleen hiru laurdenak baino gehiagok beti edo gehienetan euskaraz egiten diete irakasleei gela barruan (%78,3), 2011tik 4,8 puntuko igoerarekin. DBH2ko ikasleen artean %68,1 dira bi erantzun hauek eman dituztenak, lau urteetan 7,1 puntuko igoera egon delarik.

Beste bi aukeretan (beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, batetik, eta bietan berdin, bestetik) jaitsierak egon dira epealdi guztia kontuan hartuta, nabarmenagoa DBH2n. Hortaz, 2015ean irakasleekiko gela barruko harremanean bi hizkuntzak berdintsu erabiltzen dituztela diote LMH4ko ikasleetatik %9,6k, gaztelania euskara baino gehiago edo beti gaztelaniaz aritzen direla %11,0k eta beste hizkuntzetan aritzen direla %1,1ek. DBH2n berriz, proportzio horiek %11,0, %20,2 eta %0,7koak dira hurrenez hurren. Hau da, gaztelaniaren aldeko joera handiagoa da DBH2n, euskararen kaltetan, eta 10 bat puntuko aldea dago bi ikasmailen artean.

30. TAULA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan... A. ...hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelan <sup>18</sup>					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	53,0	59,6	59,0	36,5	42,4	42,0
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	20,5	18,3	19,3	24,5	23,9	26,2
Bietan berdin	13,1	10,4	9,6	12,6	11,3	11,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,1	6,0	6,3	13,2	11,1	11,7
Beti gaztelaniaz	5,8	5,1	4,6	12,7	10,8	8,5
Beste hizkuntzan batean	0,5	0,7	1,1	0,5	0,5	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.347	19.075	19.764	16.822	17.102	18.043
Erabilera-tasa esleitua (%)	76,7	80,0	79,9	64,5	68,7	70,0

FF. GRAFIKOA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)




<sup>18</sup> Erabilera hau lan honetan horrela izendatu da: *irakasleekin gelan* erabilera

Kopuru horiek guztiak aintzat hartuta, euskararen erabilera-tasa esleitua kalkulatu dugu (ikus metodologia-oharrak), eta %79,9koa da LMH4ko ikasleen kasuan, 2011tik igoera nabarmena izanik (3,2 puntukoa).

Ikusi dugun bezala, DBH2ko ikasleek gela barruan irakasleekin dituzten harremanetan ere euskara da nagusi, nahiz eta gaztelaniak LMH4ko ikasleen artean baino pisu handiagoa izan. Horrela erabilera-tasa esleituan ikus daitekeenez, irakasleekin gela barruan daudenean %70,0koa da euskararen batez besteko erabilera DBH2ko ikasleen artean, 2015ean. Hauen igoera LMH4koena baino nabarmenagoa da epealdi guztian (5,5 puntuko igoera guztira DBHn) eta pixka bat apaldu den arren, azken bi urteetan ere igo egin da (1,3 puntu).

GG. GRAFIKOA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA, EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### 3.4. IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO


Euren irakasleekin gelatik kanpo ari direnean ere euskaraz hitz egiten dute nagusiki EAEko haur eta nerabe ikasleek, nahiz eta euskararen erabilera apur bat jaitsi gela barrukoarekin alderatuta. Horretaz gain, bilakaerak aztertzean joera ezberdinak antzematen dira LMH4n eta DBH2n. LMH4n beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten dutenen proportzioa igo egin da, bereziki azken neurketan. DBH2n berriz, azken bi neurketetan, gaztelaniazko erabilerak beheranzko joera marratu du, guztira 2011tik 2015era 5,5 puntuko jaitsiera egonik bi kategoriatan horietako ikasleen proportzioan.

Euskararen kasuan, LMH4n beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago aritzen direnen proportzioak gorabehera txikiak izan ditu lau urteetan, epe oso horretan 0,7 puntuko jaitsierarekin. DBH2n berriz, igoera nabarmena izan du, 7,1 puntukoa hain zuzen. Ondorioz, 2011n LMH4 eta DBH2 artean zegoen aldea (11,8 puntu erabilera-tasa esleitan) asko murriztu da (4,9 puntura).

31. TAULA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan... B. ...hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelatik kanpo. <sup>19</sup>					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Beti euskaraz	50,0	50,4	49,6	34,2	37,8	38,6
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	14,1	15,1	13,8	18,0	19,2	20,7
Bietan berdin	11,1	10,0	9,0	11,1	10,3	9,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	8,6	9,1	9,6	12,2	11,9	12,2
Beti gaztelaniaz	15,6	14,6	16,8	24,0	20,2	18,5
Beste hizkuntzan batean	0,6	0,8	1,2	0,4	0,6	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.343	19.075	19.764	16.821	17.102	18.043
Erabilera-tasa esleitua (%)	68,2	68,9	66,8	56,4	60,3	61,9


HH. GRAFIKOA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



<sup>19</sup> Erabilera hau lan honetan horrela izendatu da: *irakasleekin gelatik kanpo* erabilera

Laburtze aldera, esan dezakegu, LMH4ko ikasleen erabilera-tasa esleituari erreparatuz, gelaz kanpo irakasleekiko euskararen batez besteko erabilera 1,4 puntu jaitsi dela lau urteetan, 2015ean %66,8 izateraino. DBH2ko ikasleen artean, irakasleekiko elkarrizketetan euskarak duen pisua ere aldatu egin da: %56,4koa izatetik 2011n, %61,9koa izatera igo da 2015ean.

II. GRAFIKOA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA, TASA ESLEITUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



### 3.5. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERARI BURUZKO SINTESI- IKUSPEGIA: ERABILERA OROKORRA

Aurkeztutako lau eremuetan hizkuntzen erabilera nolakoa den kontuan hartuta (*ikaskideekin gelan, ikaskideekin jolaslekuan, irakasleekin gelan eta irakasleekin gelatik kanpo*), eta bakoitzari dagokion pisua emanda (ikus erabilitako haztatze-irizpideak metodologia-oharretan), *eskolako erabilera orokorra* zenbatekoa den kalkulatu dugu ikasle bakoitzarentzat. Ondorengo grafiko eta tauletan aurkezten ditugu erabilera horren emaitzak.


Joera orokorra, bi ikasmailetan, euskararen erabilera handitzea da. Erabilera-tasak multzokatzean, LMH4n erabilera tasa altuenak dituztenen proportzioa (Euskara %70,1-%100,0) handitzen joan da 2011z geroztik, beste bi multzoak txikitzen joan diren heinean, bereziki euskara %0,0-%30,0 arteko multzoa.

Aldiz, DBH2n, bilakaera beste bat izan da. Euskararen erabilerak handitzera jo badu ere, “Euskara %70,1-%100,0” bi multzoak elkaturik ia aldaketarik ez da izan lau urteetan zehar, baina beste multzoetan bai. 2011tik 2013ra tarteko multzoak (“Euskara %30,1-%70,0”) aurre hartu zion bi multzo erdaldunen batuketari (%0,0-%30,0) eta 2013tik hona haien arteko tarte 2 puntutik 3,2ra zabaldu da.

32. TAULA: IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA ESKOLA GIROAN . LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

(Erabilera-tasa esleitua bi kopuru horien artean dagoenean)	Eskolako erabilera (multzotan)					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Guztia euskaraz, %100,0	11,3	12,4	14,2	8,3	8,3	8,5
Euskara %70,1-%99,0	22,4	24,3	23,5	11,1	10,7	10,9
Euskara %30,1-%70,0	44,2	44,4	43,3	36,0	41,5	41,9
Euskara %0,1-%30,0	17,4	14,9	15,2	32,7	29,5	30,7
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	4,7	3,9	3,8	11,9	10,0	8,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.179	19.075	19.764	16.745	17.102	18.043
Erabilera-tasa esleitua (%)	56,4	59,0	59,4	39,9	41,7	42,3

JJ. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA ESKOLA GIROAN. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



Dena dela, aipatu joera orokor horri (bi ikasmailetan, euskararen erabilera handitzea) hainbat iruzkin garrantzitsu egin behar zaizkio:


- Aurreko orrialdeetan argi ikusi dugun bezala, neurtutako eremu guztietan, LMH4koek gehiago erabiltzen dute euskara DBH2koek baino, haien arteko aldeak handiagoak direlarik ikasleen artean dituzten elkarriketetan, irakasleekin dituztenetan baino. Laburbilduz, esan dezakegu eskola-giroan egiten duten euskararen erabilera, batez beste, %59,4koa dela LMH4ko haurren artean eta %42,3koa, berriz, DBH2ko nerabeen artean.
- Alde horretaz gain, bi ikasmailetan euskararen erabilera igotzeko joera agertzen bada ere, LMH4n joera indartsuagoa izan da 2011-2015 epealdian, DBH2n baino. Epealdi hori xehetuta ordea, badirudi DBH2n joera konstanteagoa dela eta LMH4n 2013an igoera indartsua egon ondoren, 2015ean igoera egon den arren, hori apaldu egin dela.
- LMH4koen apaltze hori, bereziki, ikasleek irakasleekin dituzten elkarriketetatik dator. Izan ere, neurtutako lau egoeren artean, ikasleen artean neurtutako bietan mantendu da goranzko joera. LMH4n, *ikaskideekin gelan* joera hori konstanteagoa izan da (2 puntuko igoera 2011tik 2013ra eta berdin 2013tik 2015era) *ikaskideekin jolaslekuan* izandakoa baino (3,3 puntuko igoera 2011tik 2013ra eta 0,7 2013tik 2015era). Irakasleekin gelatik kanpo dituzten elkarriketetan jaitziera egon da euskararen erabilera-tasan. Bilakaera ezberdina da aintzat hartzen dugun epearen arabera, baina epe osoari dagokionean (2011-2015) 1,4 puntukoa izan da jaitziera.
- DBH2ko ikasleen kasuan, *ikaskideekin jolaslekuan* euskarazko erabilera-tasa bere horretan mantendu dela esan daiteke, neurtu diren beste hiru eremuetan igo egin delarik.

Orain arte aipaturikoez gain, nabarmentzekoa da 2015eko neurketarekin, lehen aldiz LMH4ko eta DBH2ko ikasleen eskolako erabileretan azterketa longitudinala egiteko aukera zabaldu dela, 2011n LMH4n ikertu ziren ikasleak eta 2015ean DBH2n ikerturikoak ikasle berdinak baitira, neurri handiandian. Azterketa longitudinalak, alde batetik, aukera ematen du 2011. urtean lehen aldiz deskribatutako LMH4ko eta DBH2ko erabilera-joera ezberdinen baliagarritasuna proban jartzeko. Eta oro har esan liteke, lehen azterketa haren ideia nagusiak berrestera datozela aurtengo azterketarenak. Ikasleen eskolako erabileren bilakaeraren aldetik, dena den, erabileren azterketa modu *longitudinalaren* argitan eginda, bada azpimarratu beharreko ideia bat, eta da LMH4ko eta DBH2ko ikasleen erabileren artean neurtu izan den aldearen edo “koska”ren txikitzea.

Ikasleen *eskolako erabilera orokorra*-ren datu orokorra hartzen badugu (tasa esleitua) eta bi ikasmailetako urte bereko datuak alderatu, ikusten dugu alde hori antzekoa izan dela neurtutako hiru urteetan: 2011n 16,5 puntuko aldea, 2013an 17,3koa eta 2015ean 17,1ekoa. Aldiz, alderaketa hori ikuspegi *longitudinal* batetik eginda, alderatzen badugu 2011ko LMH4ko ikasleen erabilera-tasa orokorra eta 2015eko DBH2koa, bi ikasmailen arteko alde hori apalagoa da: 14,1 puntukoa, hain zuzen.

Datu hau datozen urteetako azterketek berretsi beharko badute ere, badirudi, jaiotza-urte bereko ikasleen LMH4ko eta DBH2ko eskolako erabilerak alderatuta, haien arteko aldea Arrue ikerketaren aurreko lanetan (2011 eta 2013ko datuekin) deskribatu izan duguna baino 2-3 puntu apalagoa dela. Zentzu horretan, 2015eko lehen alderaketa *longitudinal* honek, 2011ko datuen gainean eginiko irakurketaren hutsune hori osatzeko balio izan dute. Nolanahi ere, 2015eko datu hauek, oraingoz bi ikasmailetako erabilerak modu *longitudinalean* alderatzeko aukera ematen diguten bakarrak dira. Datozen urteetako neurketetan beraz, bi alderaketen bilakaera izango da arretaz jarraitzeko modukoa: bai urte berean jaiotako ikasleek bi ikasmailetan duten erabileren artekoa (*longitudinala*), eta baita ere urte berean bi ikasmailetako erabileren artekoa (*sinkronikoa*, nolabait).

**KK. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA. EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITUA. LMH4.**  
**MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASAK, %)**



Gogorarazi behar da atal honetan aurkeztutako datu guztiak EAeko LMH4ko eta DBH2ko ikasle guztiei dagozkiela eta alde handi eta esanguratsuak ageri direla ezaugarri jakin batzuen arabera azterketa eginda. Izan ere, emaitzak aldatu egiten dira irakasteredua, ingurune soziolinguistikoa, familiako hizkuntza-ohiturak eta abar kontuan hartuz gero. Horri buruzko datuak aurrerago aurkeztuko ditugu, 4. atalean.



## 4. ESKOLAKO ERABILERA ALDERATUZ

### 4.1. ESKOLAKO EUSKARAREN ERABILERA BESTE TESTUINGURUEKIN ALDERATUTA, IKUSPEGI OROKORRA

*Eskolako euskararen erabilera orokorraren tasa esleitua eta bere bilakaera, ikasleen beste erabilera tasa trinkoekin alderatu ditugu. Argi ikusten da neurtutako hiru urteetan *eskolako erabilera orokorra* dela guztietan altuena eta bi ikasmailetan goranzko joera duena.*

Beste maila apalago batean, bigarren tasa altuena, *eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* da. 2011 eta 2015 datuak alderatua, ekintza horietan LMH4n jaitsiera egon da (-1,4) eta DBH2n berriz, igoera txiki bat (+1,2). Hirugarren tokian *etxeko erabileraren* tasa dugu. 4 elkarrizketetatik bat izaten da euskaraz testuinguru honetan, baina 2011tik bai LMH4n bai DBH2n igoera txikiak izan dira neurketa bakoitzean. Igoera txiki horiek ahalbidetu dute etxeko erabilerak lagunekin txateatzean euskaraz izaten diren elkarrizketen tasa gaintitzea.


Azken lekuan dago euskaraz egiten den *komunikabide eta kultur kontsumoa*. Bilakaera ezberdinak izan ditu tasa honek LMH4n eta DBH2n. LMH4n igoera izan duen bitartean (+1,1) DBH2n jaitsiera izan da (-1,7).

33. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA GAINERAKO EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITU TRINKOEKIN ALDERATUTA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Eskolako Erabilera Orokorra [tr]	56,4	59,0	59,4	39,9	41,7	42,3
Eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	41,9	38,6	40,5	29,8	25,8	31,0
Lagunekin txateatu (% euskaraz)*	25,8		26,8	22,3		21,5
Etxeko erabilera [tr]	25,3	26,5	28,7	21,6	21,8	22,1
Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	17,0		18,1	11,9		10,2

\*Ez da tasa esleitua, txateatzean euskaraz egiten dutenen % baizik.

LL. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA GAINERAKO TASA ESLEITU TRINKOEKIN ALDERATUTA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)



\*Ez da tasa esleitua, txateatzean euskaraz egiten dutenen % baizik.

## 4.2. ESKOLAKO EUSKARAREN ERABILERA BESTE TESTUINGURUEKIN ALDERATUTA, IKUSPEGI XEHETUA

Eskolako euskararen erabilera-tasa esleitu ezberdinak -eskolaz kanpoko testuingurukoekin batera-xehetuta agertzen dira ondoko taulan zein grafikoa.

Guztietan altuena ikasleek irakasleekin gelan dituzten elkarrizketen tasa esleitu da. LMH4n 2011tik 2013ra igoera nabarmena egon ondoren (+3,3), 2015ean egonkortu da (-0,1). DBH2n berriz, gorakadak izan ditu bi tarteetan (+4,3 eta 1,3 hurrenez hurren).

Bilakaera hori antzekoa da irakasleekin gelatik kanpo dituzten elkarrizketekin, DBH2ko kasuan. LMH4ko kasuan aldiz, lehen tarteetan igoera txikia izan ondoren (+0,7), 2013tik 2015era egonkortu ez, jaitsi egin da tasa (-2,1).

Azken jaitsiera horrek ikasleen arteko elkarrizketen gela barruko tasa irakasleekin gelaz kanpo dutena baino altuagoa izatea ekarri du (%68,2 vs. %66,8, hurrenez hurren). DBH2n aldiz, bi tasa horien arteko aldea oso handia da (%61,9 irakasleekin gelaz kanpo vs. %38,3 ikasleriarena gela barruan), nahiz eta DBH2ko ikasleen arteko gela barruko elkarrizketetan euskarak gora egiten duen. Azken joera hau LMH4n ere goranzkoa da.


Eskolaz kanpoko jarduera antolatuak ikasleen arteko jolaslekuko elkarrizketen parean daude LMH4n. DBH2n tarte txikia egon badago eta hori eskolaz kanpoko jardueren aldeko da (%31,0 vs. %23,3). Eskolaz kanpoko beste testuinguruetako tasen artean hau da bakarra eskolako erabileraren bat gaintzen duena.

34. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA GAINERAKO EUSKARA ERABILERA-TASA ESLEITU XEHETUEKIN ALDERATUTA (%). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (%)

	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Irakasleekin gelan	76,7	80,0	79,9	64,5	68,7	70,0
Irakasleekin gelatik kanpo	68,2	68,9	66,8	56,4	60,3	61,9
Ikaskideekin gelan	64,2	66,2	68,2	36,1	37,5	38,3
Eskolako erabilera orokorra [tr]	56,4	59,0	59,4	39,9	41,7	42,3
Eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	41,9	38,6	40,5	29,8	25,8	31,0
Ikaskideekin jolaslekuan	36,9	40,2	40,9	23,7	23,8	23,6
Lagunekin txateatu (% euskaraz)*	25,8		26,8	22,3		21,5
Etxeko erabilera [tr]	25,3	26,5	28,7	21,6	21,8	22,1
Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	17,0		18,1	11,9		10,2

\*Ez da tasa esleitu, txateatzean euskaraz egiten dutenen % baizik.

**MM. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA GAINERAKO TASA ESLEITU XEHETUEKIN ALDERATUTA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASAK, %)**



\*Ez da tasa esleitua, txateatzean euskaraz egiten dutenen % baizik.

\*\* Etxeko erabilera eta Lagunekin txateatzean lerroak gainjarri egiten dira, eta beren balioan argiago ikusten dira taulan.

### 4.3. IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-GIROAN, HAINBAT ALDAGAIREN ARABERA

Jarraian, ikasleen eskolako euskararen erabilerak hainbat aldagai deskribatzaileren arabera nola aldatzen diren aztertuko dugu, kasu honetan ere, 2011-2013-2015 bilakaerari dagozkion datuak eskainiz. Zehazki, ondorengo hamar aldagai aske hauekiko alderaketak jasotzen dira atal honetan:

- Ikastetxea kokatuta dagoen udalerriko eremu soziolinguistikoa.
- Ikaslearen lehen hizkuntza.
- Ikasleak ikasten duen irakasteredua.
- Ikastetxearen titularitatea.
- Ikastetxearen maila sozioekonomikoa (ISEK).
- Hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan.
- Etxeko hizkuntza-erabilera.
- Hizkuntzekiko begikotasun erlatiboa (euskara/gaztelania).
- Euskarazko hizkuntza-konpetentzia (Ebaluazio Diagnostikoa).
- Ikaslearen sexua

Kasu guztietan datuen antolaketa modu berean eskaintzen da: lehenik ikasleen *eskolako euskararen erabilera orokorra*-ren datuak eskaintzen dira, kasuan kasuko aldagaiarekin gurutzatuta, eta jarraian azterturiko ikasleen lau erabilerenak: *ikaskideekin jolaslekuan, ikaskideekin gelan, irakasleekin gelatik kanpo* eta, azkenik, *irakasleekin gelan*.

Txostena eta bereziki irakurlea ez zamatzeko, atal honetara grafikoak bakarrik ekarri ditugu, *erabilera-tasa esleitu*en balioak erabiliz (ikus tasa hauei buruzko azalpenak 0.4 atalean). Gurutzaketa guzti hauen xehetasunak kategoriaz kategoria ikusteko, jo 8. eranskinean eskaintzen diren tauletara.

Ikasleen *eskolako erabilera orokorra* –zein berau osatzen duten lau erabileretako edozein– aldagai aske batekin gurutzatzean, eta gainera hori hiru urte ezberdinetako datuekin egitean, informazio ugari sortzen da. Ugaritasun horri neurria hartu nahian, ondorengo atalean zehar, gurutzaketa bakoitzean daturik deigarrien edo azpimarragarrienak aipatzera mugatu gara, kontuan hartuz, beti ere, aurretik 3. atalean bost erabilera hauen 2011-2015 bilakaeraz dagoeneko eskainitako informazio guztia. Horrela, aipatu atalean ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* zein beste lau erabilerak EAE osoko ikasleentzat izan duten bilakaera azterturik, jarraian, bilakaera orokor hori aintzat hartutako aldagaiarekin gurutzatzeak eskaintzen digun informazio gehigarria (soilik) aipatzen ahalegindu gara.

4.3.1. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA ETA EREMU SOZIOLINGUISTIKOA


**Erabilera orokorra**

Ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* lotura nabarmena du ikastetxea kokatuta dagoen *eremu soziolinguistikoarekin*. Alderaketa honetan bost eremu bereizi dira udalerrian dauden euskaldunen ehunekoen arabera (0-20, 20-40, 40-60, 60-80 eta 80-100) eta alde azpimarragarriak daude eremu batetik bestera, aztertutako bi ikasmailetan.

Eremuaren eta *eskolako erabilera orokorraren* arteko lotura indartsuagoa da DBH2ko ikasleen artean LMH4koen artean baino: lehenengo kasuan, eremu soziolinguistikorik euskaldunenetatik erdaldunenetara, erabilera %90 inguru izatetik %20-%30 izatera aldatzen da; ikasle gazteagoen artean, aldiz, eremu soziolinguistiko euskalduneneko erabilera %90 izanda ere, eremurik erdaldunenetan ere erabilera hori ez da %40tik jaisten. Azpimarratzekoa da bestalde, euskaldunen proportzioa udalerrian %60tik gorakoa denean, erabilera orokor hau nabarmen altuagoa dela gainerako eremu soziolinguistikoetan baino: bi ikasmailetan, %80 ingurukoa edo hortik gorakoa.

Bi ikasmailetak erabilera orokorrak alderatzen ditugunean, bestalde, azpimarratzekoa da eremurik euskaldunenetan erabilera arteko aldeak txikiak direla, 2 eta 7 puntu artekoak. Zehazki, %80,1-%100 eremuan, aldeak 2-3 puntukoak dira, eta %60,1-%80 eremuan 5-7 puntukoak. Alde horiek antzekoak dira aztertutako hiru urteetan: 2011, 2013, 2015. Aldiz, euskaldunen proportzioa baxuagoa den beste hiru eremuetan (%0 eta %60 artean) aldeak askoz handiagoak dira: LMH4ko ikasleen *erabilera orokorra* DBH2koena baino 16-21 puntu altuagoa da kasu guztietan, eta proportzionalki, aldea gero eta handiagoa da zenbat eta eremu erdaldunagoa izan. Alde horiek eremurik erdaldunenean dira proportzionalki handienak. 2015ean, esate baterako, %0-%20 eremuan, DBH2koen erabilera orokorra %26,8 da, eta LMH4koenak ia bikoiztu egiten du erabilera hori (%47,9).

NN. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



2011 eta 2015 urteen arteko bilakaerari dagokionez, azkenik, bost eremuetako ikasleen erabilerek goranzko joera adierazten dute, bi ikasmailetan. *Erabilera orokorraren* igoerarik handienak, bi kasuetan, eremurik erdaldunenean eman dira (%0-%20).

**Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilera**


Eskola-giroan aztertutako lau erabilera artean, *eremu soziolinguistikoak ikaskideekin jolaslekuan* erabileraekin du loturarik indartsuena. Bi ikasmailetan, jolaslekuko erabilera-datuak oso nabarmen aldatzen dira eremurik euskaldunenetatik erdaldunenetara, joera are markatuagoa izanik DBH2ko ikasleen kasuan.

Ikasleek *ikaskideekin gelan* izaten duten hizkuntza-erabilerei erreparatuta berriz, bi ikasmailen arteko desberdintasuna argia da. DBH2ko ikasleen artean, eremu soziolinguistikoaren arabera erabilera-mailak nabarmen aldatzen dira (jolaslekuan gertatzen denaren ildotik). Aldiz, LMH4n gela barruan eremuen arteko erabileren aldeak askoz apalagoak dira eta hala, 2015ean, eremurik erdaldunean ere (%0-%20) euskarazko erabilera %60,9koa da (DBH2n %22,7koa den bitartean).


Ikasleek irakasleekin dituzten erabilerei erreparatuta, *eremu soziolinguistikoak* erabilerekin duen lotura nabarmenagoa da gelatik kanpo gelan barruan baino. Gela barruko irakasleekiko jardun horretan da, hain zuzen, ahulena eremuaren eta erabilerearen arteko lotura. Egoera komunikatibo horretan, eremurik erdaldunenean (%0-%20) LMH4ko ikasleen euskarazko erabilera %75,2koa da eta DBH2koena %61,4koa (2015).

Datu horiek ikasleen eskolako erabileren ezaugarri garrantzitsu baten adibide ezin hobea dira: egoeraren edo testuinguruaren arabera ikasleek euskara edo gaztelania erabiltzean egiten dituzten hautuarena eta aldaketarena. Har ditzagun, esate baterako, bi eremurik erdaldunenetako ikasleen erabilera datuak, DBH2n. %0-%20 eta %20,1-%40 eremuetan, *irakasleekin gelan*, erabilera %61,4 eta %63,9 dira hurrenez hurren, 2015ean. Aldiz, ikasle horien beraien erabilera *ikaskideekin jolaslekuan* %4,5 eta %8,6 dira urte berean: 50 puntutik gorako aldeak, beraz. Eremu soziolinguistiko bereko LMH4ko ikasleentzat ere, bi erabilera horien arteko aldeak 50 puntu ingurukoak dira.


OO. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




**PP. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**QQ. GRAFIKOA:ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**RR. GRAFIKOA:ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



#### 4.3.2. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA LEHEN HIZKUNTZA


##### *Erabilera orokorra*

Jarraian ikasleen eskolako erabilerak eskaintzen dira ikasleek etxean hiru urtera arte ikasitako hizkuntzen arabera antolatuta (*lehen hizkuntza*), kasu honetan 2011-2015 alderaketa bakarrik eginaz.<sup>20</sup>

Ikasleen *eskolako erabilera orokorrak*, oro har, lotura argia du ikasleen *lehen hizkuntzarekin*. LMH4n euskarazko erabilerak altuagoak dira *lehen hizkuntzaren* lau kategorietako ikasleentzat (“euskara”, “euskara + gaztelania”, “gaztelania” eta “beste bat”) DBH2ko ikasleentzat baino. Kasu honetan ere, DBH2ko ikasleen artean lehen hizkuntza era batekoa edo bestekoa izan, erabileren arteko aldeak handiagoak dira LMH4ko ikasleen artean baino.

Aipatzekoa da, 2011tik 2015era berdindu egin dela bi ikasmailetan lehen hizkuntza “gaztelania” eta “beste hizkuntza bat” duten ikasleen *eskolako erabilera orokorra*, bi kasuetan 2015ean aldea 1,1 puntukoa edo txikiagoa izanik (2011n bi ikasmailetan 3 puntukoa zen). Arrazoia da “beste hizkuntza bat” dutenen euskararen erabilera gehiago igo dela gaztelania dutenena baino, eta horrela bi multzo horien balioak hurbildu dira. Zehatzago, “gaztelania” eta “beste hizkuntza bat” dituztenen igoerak honakoak dira, hurrenez hurren: LMH4n 3 eta 5,9 puntu, eta DBH2n, 3,9 eta 6,1. Bestalde, lau urteko bilakaeran, azpimarratzekoa da lehen hizkuntza “euskara” eta “euskara + gaztelania” duten ikasleen *eskolako erabilera orokorra* maila berdinean mantendu dela bi ikasmailetan.

SS. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



##### *Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak*

*Lehen hizkuntzaren* araberrako datuak eskolako lau erabileratan bereizita, aztertzeko modukoa da “gaztelania” eta “beste hizkuntza bat” kategorietako ikasleen erabileren alderaketa, 2011n zein 2015ean. Irakasleekiko bi erabileretan (*irakasleekin gelatik kanpo* eta *irakasleekin gelan*), lehen hizkuntzatzat “gaztelania” izan duten ikasleen euskarazko erabilera altuagoa da “beste hizkuntza bat” izan dutenena baino. Bi ikasmailetan eta aztertutako bi urteetan. Baina alderantzizkoa gertatzen da *ikaskideekin jolaslekuan* erabileraren kasuan; azken honetan, gehiago egiten dute euskaraz lehen hizkuntza gisa “beste bat” izan dutenek.

Erabilera-mota horien arteko aldeak, ikasle horien irakastereduarekin eta bizi diren zonaldearen euskalduntasunari loturik egon litezke, konprobazio sakonagoek ondorengo datuotan erakusten


<sup>20</sup> 2013an ez zen ikasleen lehen hizkuntzari buruzko daturik jaso.




digutenaren arabera. Batez beste, hiru urtera arte “beste hizkuntza bat” jaso duten ikasleak proportzio handiagoan doaz A ereduraz “gaztelania” jaso dutenak baino (batez ere DBH2n); eta aldiz, azken horiek, batez beste, lehenak baino eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan bizi dira. Zehatzago, irakastereduari dagokionez, 2015ean, LMH4n, “beste hizkuntza bat” *lehen hizkuntza* gisa duten ikasleak %10,2 A ereduan daude, eta “gaztelania” dutenen %7,3. DBH2n, berriz, proportzio horiek %25,6 eta %11,9 dira hurrenez hurren (alde nabarmenagoak, beraz). Eremu soziolinguistikoari dagokionez berriz, LMH4n euskaldunak %60tik gora diren eremuetan daude H1 “beste hizkuntza bat” dutenen ikasleak %15,3, eta “gaztelania” dutenen artean, %4,5 soilik. DBH2n ere proportzio horiek antzerakoak dira: hurrenez hurren, %14,6 eta %4,8. Datuen irakurketa hau egokia bada, bi sozializazio-eremuren konbinaketak sozializazio soziolinguistikoan eragin litzakeen emaitzen adibide interesgarria litzateke nabarmendu dugun alderaketa hau.

Bestalde, eta aurretik *eskolako erabilera orokorraren* datuen harira 2011tik 2015erako bilakaeraz aipatu dena zehaztuz, ikusten dugu, eskolako lau erabileretan, lehen hizkuntza gisa “euskara” zein “euskara + gaztelania” izan duten ikasleak oso berdintsu mantendu direla lau urteotan, ikasmaita bakoitzean. Aldiz, euskarazko erabileraren igoerak beste bi kategorietako ikasleak artean gertatu dira, hau da, “gaztelania” eta “beste hizkuntza bat” jaso dituztenen artean. Horren harira, aipatzekoa da, azken bi kategoria horietako ikasleak artean gertatu dela lau urteotan irakasteredu euskaldunetarako joerarik nabarmenena, eta hori izan daiteke bilakaera nabarmen horien atzean dagoen euskararen lau erabilerak areagotzeko dagoen arrazoi nagusietako bat. Izan ere, lehen hizkuntza “beste bat” dutenen artean gertatu da bilakaerarik nabarmenena. 2011n, LMH4n ikasle horien %18,4 A ereduan zegoen, eta 2015ean %10,2 (8 puntu 4 urtetan). DBH2n, denbora berean, aldaketa hori %38,8tik %25,6koa izan da (are nabarmenagoa beraz, 13 puntu).


TT. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




UU. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin JOLASLEKUAN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



VV. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



WW. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



#### 4.3.3. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA IRAKASTEREDUA

##### *Erabilera orokorra*


Azpiatal honetan ikasleen eskolako erabilera aztertzen dira ikasleak A, B eta D irakastereduen arabera taldekatuta. Gaur egun ohikoa da zenbait azterketetan, irakastereduka datuak alderatu beharrean “geruza”ka bereiztea, hau da ikasleak irakasteredua+ ikastetxearen titularitatea irizpidearen arabera sailkatuz.<sup>21</sup> Hori kontuan izanik ere, lan honetan aztergai nagusia eskolako hizkuntza-erabilera izanik, egoki deritzogu irakastereduen arabeko alderaketa bere horretan eskaintzeari.

Ondorengo grafikoan ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuak alderatzen dira, eta horietan argi ikusten da irakastereduak lotura oso nabarmena duela eskolako erabilerekin, bi ikasmailetan. Aurrerago (5. atalean) korrelazioen eta erregresioen analisietan ikusten denez, LMH4n hau da aztertutakoaren artean loturarik indartsuena duen aldagaia eta DBH2n ere oso lotura sendoa du.

Irakasteredu bakoitzeko ikasleen datuak aztertuta, oso desberdinak izateaz gain, nabarmendu beharreko ideietako bat da 2011 eta 2015 artean eredu bakoitzeko erabilera aldaketarik eza. Gogoan izan, aztertutako ikasleen unibertso osoan, 2011tik 2015era *ikasleen erabilera orokor* hori 3,0 puntu igo dela LMH4n eta 2,4 DBH2n (ikus gorago 3.5 atala). Aldiz, irakastereduka berezita, ez da izan halako igoerarik eta datuak oso-oso egonkor mantendu dira: D ereduan LMH4n erabilera maila berdinean mantendu da (aldaketa, 0,0) eta DBH2n ere ez da apenas aldaketarik izan (0,4 puntu behera). B ereduan, 0,3 puntuko igoera LMH4n eta 0,6ko jaitsiera DBH2n. A ereduan igoerak izan dira, baina txikiak (1,1 puntu LMH4n eta 1,2 DBH2n).

Ikasleria orokorrean bi ikasmailetan erabilera orokorrak izandako bilakaera positiboak eredu ezkutuan geratzearen arrazoiak irakastereduetan urteotan emandako bilakaera da (ikus 1.3.1 atala). Erabilera altuenak dituen D ereduko ikasleen proportzioa urtetik urtera handitzen doalarik, horrek unibertso osoaren erabilera handitzea dakar, nahiz eta eredu bakoitzean biltzen diren ikasleen batez besteko erabilera ez areagotu.

XX. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IRAKASTEREDUAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



<sup>21</sup> Hala egiten da, besteak beste, ISEI-IVEIren Ebaluazio Diagnostikoari buruzko txostenetan edota Euskadiko Eskola Kontseiluko lan batzuetan.


### Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak

*Eskolako erabilera orokorrean* hiru eredu-tako ikasleen erabileren artean ematen diren aldeak mantendu egiten dira ere, oro har, aztertutako eskolako lau erabileretan. Ikaskideen arteko bi erabileretan (gelan eta jolaslekuan) aldeak zertxobait handiagoak badira ere, irakasleekiko erabileretan (gelan eta gelatik kanpo) ere oso ezberdinak dira A, B eta D eredu-tako ikasleen euskarazko erabilerak, eta alde horiek funtsean berdintsu mantentzen dira 2011tik 2015era aztertutako hiru urteetan.


Lau erabileretan eredu bakoitzeko ikasleek izandako erabilerari erreparatuz, D ereduan kasu gehienetan erabilera orokorrean deskribatutako joera egonkorra berresten da eta horrela, 2011tik 2015erako bilakaeran, igoerak edo jaitsierak ia beti 2 puntutik beherakoak dira, lau erabileretan eta bi ikasmailetan. Bi kasu dira joera horretatik ateratzen direnak: DBH2ko *ikasleekiko jolaslekuan* erabilera, 2,2 puntuko jaitsiera izan duena (%36,5etik %34,3ra), eta LMH4ko *irakasleekiko gelatik kanpo* erabilera, 6,2 puntuko jaitsiera nabarmen bat izandakoa (%82,8tik %76,6ra). Ikasle guztien unibertsoa kontuan hartzen badugu, gogoratu azken erabilera horretan 1,4 puntuko jaitsiera eman dela 2011tik 2015era (ikus gorago 3.4 atala). Er edukako azterketa honetan ikus dezakegu irakasleekiko harreman horretako jaitsiera orokorra D eredutik etorri dela gehienbat, beste bi eredu-tan bilakaera ezberdina izan baita (A ereduan 2,9 puntuko igoera eta B ereduan 1,0ko jaitsiera).

B eredu-tako ikasleen lau erabileren bilakaeran aipagarrienak bi dira: *irakasleekiko gelan* bi ikasmailetan izandako igoera (LMH4n 3,1 puntu eta DBH2n 2,0 puntu gora) eta *ikasleekiko jolaslekuan* DBH2n izandako jaitsiera (2,5 puntu, %7,1etik %4,6ra). A ereduan azkenik, azpimarratzekoak dira, alde oso handiz beste bi eredu-takoak baino baxuagoak izan arren, irakasleekiko bi erabileretan 2011tik 2015era izandako igoerak: *irakasleekiko gelan* erabileran, LMH4n 2,3 puntuko igoera eta DBH2n 3,4koa, eta *irakasleekiko gelatik kanpo*, berriz, 2,9 eta 1,9 puntutako igoerak, hurrenez hurren.


YY. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEEKIN GELAN IRAKASTEREDUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




**ZZ. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN IRAKASTEREDUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK, %) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015.**



**AAA. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN IRAKASTEREDUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**BBB. ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO IRAKASTEREDUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



#### 4.3.4. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA IKASTETXEAREN TITULARITATEA

##### *Erabilera orokorra*


Jarraian ikasleen eskolako erabilerak aztertzen dira ikasleak beren ikastetxearen *titularitatearen* arabera sailkatuta, hau da alde batetik ikastetxe “publiko”etan ikasten duten ikasle guztien batez besteko erabilerak, eta ondoan ikastetxe “hitzartu” guztietan ikasten dutenenak. Alde horretatik, aldagai aske hau, azterketa soziolinguistikoetako ohiko aldagai bat baino gehiago da hezkuntzaren antolaketarekin eta ikastetxe-sareen ezaugarriekin lotuago dagoen aldagaia.

Azpiko grafikoan eskaintzen dira ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuak eta bertan ikusten da aldagai honen arabera badirela alde adierazgarriak bi sareetako ikasleen erabileraren artean, baina alde horiek ez dira, urrundik ere, atal honetako beste aldagai aske batzuen moduan deskribatutakoen mailakoak. Orokorrean, ikastetxe publikoetan aritzen diren ikasleen erabilera orokorra, batez beste, altuagoa da ikastetxe pribatuetan aritzen direnena baino. 2015eko datuak alderatuta, LMH4n erabilera hori 7,9 puntu altuagoa da (publikoetan %63,3 eta pribatuetan %55,4) eta DBH2n 8,3 puntu (%46,7 eta %38,4, hurrenez hurren).

Bi ikastetxe-sareen arteko erabileraren alde horiek berdintsuak dira neurtu diren hiru urteetan eta bi ikasmailetan. Bestalde, 2011-2015 bilakaerari erreparatuta, *eskolako erabilera orokorrean* ikasle guztien unibertsoarentzat deskribatu diren goranzko joerak nahiko berdintsu banatzen dira bi kategorietako ikasleen artean, hau da, bi ikastetxe-sareetan.

Edozein kasutan, *titularitatea* aldagaia bere soilean hartuta alderatzen ditugun bi ikastetxe-sare hauek oso zabalak dira eta errealitate ezberdin asko biltzen ditu horietako bakoitzak bere baitan. Hala, hemen eskaintzen den alderaketak horretarako abiapuntu bat edo oinarrizko informazio bat eskaintzen badu ere, eskolako hizkuntza-erabilerak ikastetxe-sare ezberdinekin eta ikastetxeen zenbait ezaugarriekin nolako loturak dituzten sakonago aztertzeak merezi du, gutxienez “geruza”kako azterketa eginaz (“geruza” = titularitatea + irakasteredua), sare bakoitzeko irakastereduen proportzioak aztertuz, etab.

CCC. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




##### *Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak*

Ikastetxearen *titularitatearen* alderaketa eskolan aztertu diren lau erabilerentzat eskaintzen da ondorengo grafikoetan. Bertan ikusten dugu, *eskolako erabilera orokorrerako* deskribatu den ezberdintasun hori lau erabileren kasuan gertatzen dela, aztertutako hiru urteetan eta LMH4ko zein DBH2ko ikasleen artean:


kasu guztietan eskolako erabilerak puntu batzuk altuagoak dira ikastetxe publikoetako ikasleen batez bestekoan ikastetxe pribatuetakoa baino.

*Titularitatea* aldagai honen bereizgarri modura, aipatzekoa da, lau erabileren artean, alderik txikienak kasu honetan *ikaskideekin jolaslekuan* erabileran ematen direla, atal honetako gainerako aldagai gehienetan alderantziz gertatzen den bitartean (erabiler horretan sumatzen dira alderik handienak). Esate baterako, 2015ean, LMH4ko ikasleen artean, ikastetxe publikoetako ikasleen erabilerak *ikaskideekin jolaslekuan* pribatuetakoa baino 5,5 puntu altuagoa da (hurrenez hurren, %43,6ko eta %38,1eko erabilerak dute batzuek eta bestek). Aldiz, *irakasleekin gelan* erabileran, alde hori handiagoa da, 8,1 puntukoa zehazki (publikoetako erabilerak %83,9koa eta pribatuetakoa %75,8koa).


DDD. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




EEE. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin JOLASLEKUAN IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



**FFF. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**GGG. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**





4.3.5. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA ETA IKASTETXEAREN MAILA  
 SOZIOEKONOMIKOA (ISEK)

**Erabilera orokorra**


Azpiatal honetan ikasleen eskolako erabilera aztertzen dira haien maila sozio-ekonomiko-kulturalaren arabera, horretarako ISEK indizea baliatuz. Indize horrek, ikasleen (etxeko) maila soziala, kulturala eta ekonomikoa adierazten duten hainbat itemetako informazioa konbinatzen du, zenbaki bakarrean laburtuz. Alderaketa honetan *ikasleentzako ISEK maila* erabili da alderaketarako, hau da, ikastetxe bakoitzean aztertu diren ikasle guztien ISEK-aren batez bestekoa. Horren arabera, ikasleak lau taldetan banatu dira, ondorengo grafikoetan ikus daitekeenez: “maila baxua” dutenak (maila sozial-kultural-ekonomikoa, alegia), “maila ertain-baxua”, “maila ertain-altua” eta “maila altua”.

Aldagai honek ikaslearen baitan erakusten duen banaketari buruzko datuak txosten honetan eskaintzea beharrezkotzat jo ez den arren, bai jo da egokitzen aldagai hau aintzat hartzea eskola-giroko hizkuntza-erabileren analisian, hezkuntzako arloko azterketetan funtsezko aldagaietako bat izaten den neurrian.

Azpiko grafikoan ikus daitekeenez ikasleak lau mailatan banatuta *eskolako erabilera orokorrik* altuenak erdiko bi mailetak ikasleek dituzte: maila “ertain-baxua” eta “ertain-altua” dutenek, hain zuzen; ondoren “maila altua” ikasleentzako erabilera dator, eta apalena “maila baxua”koena da. Hurrenkera hori LMH4ko eta DBH2ko ikasleentzako artean berdina ematen da, kategorien arteko aldeak azken horien artean nabarmenagoak izanik.

Azterketa sakonagoetan sartu gabe, eta euskara bezala sozialki ahula den hizkuntza baten sustapenaren ikuspegitik, esan genezake, datuek erakusten duten konfigurazio horrek soziologikoki elementu interesgarriak erakusten dituela datozen urteetan euskara sozialki sendotzen jarraitzeko aukeren aldetik. Batetik, maila “altu”ko ikasleek ez dituzte euskarazko erabilerarik altuenak eskolan. Bestalde, ordea, eskolako erabilerarik altuenak ez daude lotuta maila sozioekonomiko baxuenei, eta maila ertaineko ikasleentzako ere, maila “ertain-altu”koen erabilera zertxobait altuagoak dira maila “ertain-baxu”koenak baino.

HHH. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




**Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak**


Ikasleen eskolako lau erabileren datuak eskaintzen dira ondorengo lau grafikoetan, horiek ere ikasleen ikastetxearen ISEK mailaren arabera multzokatuta. Lau erabileren kasuan betetzen da gorago eskolako erabilera orokorrerako deskribaturiko bereizketa: bai ikaskideen arteko bi erabileretan eta bai irakasleekiko bietan, euskarazko erabilerarik altuenak maila sozioekonomiko ertainak dituzten ikasleak dira (“ertain-altua” eta “ertain-baxua”), ondoren “maila altu”ko ikasleak, eta apalenak “maila baxu”koenak. Hurrenkera orokor hori bi ikasmailetan betetzen da eta aztertutako hiru urteetan (2011, 2013 eta 2015).

Horrez gain, lau erabileretan eta bi ikasmailetan, kasurik gehien-gehienetan, maila sozioekonomiko eta kultural “ertain-altua” duten ikastetxeetan biltzen diren ikasleen euskarazko erabilerak altuagoak dira maila “ertain-baxu”koenak baino (joera horrekiko bi salbuespen daude soilik egindako 24 alderaketen artean: ikaskideekin jolaslekuan erabileran, 2011n, DBH2n, eta urte eta ikasmila berean ikaskideekin gelan erabileran; bi kasu horietan maila “ertain-baxu”koen erabilera “ertain-altu”koena baino zertxobait altuagoa da).


III. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




III. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin JOLASLEKUAN IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



**KKK. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**LLL. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



#### 4.3.6. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN


##### *Erabilera orokorra*

Azpiatal honetan, ikasleen eskolako erabilerak ikasle horiek eskolaz kanpoko jardueretan dituzten hizkuntza-erabileren arabera gurutzatuta eskaintzen dira. Konkretuki, gurutzaketarako hautatu den aldagaia *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]* da. Aldagai trinkoa, eta nolabait ikasleek eskolaz kanpo egiten dituzten hiru jarduera ezberdinetako erabilera orokorra laburtu nahi duena. Txostenaren 1.1.3 atalean kontsulta litezke aldagai horren datuak (2011-2015).. Eskolaz kanpoko jardueretako erabilera horiek bost kategoriatan bereizi dira gurutzaketa egiteko, eta bere osaketari buruzko xehetasunak 0.5 atal metodologikoan daude. Datuak 2011 eta 2015erako eskaintzen dira.<sup>22</sup>

Ikasleen *eskolako erabilera orokorra* aipatu aldagai honekin gurutzatuta erakusten duen ondorengo grafikoak argi adierazten du bi aldagai hauen arteko lotura estua. 4.3 atal honetan aztertutako hamar aldagaietatik, hau da bi ikasmailetako ikasleen eskolako erabilerekin loturarik nabarmenena eta erregularrena duen aldagaia, kasu honetan ere, lotura hori indartsuagoa izanik DBH2ko ikasleen artean LMH4koen artean baino.

Bi ikasmailetako ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* alderatzen ditugunean beren eskolaz kanpoko jardueretako erabilera hauen arabera, gorago *eremu soziolinguistikoa* aldagaia aztertzean nabarmendu dugun joeraren antzekoa gertatzen da: zenbat eta altuagoak izan ikasleen erabilerak eskolaz kanpo, orduan eta txikiagoak dira bi ikasmailen arteko aldeak eskolako erabileran. Eskolaz kanpo ikasleen erabilera %100ekoa denean, LMH4ko eta DBH2ko ikasleen eskolako erabileretan ez dago apenas alderik (bi ikasmailetakoak %87 eta %91 artean). Eskolaz kanpoko %70,1-%99 denean ere aldeak oso apalak dira: LMH4ko ikasleen erabilera 0 eta 3 puntu artean da DBH2koa baino altuago. Eskolaz kanpoko %30,1-%70 artekoa denean, alde horiek 6 eta 11 puntu artekoak dira, eta eskolaz kanpoko erabilera %30 edo hortik beherakoa denean berriz, 13-17 puntu altuagoa da LMH4ko ikasleen eskolako erabilera orokorra DBH2koena baino.

MMM. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAKO ERABILERAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



Bilakaerari erreparatuz, 2011tik eta 2015era bitartean, LMH4ko eskolako erabilera orokorra igotzen da, eskolaz kanpoko erabilera maila edozein izanda ere; igoera hori (3,6 eta 4,8 puntu bitartekoa) handiagoa da eskolaz kanpoko erabilera %70 edo baxuagoa denean. DBH2n ere hazkundera dago (1,6 eta 5 puntu

<sup>22</sup> 2013an ez zen eskolaz kanpoko jardueren aldagai trinko hau elikatzeko adina informazio jaso.


bitartekoa), baina mugatzen da eskolaz kanpoko erabilera %30 edo apalagoa duten ikasleen kasuetara. Aldiz, eskolaz kanpoko erabilera hortik gorakoa denean eskolako erabilera bere horretan mantendu edo pixkatxo bat ahultzen da.

### ***Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak***


Eskolaz kanpoko jardueretako erabilerarekiko gurutzaketa hau eskolako lau erabileretan banaka aztertzen dugunean, argi ikusten da aldagai honek, bi ikasmailetan lotura sendoa eta norabide berekoa duela eskola barruko erabilerekin, bai ikaskideen arteko erabilerekin eta baita ikasleek irakasleekin dituzten erabilerekin ere. Aztertutako lau erabileren artean, loturarik nabarmenena *ikaskideekin jolaslekuan* erabileraren kasuan ematen da, eta DBH2n.

Eskolako erabileren datuak kategoriaka aztertzen baditugu, eta ikusi 2011-2015 urteen artean eskolako erabilerak nola aldatu diren, bi ideia dira hemen nabarmentzekoak. Batetik, LMH4ko ikasleen artean *ikaskideekin jolaslekuan* eta *ikaskideekin gelan* erabileretan izandako igoerak (jolaslekuko kasuan, kategoria guztietan, eta gelako erabileraren kasuan, batez ere eskolaz kanpo erabilerarik baxuenak dituzten hiru kategorietako ikasleen artean: “euskararik ez”, “%1-30” eta “%30,1-70”). Bestetik, nabarmentzekoa eta sakonago aztertzekoa da, DBH2ko ikasleen artean, eskolaz kanpo erabilera %30 edo baxuagoa duten ikasleen artean irakasleekiko bi erabileretan izandako igoera (gela eta gelatik kanpo). Esate baterako, eskolaz kanpo erabilerarik baxuena duten ikasleen (“euskararik ez”) erabilera *irakasleekin gelatik kanpo* %31 zen 2011n, eta 2015ean %41,6. Halako igoera hain epe laburrean lotua egongo da, ziurrenik, kategoria horretako ikasleen artean irakastereduan emandako bilakaerarekin, baina edozein kasutan oso igoera nabarmena da.


**NNN. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAKO ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**




**000. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEKIN JOLASLEKUAN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAKO ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**PPP. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEKIN GELAN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAKO ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**QQQ. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEKIN GELATIK KANPO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAKO ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



4.3.7. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA ETXEKO ERABILERA

**Erabilera orokorra**


Puntu honetan, eskolako erabilerak ikasleen etxeko erabileraren arabera gurutzatuta eskaintzen dira. Zehazki, gurutzaketa honetarako baliatutako aldagaia *etxeko erabilera [tr]* izendatu duguna da. Aldagai trinkoa da hau, eta ikasleek beren familiako eta etxeko kideekin dituzten hizkuntza-erabilera guztien laburpen moduko bat eskaintzen du. Txostenaren 1.2.2 puntuan kontsulta litezke etxeko erabilera orokor horien balioak bi ikasmailetako ikasleentzat. Bost kategorietan bereizi dira etxeko erabilera horiek gurutzaketa egiteko, eta aldagai trinkoaren osaketari buruzko xehetasunak 0.5 atal metodologikoan eskaini dira.

Ondorengo grafikoa, ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuak eskaintzen dira aipatu *Etxeko erabilera* orokor horiekin gurutzatuta, eta datuek argi erakusten dute bi aldagaien arteko lotura indartsua dela bi ikasmailetan, nabarmenagoa DBH2ko ikasleen artean. Bi ikasmailetako ikasleen erabilera datuak alderatuta, bestalde, aurrez *eremu soziolinguistikoa* (4.3.1) eta *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* (4.3.6) deskribatutako antzeko joera bat sumatzen dugu: zenbat eta altuagoak izan ikasleen etxeko erabilerak, orduan eta txikiagoak dira LMH4ko eta DBH2ko ikasleen *eskolako erabilera orokorren* arteko aldeak.

Aipatu, bestalde, *etxeko erabileraren* aldagai honek lotura duela –nola ez- gorago aztertutako *lehen hizkuntza* aldagaiarekin (4.3.2), baina *eskolako erabilera orokor*arekin lotura handiagoa du *etxeko erabilerak*.

Azkenik, erabilera datu zehatzei erreparatuta, nabarmentzekoa da nolako aldeak ematen diren *eskolako erabilera orokorrean* DBH2n etxean euskararik batere egiten ez duten (“Euskararik ez, %0”) eta pixka bat egiten duten ikasleen artean (“%1,0-%30,0”): 2015ean, adibidez, %27,9 eta %44,4koak dira bi erabilera horiek, hurrenez hurren.

RRR. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) ETXEKO ERABILERAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




**Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak**

Bi ikasmailetako ikasleen eskolako lau erabilerak beren *etxeko erabilerarekin* gurutzatuta aztertzen ditugunean ikusten dugu *ikaskideekin jolaslekuan* erabileran alde oso nabarmenak daudela kategoriatatik batetik bestera, bi ikasmailetan. *Ikaskideekin gelan* erabileraren kasuan, aldeak oso nabarmenak dira ere DBH2ko ikasleen artean, baina asko apaltzen dira LMH4koen kasuan (antzeko joera deskribatu dugu gorago beste aldagai batzuekiko gurutzaketan, esate baterako *Eremu soziolinguistikoa*, 4.3.1). Ildo beretik, irakasleekiko bi erabileretan (gelatik kanpo eta gelan) eta bi ikasmailetan, oro har, kategorien arteko aldeak apalagoak dira ikaskideen arteko erabileretan baino.

2011-2015 bilakaerari dagokionez, ikaskideen arteko bi erabilerei erreparatzen badiegu, aipagarriak dira etxean euskararik gutxien egiten duten bi kategorietako ikasleen datuak: etxean “Euskararik ez, %0” eta “%1,0-%30” egiten dutenenak, hain zuzen. LMH4ko ikasleen artean, euskarazko erabilerak gora egin du bi kategoriatan, bai *ikaskideekin gelan* (hurrenez hurren, 4,5 eta 2,9 puntu) eta bai *jolaslekuan* (3,9 eta 1,5 puntu). DBH2ko ikasleen artean, *ikaskideekin gelan* erabileran antzeko igoerak gertatu dira (hurrenez hurren, 4,7 eta 1,5 puntu), eta *ikaskideekin jolaslekuan* berriz, igoera eta jaitsiera txikia (1,3ko igoera eta 1,1eko jaitsiera, hurrenez hurren).


Ettxeko erabilerako bi kategoriatan berdinekin jarraituta (“%0” eta “%1,0-%30”), eta irakasleekin dituzten erabileren bilakaerari erreparatuta, azpimarratzekoak dira DBH2ko ikasleen artean izandako igoerak (hurrenez hurren, *irakasleekin gelatik kanpo* 8,0 eta 4,5 puntu eta *irakasleekin gelan* 8,4 eta 3,6 puntu). LMH4ko ikasleen artean, aldiz, igoera horiek *gelan* soilik gertatu dira, eta modu apalagoan (4,5 eta 1,1 puntu, hurrenez hurren), eta *gelatik kanpo* jaitsierak izan dira (1,0 eta 3,8 puntutakoak).

**SSS. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN ETXEKO ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**







**TTT. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin JOLASLEKUAN ETXeko ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**UUU. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEekin GELAN ETXeko ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**VVV. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEekin GELATIK KANPO ETXeko ERABILERAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



4.3.8. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUN ERLATIBOA (EUSKARA/GAZTELANIA)


**Erabilera orokorra**

Azpiatal honetan, eskolako erabilerak ikasleen euskara edo gaztelania begikoago edo “gustukoago” izatearen arabera gurutzatuta eskaintzen dira. Zehazki, gurutzaketa honetarako baliatutako aldagaia *begikotasuna euskara-gaztelania [tr]* da, ikasleak hiru multzotan banatzen dituenak: “euskara nahiago” dutenak, “gaztelania nahiago” dutenak eta bi hizkuntzak maila bertsuan gustuko dituztenak. Aldagai honi buruzko datuak gorago 2.2.1 atalean ikus litezke eta aldagaiaren osaketarako irizpide metodologikoak, berriz, 0.5 atalean.

Ondorengo grafikoa ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuak alderatzen dira eta, bistan denez, hiru kategoria horietan bildutako ikasleen euskarazko erabilerak nahiko ezberdinak dira, bai LMH4n eta bai DBH2n. Aldagai hau, alde horretatik, eskolako erabilerekin lotura sendoa dutenen artean sartzen da, nahiz eta ez izan atal honetan aztertzen diren aldagai askeen artean loturarik handiena duena.

Bi ikasmailetako ikasleen erabilerak 2011-2015 artean izan duten bilakaerari erreparatuta, erabilera orokorrak gora egin du hiru kategorietako ikasleen artean, bi ikasmailetan, eta nahikoa modu erregularrean. Hiru multzoen artean, igoerarik argiena “gaztelania nahiago” duten ikasleen kategorian gertatu da: LMH4n 4,5 puntuko igoera (%39,9tik %44,4ra) eta DBH2n 5,3 puntuko (%21,4tik %26,7ra).

WWW. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNAREN ARABERA (EUSKARA/GAZTELANIA). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




**Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak**


*Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]* aldagaiaren hiru kategoria hauetako ikasleen eskolako lau erabileren bilakaera aztertuz, atal honetako beste hainbat aldagai askeren kasuan bezala, ikusten dugu kategoria batetik besterako erabileren aldeak handiagoak direla, oro har, ikaskideen arteko erabileretan irakasleekin dituztenetan baino. Alderik nabarmenenak *ikaskideekin jolaslekuan* ematen dira, bi ikasmailetan, eta *ikaskideekin gelan* erabileran, DBH2ko aldeek oso nabarmenak izaten jarraitzen dute eta LMH4koak, berriz, apaldu egiten dira.

Ikasleek irakasleekin dituzten erabilerei dagokionez, bestalde, nabarmentzekoa da *irakasleekin gelan* eta *irakasleekin gelatik kanpo* erabileren artean aldaketa nabarmen handiagoa dela “gaztelania nahiago” duten ikasleen artean “biak berdin” dituztenen artean baino (eta aldeok are txikiagoak dira “euskara nahiago” dutenen artean). Bi ikasmailetan gertatzen da hori, baina bereziki LMH4n. Ikasmaita horretan, “biak berdin” dituzten ikasleen artean erabilera %84,7koa da *irakasleekin gelan*, eta gelatik kanpo berriz %72,3koa: 12,4 puntuko aldea, beraz. Aldiz, “gaztelania nahiago” duten ikasleen artean, alde hori handiagoa da bai absolutuki eta bai erlatiboki: 17,5 puntuko aldea, erabilera horiek gelan %70,8 eta gelatik kanpo %53,3koak izanik. Berdintsu gertatzen da DBH2ko ikasleen artean ere: “biak berdin” dituzten ikasleentzat aipaturiko aldea 6,1 puntukoa da (%77,2tik %71,1era) eta aldiz, “gaztelania nahiago” duten ikasleen artean, nabarmen handiagoa: 11,8 puntukoa zehazki (%57,4tik %45,6ra).


XXX. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEEKIN GELAN HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNAREN ARABERA (EUSKARA/GAZTELANIA) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




YYY. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNAREN ARABERA (EUSKARA/GAZTELANIA) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



**ZZZ. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNAREN ARABERA (EUSKARA/GAZTELANIA) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**AAAA. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNAREN ARABERA (EUSKARA/GAZTELANIA) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



4.3.9. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ETA EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA (EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA)

**Erabilera orokorra**


Azpiatal honetan ikasleen eskolako erabilerak alderatzen dira beren euskarazko konpetentzien arabera. Alderaketa hori egiteko hemen baliatu den aldagaia ikasleen *euskarazko hizkuntza-konpetentzia* da. Konpetentzia horri buruzko informazioa Ebaluazio Diagnostikoa probetan jasotakoa da, eta bertan, ikasleen euskarazko konpetentziak hiru mailetan bereizten dira: *hasierako maila*, *erdi-maila* eta *maila aurreratua*. Gorago, txosten honen 2.1.1 atalean kontsulta litezke aldagai horri buruzko datuak, eta baita aldagai honen izendapenari buruzko azalpenak ere.

Ikasleen euskarazko konpetentziak, neurtu daitezkeen mugen barruan, ikasleek eskolan dituzten erabilerekin alderatzea interes biziko azterketa da, bai ikuspegi soziolinguistiko batetik, eta baita hezkuntza arloko era guztietako eragileen lorpenen, mugen eta erronken ikuspegitik ere. Sakontzeko aukera handiak ematen dituen gaia da hau, baina atal honetan lehen hurbilpen bat eskaintzera mugatuko gara, gainerako aldagaiekin egin denaren bidetik.

Ondorengo grafikoan, LMH4ko eta DBH2ko ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuak eskaintzen dira, ikasleak beren euskarazko konpetentzien arabera hiru multzotan banatuta: “hasierako”a, “erdi-mailako” edo “maila aurreratuko”a. Datuetan argi ikusten da bi aldagaien artean lotura egon badagoela, baina ikusten da, era berean, lotura hori ez dela atal honetako beste aldagai batzuekin dagoena bezain sendoa. Horren erakusgarri da, esate baterako, “hasierako maila” duten ikasleek, LMH4n %50,1eko tasa-esleitua izatea *eskolako erabilera orokorrean* (2015ean), eta DBH2n %33,6koa, eta kopuru horiek nabarmen altuagoak dira beste aldagai batzuetan euskararen erabilerarako baldintzarik ezegokienak dituzten kategorietan behatu direnak baino.

Aipatzekoa da, bestalde, bi ikasmailetan eta hiru konpetentzia mailetan (hiru kategorietan), erabilera orokorrak goranzko joera izan duela 2011tik 2013rako eta hortik 2015erako bilakaeran. Horrek adierazten du, euskararen erabileran 4 urte horietan eman diren aurrerapenak hiru konpetentzia-mailetakoko ikasleen artean banatuta daudela.

**BBB. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA ARABERA (ED). LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**




### **Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak**

Aipatu dugun moduan, ikasleen euskarazko kompetentziak ageriko lotura du eskolako erabilerekin, baina lotura hori aztertutako beste aldagai batzuen bano ahulagoa da. Esate baterako, *ikaskideekin jolaslekuan* erabilerako datuak aztertuta, ikusten dugu DBH2ko ikasleen artean euskaraz “hasierako maila” duten ikasleen batez besteko erabilera %16,1 dela 2015ean. Aldiz, 4.3 atal honetan aztertutako beste aldagai batzuetan, euskara erabiltzeko baldintzarik zailenak edo eskasak dituzten ikasleen erabilerak ondotoz apalagoak dira jolaslekuan. Esate baterako, eskolaz kanpoko jardueretan euskararik batere egiten ez duten ikasleen batez besteko erabilera (“euskararik ez”), %3,4koa da *jolaslekuan* (ikus gorago, 4.3.6 puntua), edota lehen hizkuntza “gaztelania” duten ikasleena, %9,8koa (ikus 4.3.2).

Aztertutako eskolako lau erabileretan bi ikasmailtako ikasleek dituzten erabilerak ere iradokitzen dute Ebaluazio Diagnostiko bidez neurtutako ikasleen euskarazko kompetentzia, gehiago dela –nolabait esatearren– kompetentzia akademiko edo formal bat, ikasleek euskaraz hitz egin ahal izatea zuzenean baldintzatzen duen kompetentzia bat baino<sup>23</sup>. Gainerakoan, “hasiera maila”ko kompetentzia soilik duten ikasleek, nekez izango lituzkete, *ikaskideekin gelan* eta *ikaskideekin jolaslekuan* adibidez, dituzten bezalako erabilerak: 2015ean, %58,4koa da ikasle horien euskarazko erabilera gelan LMH4n, eta %30,2koa DBH2n. Jolaslekuan aldiz, hurrenez hurren, %31,9 eta %16,1ekoak dira erabilera horiek.


Aztertutako lau erabileren eta bi ikasmailen datu zehatzek, bestalde, hainbat puntu interesgarri iradokitzen dituzte. Bat nabarmentzearen, aipagarria suertatzen da *irakasleekin gelan* eta *irakasleekin gelatik kanpo* erabileretan, bi ikasmailen erabileran arteko aldea oso txikia dela ikasleek “maila aurreratu”ko kompetentzia dutenean: ikasleen unibertso osoan, bi ikasmailen arteko alde hori gelan 9,9 puntukoa da *gela* (LMH4ko erabilera %79,9koa eta DBH2koa %70,0koa), eta aldiz “maila aurreratu”ko ikasleen artean aldea 3,3 puntukoa da soilik (%88,7 LMH4n vs %85,4 DBH2n). *Gelatik kanpo*, unibertso osoarentzat aldea 4,9 puntukoa da (LMH4n %66,8koa vs DBH2n %61,9koa), eta aldiz “maila aurreratu”ko ikasleentzat ez dago ia alderik: -0,1 puntu (%81,7 LMH4n vs %81,8 DBH2n).

CCCC. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMPETENTZIAREN ARABERA (ED) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




<sup>23</sup> Hortik, lan honetan kompetentzia hori izendatzeko hobetsi dugun izena ere: *euskarazko hizkuntza-kompetentzia*, alegia.


**DDDD. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIAREN ARABERA (ED) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**EEEE. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIAREN ARABERA (ED) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**



**FFFF. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIAREN ARABERA (ED) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)**




#### 4.3.10. IKASLEAREN SEXUA

##### *Erabilera orokorra*

Ikasleen eskolako erabilerak aldagai aske ezberdinen arabera aztertzen dituen atal honi amaiera emanaz, azpiatal honetan ikasleen *sexuaren* arabera alderaketa eskaintzen da. Azpiko grafikoan ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuak eskaintzen dira, bertan aztertutako unibertsoko neska guztien batez besteko erabilera eta mutilen batez bestekoa alderatuz.

Erabilera orokor honetan, LMH4n, nesken erabilerak mutilenak baino 2-3 puntu altuagoak dira neurketak egindako hiru urteetan. DBH2ko ikasleen artean, aldiz, alde hori apenas iristen den puntu batekoa izatera (2015ean, adibidez, 0,6 puntukoa da aldea: neskek %42,6ko erabilera eta mutilek %42koa).

GGGG. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASLEEN SEXUAREN ARABERA. LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



##### *Aztertutako eskolako lau hizkuntza-erabilerak*

Nesken eta mutilen hizkuntza-erabileren alderaketa hori eskolan aztertutako lau erabileratarako eskaintzen da ondorengo lau grafikoetan. Alderik nabarmenena *irakasleekin gelatik kanpo* ematen da. Erabilera horretan nesken erabilera mutilena baino altuagoa da, bai LMH4ko ikasleen artean eta bai DBH2n, aldeak 2-3 puntukoak izanik. 2015ean, esaterako, LMH4n nesken erabilera mutilena baino 2,6 altuagoa da (hurrenez hurren, %68,2 eta %65,6ko erabilerak) eta DBH2n 3,0 puntu altuagoa (neskena %63,5 eta mutilena %60,5).


Aztertutako beste hiru erabileretan, aldiz, nesken eta mutilen batez besteko erabileren arteko aldeak ez dira hain nabarmenak. Irakasleekiko harremanekin jarraituta, *irakasleekin gelan* erabileran, hiru urteetan neurtutako nesken erabilerak mutilenak baino zertxobait altuagoak dira bi ikasmailetan, baina aldeak ez dira iristen kasu batean ere bi puntukoak izatera (2015ean, adibidez, LMH4n 1,3 puntuko aldea eta DBH2n 1,7koa).

Ikaskideen artean aztertutako bi erabileretan, alderik nabarmenenak *ikaskideekin jolaslekuan* ematen dira, baina soilik LMH4ko ikasleen artean. Erabilera eta ikasmaita horretan, nesken batez besteko erabilera mutilena baino 4,1 puntu altuagoa izan da 2015ean (neskena %43,0 eta mutilena %38,9), eta aurreko bi neurketetan ere antzeko aldeak neurtu dira. Aldiz, erabilera berean DBH2n bi sexuen erabilerak oso-oso antzekoak izan dira neurtutako hiru urteetan, aldea kasu batean ere puntu batekoa izatera iritsi gabe.




*Ikaskideekin gelan* erabileran, bestalde, erabileren arteko aldeak txikiak dira. LMH4n, nesken erabilerak mutilenak baino puntu 1 edo 2 altuagoak dira (2015ean 1,3 puntu) eta DBH2n berriz aldeak are txikiagoak dira, kasu honetan mutilen erabilerak neskenak baino hamarren batzuk altuagoak izanik: 2015ean, adibidez, mutilen erabilera %38,6koa da eta neskena %38koa (0,6 puntuko aldea).


HHHH. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin GELAN IKASLEAREN SEXUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)




IIII. GRAFIKOA: ERABILERA IKASKIDEekin JOLASLEKUAN IKASLEAREN SEXUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015 (%)



**JJJ. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELAN IKASLEAREN SEXUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK, %) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015.**



**KKKK. GRAFIKOA: ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO IKASLEAREN SEXUAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK, %) . LMH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2015.**



## 5. ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA ALDAGAI ASKEAK: KORRELAZIOAK ETA ERREGRESIO ANIZKOITZA

Orain arte ikasleen eskolako lau erabilera-motetan, aldagai askeen arabera ematen diren banaketak deskribatu ditugu. Atal honetan urrats bat gehiago emango dugu, erabilera horiekin eta aldagai askeen arteko harremana korrelazio- zein erregresio-analisiaren bitartez aztertuz. Korrelazio eta erregresio anizkoitzaren azterketa hauek egiteko, 2011n erabilitako diseinu bera erabili dugu oraingoan ere.<sup>24</sup> Alderaketa egiteko orduan kontuan hartu behar da 2011n eta 2015ean jasotako informazioa ez dela guztiz berdina izan. 2015eko azteketan aldagai garrantzitsu bat kanpoan geratu da. Garrantzitsua, 2011n osatutako eredu garrantzia handia zuelako (LMH4n hirugarren aldagaia izan zen *eskolako erabilera orokorrarekiko* loturan eta DBH2n zazpigarrena): *Ahozko gaitasun erlatiboa*.

Hori esanda, joan gaitezen urratsez urrats.

### 5.1. KORRELAZIO-ANALISIA

#### 5.1.1. KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREKIN

Ikasleen *eskola erabilera orokorra* bezala, hainbat aldagai aske beste aldagai bakun batzuen birkodetzea edo konbinazioa eginez osatu dira, emaitza gisa aldagai trinko berriak sortuz. Aipatu aldagaiak tauletan [tr] (Trinko) bereizgarriarekin adierazi dira. Guztira 10 aldagai trinko sortu dira 30 aldagai bakunek eskaintako informaziotik abiatuta. Horiek eta beste guztiak nola sortu diren ikusteko jo metodozko oharretara (0.5 atala).

Ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* beste aldagaiek dituzten korrelazioak horrela antolatuta eskaintzen dira ondorengo tauletan: 35. taula da taula nagusia, non aldagai guztien informazioa laburtzen den. Bertan ageri dira aipaturiko 9 aldagai aske trinkoen korrelazioak (10. trinkoa *eskolako erabilera orokorra* bera litzateke) eta aldagai trinkoak sortzeko erabili ez diren aldagai askeen korrelazioak ere. Guztira, LMH4ko ikasleen zerrendan 17 aldagai dira eta DBH2koenean, 23 aldagai. Taula nagusi horren ondoren, beste 10 taulatan aldagai trinko horietan konbinatu diren aldagaiak deskribatzen dira eta baita horietako bakoitzak mendeko aldagaiekin duen korrelazioa ere.

Taula nagusia (35. taula), LMH4ko eta DBH2ko ikasleen datuak bereizita aztertuz, aldagai gehienek dute korrelazio estatistikoki adierazgarria ikasleen *eskolako erabilera orokorra* mendeko aldagaiekin. 2011n bezala, LMH4ko ikasleen artean *irakasteredua* da korrelaziorik altuena duen aldagaia (A, B edo D eredu izatea), eta DBH2n, aldiz, laugarren posturaino jaisten da bere garrantzia. DBH2koen artean *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]* aldagaia da korrelaziorik altuena duena. Oro har, ikasleen eguneroko eta hurbileko errealitate soziolinguistikoa adierazten duten aldagaiek (erabilera eskolaz kanpoko jardueratan, lagunekin eta etxean) korrelazio oso estua dute DBH2ko ikasleen kasuan eskolako erabilerekin, eta zertxobait ahulagoa LMH4ko ikasleengan, baina bi ikasmailetan lehenengo lau postuetan kokatzen dira. *Ettxeko erabilera [tr]* aldagaiak korrelazio handia du bi ikasmailetan: laugarren postuan kokatzen da LMH4n eta are gorago –hirugarren postuan– DBH2n.

<sup>24</sup> Ikus *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua* argitalpenaren 4. Atala "Eskolako erabileraren eta beste aldagaien arteko korrelazioak"

35. TAULA. ALDAGAI ASKEEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA  
ALDAGAIAREKIN. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015

LMH4		R	DBH2		R
1	Irakasteredua	0,612	1	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,722
2	Erabilera lagunekin txateatzean <sup>25</sup>	0,572	2	Erabilera lagunekin txateatzean	0,704
3	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,567	3	Etxeko erabilera [tr]	0,669
4	Etxeko erabilera [tr]	0,547	4	Irakasteredua	0,604
5	Irakasleen erabilera haien artean	0,523	5	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,586
6	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,502	6	Lehen hizkuntza	0,584
7	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,488	7	Eremu soziolinguistikoa	0,583
8	Lehen hizkuntza	0,486	8	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,563
9	Eremu soziolinguistikoa	0,433	9	Irakasleen erabilera haien artean	0,522
10	Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	0,405	10	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,452
11	Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	0,34	11	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,435
12	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,284	12	Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	0,422
13	Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	0,274	13	Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	0,317
14	Jatorria [tr]	0,202	14	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,313
15	Ikastetxeko ISEK maila	0,066	15	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,312
16	Ikaslearen ISEK maila	0,030	16	Jatorria [tr]	0,264
17	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,028	17	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	0,248
			18	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	0,230
			19	Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	0,181
			20	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	0,141
			21	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,109
			22	Ikaslearen ISEK maila	0,087
			23	Ikastetxeko ISEK maila	0,086

Bi ikasmailetan, *euskara/gaztelania begikotasun erlatiboa [tr]*-ren korrelazioa *euskara/ingelesa begikotasun erlatiboa [tr]*-rena baino handiagoa da, eta *euskara/gaztelania erraztasun erlatiboa [tr]*-rena, *euskara/ingelesa erraztasun erlatiboa [tr]*-rena baino handiagoa. Horrez gain, bi ikasmailetan mendeko aldagaia lotuagoa dago hizkuntzekiko begikotasunarekin (euskara edo gaztelania/ingelesa «gustukoago» izatea) Erraztasuna-Zailtasuna irudikapenekin baino.

*Irakasleen erabilera haien artean* aldagaiak nabarmentzeko moduko korrelazioa du mendeko aldagaiarekin bi ikasmailetan; aldagai guztiak kontuan hartuta posizio ezberdina hartzen badu ere (5. lekua LMH4n eta 9.a DBH2n), bietan ia korrelazio bera agertzen du (0,523 eta 0,522 hurrenez hurren). Ikastetxeetan hizkuntza aldetik ikasleek bizi duten giroaren adierazgarri zuzena izan daiteke aldagai hori. Bistan da irakasteredua bat edo beste izateak korrelazio estua duela ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerarekin, baina *irakasleen erabilera haien artean* aldagaiaren korrelazio altuak adierazten digu erabilera hori era batekoa edo bestekoa izateak ere eragiten duela ikasleen arteko eskolako erabileran.

Errendimendu akademikoak eta ISEK maila sozioekonomikoak (ikasleenak zein ikastetxearenak) korrelazio adierazgarri txikia dute ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin*.

<sup>25</sup> Aldagai hau, hemen estatistikoki landu den moduan (ikus oharrak metodologia atalean) aldagai nominala da eta beraz ikuspegi estatistikoko zorrotz batetik ez litzateke egokia korrelazio analisi batean erabiltzea. Hala ere, ahulezia estatistiko horretaz jakitun izanik, kontuan harturik ikasleen lagunen esparruari buruzko informazioa jasotzen duen aldagai bakarra dela, kalkuluen emaitza erakusten da taula hauetan.

Aurreko taulako korrelazio orokorrak adierazi ondoren, osatutako aldagai trinkoen [tr] deskribapena eta korrelazioak dituzue ondorengo tauletan:

36. TAULA. *ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAKO ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN*

LMH4	R	DBH2	R
ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN [TR]	0,567	ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN [TR]	0,722
1 Udaleku eta kanpamentuetan	0,525	1 Eskolaz kanpoko ekintzetan	0,709
2 Eskolaz kanpoko ekintzetan	0,524	2 Udaleku eta kanpamentuetan	0,662
3 Klase partikularretan	0,327	3 Klase partikularretan	0,470

Gorago ikusi dugunez, *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]* aldagai trinkoak oso korrelazio estua du ikasleen eskolako erabilerarekin, bereziki DBH2n. Goiko taulan adierazten diren hiru aldagaien informazioa konbinatu da aldagai trinko hori osatzeko<sup>26</sup>: ikasleek *eskolaz kanpoko ekintzetan* duten hizkuntza-erabilera, *udaleku eta kanpamentuetako* erabilera eta *klase partikularretan* dutena. DBH2ko ikasleen artean *eskolaz kanpoko ekintzetako* erabilerak du korrelazio estuena (R: 0,709) *Ikasleen eskolako erabilera orokorrarekin*; LMH4n berriz, *udaleku eta kanpalekuetako* erabilerak (R: 0,525).

37. TAULA. *ETXEKO ERABILEREN ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN*

LMH4	R	DBH2	R
ETXEKO ERABILERA [TR]	0,547	ETXEKO ERABILERA [TR]	0,669
1 Anai-arrebekin	0,508	1 Anai-arrebekin	0,649
2 Etxean denak batera	0,495	2 Etxean denak batera	0,638
3 Amarekin	0,455	3 Amarekin	0,572
4 Aitarekin	0,441	4 Aitarekin	0,549
5 Gurasoak haien artean	0,415	5 Gurasoak haien artean	0,505

*Etxeko erabilera [tr]* aldagai trinkoaren osaketan goiko taulan adierazten diren bost aldagaiak konbinatu dira<sup>27</sup>. DBH2ko korrelazioak altuagoak dira bost aldagaietan LMH4koak baino. Bestalde, bi ikasmailetan bost aldagai askeen korrelazioen hurrenkera berdina da: ikasleek beren neba-arrebekin duten hizkuntza-erabilerarekin du mendeko aldagaiak loturarik estuena, eta ahulena berriz, gurasoen arteko erabilerarekin.

<sup>26</sup> Hiru aldagaiari pisu bera eman zaie aldagai trinkoaren osaketan; bakoitzari %33,3. Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.

<sup>27</sup> Etxekoek, denek, batera zaudetenean... aldagaiari eman zaio pisurik gehiena aldagai trinkoaren osaketan (%50). Gainerakoei, hurrenez hurren: Erabilera amarekin (%15), aitarekin (%15), neba-arrebekin (%10), gurasoen artean (%10). Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.

38. TAULA. KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOAREN ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN  
ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOA [TR]	0,488	KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOA [TR]	0,583
1 Irratsaioa	0,434	1 Irratsaioa	0,561
2 WEB	0,372	2 WEB	0,355
3 Musika taldea edo abeslaria	0,267	3 Musika taldea edo abeslaria	0,305
4 Telebista	0,245	4 Telebista	0,294
5 Zineman ikusitako filma	0,204	5 Zineman ikusitako filma	0,145

*Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]* aldagai trinkoa osatzeko, Irratsaioa, WEB, Musika taldea, Telebista eta Filmak, zein hizkuntzan ikus-entzuten dituzten gehien, aldagaiekin konbinatu dira<sup>28</sup>, ikasleei galdetuz item bakoitzaren kontsumoa zein hizkuntzatan egiten duten: «euskaraz», «gaztelaniaz» edo «beste hizkuntza bat»ean. Bost aldagaiak konbinatuz sorturiko aldagai trinkoa arrazoi eskalako aldagai bat da eta beraz aukera ematen du korrelazioetara jotzeko, berau osatzen duten aldagai askeek ez bezala<sup>29</sup>: irratsaioa, web orria, telebista saioa, abeslaria eta filma. Ikasleen *eskolako erabilera orokorra*arekin lortzen den korrelazioaren arabera, aldagai bakun horiek modu berean ordenatzen dira bi ikasmailetan, ikasleek gehien entzuten duten irratsaioaren hizkuntza izanik harremanik sendoena duen aldagaia.

39. TAULA. EUSKARA-GAZTELANIA ERRAZTASUNA-ZAILTASUNA ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN  
ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
ERRAZTASUNA-ZAILTASUNA EUSKARA-GAZTELANIA [TR]	0,405	ERRAZTASUNA-ZAILTASUNA EUSKARA-GAZTELANIA [TR]	0,317
1 Euskara zailtasuna/erraztasuna	0,367	1 Euskara zailtasuna/erraztasuna	0,340
2 Gaztelania zailtasuna/erraztasuna	-0,150	2 Gaztelania zailtasuna/erraztasuna	- 0,080

*Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]* aldagai trinkoa osatzeko, taulan ageri diren bi aldagaiak konbinatu dira, emaitza gisa lortuz bi hizkuntzetako zein irudikatzen duen ikasle bakoitzak errazago edo zailago<sup>30</sup>. Korrelazioek antzeko indarra dute kasu honetan bi ikasmailetan eta alderantzizko zeinua euskarazko eta gaztelaniazko aldagaietan.

<sup>28</sup> Bost aldagaiei pisu bera eman zaie haztapenean: bakoitzari aldagai trinkoaren %20. Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.

<sup>29</sup> Aldagai nominalak dira, beraz, ez dira aldagai ez jarraiak ez ordinalak. Ondorioz, azterketa zorrotz batean ez litzateke egokia horien korrelazioak kalkulatzeko. Hala ere, horren ahulezia estatistikoaz jabetuta, kasu honetan kalkulua egin eta erakustea erabaki dugu.

<sup>30</sup> Bi erantzunak kontuan hartuta, aldagai trinkoan berezi dira «Euskara errazagoa», «Biak berdin» edo «Gaztelania errazagoa». Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.

40. TAULA. EUSKARA-INGELESAREN ERRAZTASUNA-ZAILTASUNA ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
ERRAZTASUNA-ZAILTASUNA EUSKARA-INGELESAREN [TR]	0,274	ERRAZTASUNA-ZAILTASUNA EUSKARA-INGELESAREN [TR]	0,181
1 Euskara zailtasuna/erraztasuna	0,367	1 Euskara zailtasuna/erraztasuna	0,34
2 Ingelesaren zailtasuna/erraztasuna	0*	2 Ingelesaren zailtasuna/erraztasuna	0,055

*Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesaren [tr]* aldagai trinkoa osatzeko, taulan ageri diren bi aldagai askeak konbinatu dira. Taulan ageri diren korrelazioen balioek adierazten dute ikasleek euskara «zaila» edo «erraza» izatearen irudikapenak nolabaiteko lotura baduela mendeko aldagaiarekin. Aldiz, ingelesaren «zaila» edo «erraza» izatearen irudikapenak ez du apenas loturarik edo oso ahula ikasleek eskolan euskara gehiago edo gutxiago erabiltzearekin, ez DBH2n eta ez LMH4n.

41. TAULA. EUSKARA-GAZTELANIA BEGIKOTASUNAREN ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
BEGIKOTASUNA EUSKARA- GAZTELANIA [TR]	0,502	BEGIKOTASUNA EUSKARA- GAZTELANIA [TR]	0,586
1 Euskara begikotasuna	0,451	1 Euskara begikotasuna	0,592
2 Gaztelania begikotasuna	-0,280	2 Gaztelania begikotasuna	-0,230

*Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]* aldagai trinkoa taulan ageri diren bi aldagaiak konbinatuz sortu da, bi hizkuntzei buruz ikasleek emandako erantzunak konbinatu ondoren<sup>31</sup>. Bi ikasmailatan ikasleek eskolako erabilerak harreman gehiago du «euskararekiko begikotasunarekin» (LMH4n R: 0,451 eta DBH2n R:0,592) «gaztelaniarekiko begikotasunarekin» baino. Bestalde, korrelazioen norabideak (zeinu negatibo/positiboak) adierazten du euskararekiko begikotasun handiago bati eskolako erabilera orokor altuago bat dagokiola, eta alderantziz, gaztelaniarekiko begikotasun handiago bati euskarazko erabilera baxuago bat dagokiola.

<sup>31</sup> Bi erantzunak kontuan hartuta, aldagai trinkoan berezi dira «Euskara nahiago», «Biak berdin» edo «Gaztelania nahiago». Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.

42. TAULA. EUSKARA-INGELES A BEGIKOTASUNA ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
BEGIKOTASUNA EUSKARA-INGELES A [TR]	0,340	BEGIKOTASUNA EUSKARA-INGELES A [TR]	0,422
1 Euskara begikotasuna	0,451	1 Euskara begikotasuna	0,592
2 Ingeles a begikotasuna	0*	2 Ingeles a begikotasuna	0,010*

*Begikotasuna Euskara-Ingeles a [tr]* aldagai trinkoa taulan ageri diren bi aldagai askeak konbinatuz sortu da, bi hizkuntzetan ikasleek emandako erantzunak alderatuz<sup>32</sup>. Aurreko puntuan esan bezala, ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* badu lotura euskara «gustuko» izatearekin (LMH4n R: 0,451 eta DBH2n R:0,592). Bi ikasmailetan berriz, *gustuko al duzu ingeles a?* aldagai askeak ez du lotura adierazgarririk mendeko aldagaiarekin; hau da: ingeles a gustuko izateak edo ez izateak ez du loturarik ikasleek eskolan euskara gehiago edo gutxiago erabiltzearekin.

43. TAULA. JATORRIA ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
JATORRIA [TR]	0,202	JATORRIA [TR]	0,264
1 Amaren jaiolekua	0,181	1 Amaren jaiolekua	0,240
2 Aitaren jaiolekua	0,176	2 Aitaren jaiolekua	0,225
3 Ikaslearen jaiolekua	0,133	3 Ikaslearen jaiolekua	0,193

*Jatorria [tr]* aldagai trinkoa taulan zehazten diren aldagaiak konbinatuz sortu da, ikasleak eta euren gurasoak Euskal Herritik kanpo edo bertan jaiok diren kontuan hartuz<sup>33</sup>. Konbinatutako hiru aldagaiak korrelazio estatistikoki adierazgarriak dituzte ikasleen eskolako erabilera orokorrarekin bi ikasmailetan, oso altuak ez badira ere, eta hiru kasuetan korrelazio horiek pixka bat indartsuagoak dira DBH2ko ikasleen artean LMH4koen artean baino.

44. TAULA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOA BATEZ BESTE ALDAGAIEN KORRELAZIOAK IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ALDAGAIAREKIN

LMH4	R	DBH2	R
ERRENDIMENDU AKADEMIKOA BATEZ BESTE [TR]	0,028	ERRENDIMENDU AKADEMIKOA BATEZ BESTE [TR]	0,109
1 Matematika konpetentzia pertzentiletan (multzokatua)	0,074	1 Matematika konpetentzia pertzentiletan (multzokatua)	0,154
2 Gaztelania konpetentzia pertzentiletan (multzokatua)	-0,060	2 Ingeles a konpetentzia pertzentiletan (multzokatua)	0,088
3 Ingeles a konpetentzia pertzentiletan (multzokatua)	0,010*	3 Gaztelania konpetentzia pertzentiletan (multzokatua)	0*

Errendimendu akademikoa batez beste neurtuko zuen aldagai bat sortu dugu, Gaztelania, Ingeles a eta Matematika konpetentzia pertzentiletatik abiatuta: *Errendimendu akademikoa batez beste [tr]* deitu

<sup>32</sup> Bi erantzunak kontuan hartuta, aldagai trinkoan berezi dira «Euskara nahiago», «Biak berdin» edo «Ingeles a nahiago». Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.

<sup>33</sup> Xehetasun gehiagorako ikus metodozko oharra.



dugu<sup>34</sup>. Korrelazioen balioak nahiko baxuak dira, estatistikoki adierazgarriak izanik ere, bi ikasmailetan, baina zertxobait altuagoak DBH2n. Hiru gai horietan emaitza akademiko hobekak dituzten ikasleek, batez beste, euskarazko erabilera zertxobait altuegokoak dira eskolan. LMH4n, dena den, ingelesa aldagaiak eta DBH2n gaztelania aldagaiak mendeko aldagaiarekin duten korrelazioa ez da estatistikoki adierazgarria.

---

<sup>34</sup> Metodozko oharretan aldagaia nola sortu dugun ikus daiteke.

### 5.1.2. KORRELAZIOEN BILAKAERA 2011-2015.

2011ko eta 2015eko korrelazioen alderaketaren bitartez, bi asmo bete ditzakegu. Batetik, 2015eko informazioaren eskutik berretsi ditzakegu 2011n lortu ziren datuak eta horietan adierazten ziren aldagai askeen eta *eskola erabilera orokorraren* arteko korrelazioak. Bestetik, zeharka bada ere, balioetsi dezakegu 2015ean aldagai aske batzuen informazio biltzeko baliatu den laginak ordezkatu behar duen unibertsoaren ezaugarri berdinak ote dituen eta bere isla zuzena ote den.<sup>35</sup> Jarraian datozen bi taulek erakusten dituzte aipatutako korrelazioak eta urte bien arteko bilakaera, aldagaien hurrenkera 2015eko emaitzen arabera antolatuz: lehendabizi, LMH4rako eta, ondoren, DBH2rako.

Nabarmendu beharreko lehen ideia bi urteetako datuen egonkortasunarena da. Oro har, bai LMH4ko eta bai DBH2ko ikasleen artean, bi urteetan neurtutako aldagai askeek antzeko korrelazioak dituzte *eskolako erabilera orokorrarekin*. Zehatzago esateko, bi urteetan aldagai berdin batek erakusten dituen korrelazioen artean 0,05 puntuko aldea baino txikiagoa dago kasurik gehienetan: LMH4n aztertutako 17 aldagaieetatik 13tan eta DBH2n 23 aldagaieetatik 16tan. Datuen egonkortasun honek berretsi egiten ditu, neurri handi batean 2011ko datuak eta zentzu horretan haien sendotasunaren adierazle da. Bestalde, 2015ean ikaslegoaren heren baten datuekin osatu diren aldagaien kasuan, ez dirudi orokorrean aldaketa horrek haien baliagarritasuna mugatu duenik, aldagai horietariko batzuek gainerako egonkortasun maila bertsua baitute. Dena den, aipatzekoa da, 0,05etik gorako aldea duten aldagaien artean, mota honetako aldagaien proportzio handiago bat ematen dela.

Aipagarria da, bestalde, bi urteetan aldagai berdin baterako neurtu diren korrelazioen arteko aldeak, kasu gehien-gehienetan apur bat altuagoak direla 2011n 2015ean baino. Zehazki, LMH4n, 17 aldagaieetatik 16tan, eta DBH2n, 23tik 18tan.

Bi urteetako korrelazioen artean alde aipagarria duten aldagaien artean, nabarmentzekoak dira *irakasteredua* eta *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*, baina soilik LMH4ri dagokionean (0,067ko eta 0,060ko aldeak hurrenez hurren). Bi aldagai horiek, ikasmaita horretan *eskolako erabilera orokorra [tr]*-rekin korrelaziorik estuenak dituztenen artean daude, lehena eta hirugarrena baitira zehazki. *Irakastereduaren* korrelazioak erakusten duen ahultze horren zergatia, behar bada, D ereduaren orokortzearekin egon liteke lotua (ikus xehetasun gehiagorako 5.2.3 atala). Bestalde, *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*-ren korrelazioaren ahultzearen balizko zergatia izan liteke, aldagai sintetiko hori osatzen duten hiru aldagai askeetatik bitan euskararen erabileran atzerakada bat eman dela, konkretuki *erabilera klase partikularretan* eta *erabilera udaleku eta kanpamenduetan* aldagaieetan (ikus 1.1.3 atala).

Bi aldagai horiez gain, eta eskolako erabileren azterketan hainbesteko garrantzia ez izan arren, aipatzekoak dira ere *erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]* eta *erraztasuna-zailtasuna euskara-inglese [tr]* aldagaiak, horiek baitira bi urteetako korrelazioen artean alderik handienak dituzten aldagaiak; hurrenez hurren, LMH4n 0,121 eta 0,102 puntu eta DBH2n, berriz, 0,222 eta 0,173 puntu.

<sup>35</sup> Gogoan izan aldagai aske batzuen informazioa unibertsoaren heren baten bitartez eskuratu dela; zehatzago, gela bakoitzeko ikasleen herenak galde-sortari erantzunez (ikus 0.2.1 atala). Aldagai aske horiei hurrengo tauletan “[herena]” bereizgarria gehitu zaie 2015eko datuaren zutabeen.

45. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREN ETA ALDAGAI ASKEEN ARTEKO KORRELAZIOEN BILAKAERA 2011-15. LMH4

LMH4	2011	2015	Aldea
1 Irakasteredua	0,679	0,612	-0,067
2 Erabilera lagunekin txateatzean	0,592	0,572 [herena]	-0,020
3 Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,627	0,567	-0,060
4 Etxeko erabilera [tr]	0,578	0,547	-0,031
5 Ahozko gaitasun erlatiboa euskara/gaztelania	0,574	Daturik ez	-
6 Irakasleen erabilera haien artean	0,522	0,523	0,001
7 Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,563	0,502 [herena]	-0,061
8 Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,527	0,488 [herena]	-0,039
9 Lehen hizkuntza	0,524	0,486	-0,038
10 Eremu soziolinguistikoa	0,481	0,433	-0,048
11 Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	0,526	0,405 [herena]	-0,121
12 Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	0,388	0,340 [herena]	-0,048
13 Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	0,328	0,284	-0,044
14 Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	0,376	0,274 [herena]	-0,102
15 Jatorria [tr]	0,234	0,202	-0,032
16 Ikastetxeko ISEK maila	0,082	0,066	-0,016
17 Ikaslearen ISEK maila	0,054	0,030	-0,024
18 Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,060	0,028	-0,032

46. TAULA. IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREN ETA ALDAGAI ASKEEN ARTEKO KORRELAZIOEN BILAKAERA 2011-15. DBH2

DBH2	2011	2015	Aldea
1 Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,763	0,722	-0,041
2 Erabilera lagunekin txateatzean	0,687	0,704 [herena]	0,017
3 Etxeko erabilera [tr]	0,701	0,669	-0,032
4 Ahozko gaitasun erlatiboa euskara/gaztelania	0,652	Daturik ez	-
5 Irakasteredua	0,630	0,604	-0,026
6 Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,622	0,586 [herena]	-0,036
7 Lehen hizkuntza	0,616	0,584	-0,032
8 Eremu soziolinguistikoa	0,582	0,583	0,001
9 Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,602	0,563 [herena]	-0,039
10 Irakasleen erabilera haien artean	0,529	0,522	-0,007
11 Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,374	0,452 [herena]	0,078
12 Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,384	0,435 [herena]	0,051
13 Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	0,431	0,422 [herena]	-0,009
14 Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	0,539	0,317 [herena]	-0,222
15 Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	0,376	0,313	-0,063
16 Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,349	0,312 [herena]	-0,037
17 Jatorria [tr]	0,326	0,264	-0,062
18 Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	0,287	0,248 [herena]	-0,039
19 Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	0,179	0,230 [herena]	0,051
20 Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	0,354	0,181 [herena]	-0,173
21 Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,123	0,109	-0,014
22 Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	0,156	0,141 [herena]	-0,015
23 Ikaslearen ISEK maila	0,102	0,087	-0,015
24 Ikastetxearen ISEK maila	0,095	0,086	-0,009

### 5.1.3.KORRELAZIOAK IRAKASTEREDUKA (2015)

Azpiatal honetan, aldagai askeek ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* duten korrelazioa aztertzen da, ikasleak beren *irakastereduaren* arabera banatuta, 2015eko datuetan oinarrituz; lehenik LMH4ko ikasleentzat eta ondoren DBH2koentzat.

Bi ikasmailetan D ereduan ikasten duten ikasleen korrelazioak antzekoagoak dira ikerketaren unibertso osoko korrelazioekin alderatzen baditugu (tauletan, “guztira” zutabea), bai korrelazioaren intentsitateari dagokionez eta baita aldagaien ordenari dagokionez ere. LMH4n, esate baterako, D ereduan korrelaziorik altuena duen aldagaiak (*erabilera lagunekin txateatzen*) 0,558ko korrelazioa du, eta unibertso osoan aldagai berak 0,572koa. Bestalde, A eta B ereduetan korrelaziorik altuena duen aldagaiak –*erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*–, hurrenez hurren, 0,421eko eta 0,364ko korrelazioak dituenak, D ereduan korrelaziorik altuena duenak baino korrelazio apalagoa erakusten du, eta horrez gain, nahiko urrun geratzen da aldagai horrek berak D ereduan lortzen dituen balioetatik (0,529) eta baita ikasleko osoarentzat lortzen duenetik ere (0,567).

Antzera gertatzen da DBH2n ere: D ereduko ikasleen artean korrelaziorik altuena 0,727koa da (unibertso osoko aldagai korrelazionatuenaren maila bertsuan) eta aldiz, A eta B ereduetan, altuenak 0,436 eta 0,419koak dira, hurrenez hurren. Ulergarria da hori, kontuan hartzen badugu, batetik D ereduan biltzen dela ikaslerik gehien (alde handiz), eta bestetik, irakasteredu horretan dagoela aniztasunik handiena ikasleen ezaugarri soziolinguistiko askori dagokionez. Horrez gain, eta ildo beretik, D ereduan, aztertutako aldagai guztiek korrelazio estatistikoki adierazgarriak dituzten bitartean, ez da gauza bera gertatzen B eta A ereduetan, kasurik nabarmenena LMH4ko A ereduko ikasleen kasua izanik: aztertutako 16 aldagaietatik 8k ez dute korrelazio adierazgarririk *eskolako erabilera orokorrarekin*.

Irakastereduka, D ereduan, aipatzekoa da *erabilera lagunekin txateatzean* aldagaiaren korrelazioa dela altuena bi ikasmailetan, *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]* bigarren aldagaiarekiko alde txikiz bada ere. Hirugarren lekuan *etxeko erabilera [tr]* aldagaia kokatzen da, hau ere bi ikasmailen kasuan. Horrez gain, *eremu soziolinguistikoa* aldagaia DBH2n laugarren lekuan kokatzen da, LMH4n bosgarren lekura jaisten delarik, laugarren lekua utziz *begikotasuna euskara-gaztelania [tr]* aldagaiari.

B ereduan *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]* aldagaiak du korrelaziorik estuena eta bigarren tokian *irakasleen erabilera haien artean* dugu, bai ikasmaila batean eta bai bestean. Bigarren aldagai hori, B ereduaren baitan euskararen erabilerrari arreta eta denbora gehiago edo gutxiago eskaintzen dioten ikastetxeen arteko bereizgarri izan liteke. Hirugarren lekuan, bi ikasmailetan *etxeko erabilera [tr]* kokatzen da.

A ereduko ikasleen artean ere *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]* aldagaiak du korrelaziorik estuena, hala ikasmaila batean nola bestean. Bigarren kokatzen den aldagaia ere berdina da LMH4ko kasuan (*irakasleen erabilera haien artean*), baina ez DBH2n; ikasmaila horretan *erabilera lagunekin txateatzean* aldagaia kokatzen da bigarren tokian, eta aldiz aldagai horrek ez du korrelazio adierazgarririk LMH4n. Kasu honetan ere, hirugarren lekuan *etxeko erabilera [tr]* aldagaia dugu, bi ikasmailetan.

47. TAULA: ALDAGAI ASKEEN ETA IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREN ARTEKO KORRELAZIOAK, IRAKASTEREDUKA 2015. LMH4 (\*)

	LMH4 2015	GUZTIRA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
1	Erabilera lagunekin txateatzean	0,572		0,323 (4)	0,558 (1)
2	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,567	0,421 (1)	0,364 (1)	0,529 (2)
3	Etxeko erabilera [tr]	0,547	0,159 (3)	0,337 (3)	0,503 (3)
4	Irakasleen erabilera haien artean	0,523	0,303 (2)	0,348 (2)	0,433 (7)
5	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,502		0,293 (5)	0,454 (4)
6	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,488		0,289 (6)	0,426 (8)
7	Lehen hizkuntza	0,486		0,233 (8)	0,437 (6)
8	Eremu soziolinguistikoa	0,433	-0,107 (6)	0,114 (12)	0,442 (5)

9	Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	0,405		0,179 (10)	0,325 (9)
10	Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	0,340	0,114 (4)	0,234 (7)	0,210 (11)
11	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,284		0,116 (11)	0,207 (12)
12	Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	0,274		0,211 (9)	0,111 (16)
13	Jatorria [tr]	0,202		0,111 (13)	0,167 (13)
14	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,066	-0,113 (5)		0,158 (14)
15	Ikaslearen ISEK maila	0,030	-0,091 (7)		0,133 (15)
16	Ikastetxearen ISEK maila	0,028	-0,089(8)	0,056 (14)	0,225 (10)

\*Hutsik daudenak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Parentesi artean dagoen zenbakia da aldagai horrek zutabearen duen lekua, korrelaziorik altuena dutenetatik baxuena dutenetara ordenatuta.

48. TAULA: ALDAGAI ASKEEN ETA IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREN ARTEKO KORRELAZIOAK, IRAKASTEREDUKA 2015. DBH2 (\*)

	DBH2 2015	GUZTIRA	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
1	Erabilera eskolaz kanpoko jardura antolatuetan [tr]	0,722	0,436 (1)	0,419 (1)	0,707 (2)
2	Erabilera lagunekin txateatzean	0,704	0,250 (2)	0,280 (7)	0,727 (1)
3	Etxeko erabilera [tr]	0,669	0,194 (3)	0,328 (3)	0,637 (3)
4	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,586	0,109 (15)	0,295 (6)	0,551 (5)
5	Lehen hizkuntza	0,584	0,150 (7)	0,222 (9)	0,524 (6)
6	Eremu soziolinguistikoa	0,583		0,055 (21)	0,622 (4)
7	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,563	0,187 (4)	0,326 (4)	0,513 (7)
8	Irakasleen erabilera haien artean	0,522	0,148 (9)	0,392 (2)	0,377 (8)
9	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,452	0,117 (10)	0,252 (8)	0,340 (10)
10	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,435	0,162 (5)	0,197 (11)	0,375 (9)
11	Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,422	0,116 (11)	0,211 (10)	0,320 (11)
12	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,317	0,150 (8)	0,085 (19)	0,259 (12)
13	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,313	0,076 (16)	0,126 (14)	0,225 (13)
14	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,312	0,157 (6)	0,306 (5)	0,089 (22)
15	Jatorria [tr]	0,264			0,156 (15)
16	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	0,248		0,133 (13)	0,179 (18)
17	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	0,230	0,115 (12)	0,111 (16)	0,194 (14)
18	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-ingelesa [tr]	0,181	0,109 (13)	0,067 (20)	0,122 (19)
19	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,109		0,092 (17)	0,143 (17)
20	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	0,141	0,106 (15)	0,147 (12)	0,096 (21)
21	Ikaslearen ISEK maila	0,087		0,086 (18)	0,113 (20)
22	Ikastetxearen ISEK maila	0,086	0,018 (16)	0,114 (15)	0,155 (16)

\*Hutsik daudenak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Parentesi artean dagoen zenbakia da aldagai horrek zutabearen duen lekua, korrelaziorik altuena dutenetatik baxuena dutenetara ordenatuta.

#### 5.1.4.KORRELAZIOAK ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAREKIN ETA BERAU OSATZEN DUTEN ALDAGAIKIN

Jarraian gure arreta eskainiko diogu aldagai askeek ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* dituzten korrelazioei eta baita, erabilera orokor hori eraikitzeke baliatu ditugun *eskolako erabilera zehatzekin* dituztenei ere. Asmo bikoitzarekin eginiko analisisia da hau: batetik, *eskolako lau erabilera xehe horietako* bakoitzak aldagai askeekin dituen loturen sendotasunak aztertzeke, eta bestetik, erabilera xeheekin aldagai askeek dituzten harremanetan nolako aldeak dauden arakatzeko.

*Eskola erabilera orokorra [tr]* aldagaia osatzen duten erabilera xehe mota bakoitzari esleitu zaion pisuak baldintzatzen du, halaberharrez, azkeneko erabilera horiek lehenbizikoarekin duten korrelazioa. Horrela, *ikaskideekin jolaslekuan* erabilera da korrelazio altuen duena bi ikasmailetan (0,876 LMH4n eta 0,894 DBH2n), *eskola erabilera orokorra [tr]* aldagaiaren osagai gisa pisurik handiena eman zaiolako (%40). Beraz, erabilera *ikaskideekin jolaslekuan* aldagaiak *eskola erabilera orokorra [tr]* aldagaian hain pisu handia izanik, LMH4n, aldagai askeen korrelazioek hurrenkera bera dute bi aldagai horiekin egindako analisisietan, eta, DBH2n, korrelazioen arabera aldagai askeak bi kasuetan berdin-berdin ordenatzen ez diren arren, antzekotasun handia dago horien hurrenkeran. Beste muturrean dago erabilera *irakasleekin gelatik kanpo* aldagaia korrelazio txikienarekin (0,689 LMH4n eta 0,768 DBH2n), zeinari %15eko pisua esleitu zitzaion. Eskolako beste bi erabilera xeheak aurreko bi aldagaien artean daude haztatzean esleitu zaien pisuaren aldetik eta, horren ondorioz, *eskola erabilera orokorra [tr]* aldagaiarekin dituzten korrelazioen balioei dagokienez ere (zehaztasunez ikusteko jo metodologia atalera).

Aldagai askeek *eskola erabilera orokorra [tr]* aldagaiarekin eta beste lau aldagai xeheekin dituzten korrelazioen azterketak, bestalde, emaitza interesgarri batzuk eskaintzen dizkigu (ikus ondorengo 49. eta 50. taulak). Erabilera *ikaskideekin jolaslekuan* aldagaiaren kasuan bi aldagai aske dute lotura ahulagoa *eskola erabilera orokorra [tr]* aldagaiaren kasuan baino, LMH4n zein DBH2n; aldagai horiek dira *hizkuntza eredia* eta *irakasleen erabilera haien artean*. Horrekin batera, erabilera *ikaskideekin jolaslekuan* aldagaiekin erlatiboki pisu gehiago hartzen duten bi aldagaiak *erabilera lagunekin txateatzean* eta *etxeko erabilera [tr]* dira, hau da, eskolatik kanpoko baldintzak islatzen dituzten bi aldagai. Badirudi hortaz, jolaslekuko ikasleen hizkuntza-portaera lotuagoa dagoela eskolatik kanpoko baldintzei zuzenean eskolari dagozkionei baino.

Oso bestelakoa da ikasleek irakasleekin duten hizkuntza-portaera, aldagai askeek *eskolako erabilera orokorrarekin [tr]* eta berau osatzen duten aldagai bakoitzarekin erakusten dituzten korrelazioen garrantziari erreparatuz gero. *Irakasleen erabilera haien artean* aldagaiaren pisua erabat sendotzen da *irakasteredia* aldagaiak duen pisua berdinduz edo horren gainetik jarritz, ikasleek irakasleekin dituzten bi erabilera motetan: *irakasleekin gelan* eta *irakasleekin gelatik kanpo*. Aldiz, *erabilera lagunekin txateatzean* eta *eremu soziolinguistikoa* aldagaien garrantzia ahultzen da, bi erabilera horietan (LMH4n *eremu soziolinguistikoa* horietako batean soilik: *irakasleekin gelan*). Hortaz, erabilera *ikaskideekin jolaslekuan* aldagaiaren kasuan ez bezala, irakasleekiko bi erabileretan, ikastetxearen baldintzen garrantzia areagotzen da eta eskolaz kanpokoena berriz, arindu, bai LMH4n eta bai DBH2n.

49. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAK ETA BERAU OSATZEN DUTEN ALDAGAIEN BESTE ALDAGAI ASKEEKIN DITUZTEN KORRELAZIOAK 2015. LMH4 (\*)

LMH4	ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA [TR]	Ikaskideekin gelan	Ikaskideekin jolastokian	Irakasleekin gelan	Irakasleekin gelatik kanpo
ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA [TR]	1	0,812	0,876	0,71	0,689
1 Irakasteredua	0,612	0,571 (1)	0,445 (8)	0,551 (1)	0,434 (2)
2 Erabilera lagunekin txateatzean	0,572	0,403 (2)	0,624 (1)	0,273 (6)	0,352 (5)
3 Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,567	0,376 (3)	0,566 (3)	0,317 (3)	0,373 (3)
4 Etxeko erabilera [tr]	0,547	0,374 (4)	0,570 (2)	0,286 (4)	0,369 (4)
5 Irakasleen erabilera haien artean	0,523	0,366 (5)	0,392 (10)	0,477 (2)	0,511 (1)
6 Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,502	0,355 (6)	0,505 (4)	0,283 (5)	0,339 (7)
7 Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,488	0,350 (7)	0,502 (5)	0,263 (7)	0,307 (8)
8 Lehen hizkuntza	0,486	0,321 (8)	0,501 (6)	0,255 (8)	0,342 (6)
9 Eremu soziolinguistikoa	0,433	0,289 (9)	0,484 (7)	0,185 (13)	0,291 (9)
10 Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,405	0,270 (10)	0,398 (9)	0,245 (9)	0,281 (10)
11 Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,340	0,261 (11)	0,303 (11)	0,243 (10)	0,238 (12)
12 Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,284	0,228 (12)	0,216 (13)	0,217 (12)	0,267 (11)
13 Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,274	0,224 (13)	0,221 (12)	0,222 (11)	0,214 (13)
14 Jatorria [tr]	0,202	0,158 (14)	0,155 (14)	0,179 (14)	0,169 (14)
15 Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,091	0,065 (15)	0,058 (16)	0,065 (15)	0,133 (15)
16 Ikastetxearen ISEK maila	0,066	0,019 (16)	0,081 (15)	0,020 (16)	0,068 (16)
17 Ikaslearen ISEK maila	0,030		0,033 (17)	0,010 (17)	0,050 (17)

(\*) Hutsik daudenak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Parentesi artean dagoen zenbakia da aldagai horrek zutabearen duen lekua, korrelaziorik altuena dutenetatik baxuena dutenetara ordenatuta.

50. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRAK ETA BERAU OSATZEN DUTEN ALDAGAIEN BESTE ALDAGAI ASKEEKIN DITUZTEN KORRELAZIOAK 2015. DBH2 (\*)

DBH2	ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA [TR]	Ikaskideekin gelan	Ikaskideekin jolastokian	Irakasleekin gelan	Irakasleekin gelatik kanpo	
	<b>ESKOLA ERABILERA OROKORRA [TR]</b>	<b>1</b>	<b>0,891</b>	<b>0,894</b>	<b>0,744</b>	<b>0,768</b>
1	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,722	0,643 (1)	0,724 (2)	0,433 (3)	0,479 (3)
2	Erabilera lagunekin txateatzean	0,704	0,614 (2)	0,780 (1)	0,345 (8)	0,41 (7)
3	Etxeko erabilera [tr]	0,669	0,568 (3)	0,694 (3)	0,391 (4)	0,459 (4)
4	Irakasteredua	0,604	0,508 (5)	0,397 (10)	0,649 (1)	0,620 (1)
5	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,586	0,495 (6)	0,573 (7)	0,386 (5)	0,433 (5)
6	Lehen hizkuntza	0,584	0,489 (7)	0,583 (6)	0,369 (6)	0,43 (6)
7	Eremu soziolinguistikoa	0,583	0,513 (4)	0,652 (4)	0,267 (15)	0,337 (10)
8	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,563	0,480 (8)	0,588 (5)	0,325 (10)	0,374 (8)
9	Irakasleen erabilera haien artean	0,522	0,405 (9)	0,351 (12)	0,568 (2)	0,560 (2)
10	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,452	0,389 (10)	0,411 (9)	0,327 (9)	0,362 (9)
11	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,435	0,372 (11)	0,418 (8)	0,294 (14)	0,326 (12)
12	Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,422	0,364 (12)	0,395 (11)	0,303 (13)	0,316 (14)
13	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,317	0,259 (13)	0,304 (13)	0,223 (16)	0,248 (16)
14	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,313	0,237 (15)	0,236 (15)	0,305 (12)	0,324 (13)
15	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,312	0,258 (14)	0,193 (17)	0,360 (7)	0,329 (11)
16	Jatorria [tr]	0,264	0,195 (18)	0,172 (19)	0,309 (11)	0,287 (15)
17	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	0,248	0,211 (16)	0,238 (14)	0,164 (18)	0,194 (18)
18	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	0,230	0,198 (17)	0,232 (16)	0,139 (19)	0,164 (19)
19	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,181	0,167 (19)	0,175 (18)	0,120 (21)	0,117 (23)
20	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,109	0,066 (21)	0,058 (21)	0,144 (17)	0,157 (17)
21	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	0,141	0,116 (20)	0,120 (20)	0,116 (22)	0,125 (20)
22	Ikaslearen ISEK maila	0,087	0,044 (23)	0,049 (23)	0,122 (20)	0,122 (21)
23	Ikastetxearen ISEK maila	0,086	0,050 (22)	0,053 (22)	0,110 (23)	0,112 (22)

(\*) Parentesi artean dagoen zenbakia da aldagai horrek zutabearen duen lekua, korrelaziorik altuena dutenetatik baxuena dutenetara ordenatuta.



## 5.2. ERREGRESIO ANIZKOITZAREN ANALISIA

### 5.2.1. ERREGRESIO BIDEZKO ANALISIETARAKO ERABILITAKO ALDAGAIK

Orain arte aldagai aske bakoitzak, banaka hartuta, *eskolako erabilera orokorrarekin* zer-nolako harremana duen aztertu dugu. Baina aztergai dugun fenomeno hori (ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera), ekintza sozial guztiak bezala, fenomeno konplexua da eta ezin daiteke aldagai bakar batez azaldu. Aintzat hartu ditugun aldagaietako asko (eta akaso neurtu ez diren besteren batzuk) elkar lotuta daude eta horien arteko multzo egoki bat kontuan hartuz soilik hurbildu gintezke ikasleen *eskolako erabilera orokorra* sakon ezagutzera.

2011n azterketa bera egin zen. Orduan erabilitako aldagai zerrenda ez zen izan orain erabilitako berbera, nahiz eta oso antzeko zen. 2011n *Ahozko gaitasun erlatiboa euskara-gaztelania* erabili ahal izan zen, oraino ez duguna. Aldiz, azterketa honetan *Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]*, *Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]*, *Euskarazko hizkuntza-kompetentzia*, *Errendimendu akademikoa batez beste [tr]* eta *Ikaslearen ISEK maila* ere sartu ditugu.

Beheko taulan adierazten da lan honetan 2015eko erregresio analisietarako erabili den aldagai askeen multzoa: mendeko aldagaia, korrelazio analisisetan bezala, ikasleen *eskolako erabilera orokorra* izan da, eta aldagai hori azaltzeko hamabost aldagai askeko multzoa erabili da LMH4ko analisisetan, eta hogeita bat aldagaikoa DBH2koetan. Analisi horien emaitzak 5.2.2 atalean azaltzen dira jarraian, LMH4ko ikasleentzat lehenik eta ondoren DBH2koentzat.

Taula horretako bederlatzi aldagaiaren kasuan, aldagaiaren izenaren ondoan [tr] bereizgarria ageri da. Aldagai «trinkoak» edo konbinatuak direla adierazi nahi da horrekin, azterketa honetan baliatutako aldagai bat baino gehiago konbinatuz kalkulaturikoak, hain zuzen. Aldagai trinko horien osaketaren azalpena ohar metodologikoetan ikus daiteke.

Gorago aipatu dugun moduan, 2015eko datuekin eginiko azterketaz gain, bai ikaslego osoarentzat eta bai irakasteredu bakoitzekoentzat, alderaketa bat egin da 2011n eginiko erregresio analisiaren eta 2015ean eginikoaren artean, bi urteetako datuekin, eta horren emaitzak 5.2.3 atalean jasotzen dira. Bi aldagai-multzo baliatu dira alderaketa hori egiteko; lehenik “eredu zaharra” bezala izendatu duguna, 2011ko analisisien aldagai berdina baliatuz eginikoa,<sup>36</sup> eta ondoren “eredu berria” deitu duguna, aurreko ereduari launa aldagai gehitzen dizkiona ikasmaila bakoitzean.

<sup>36</sup> Gorago aipatu den *ahozko gaitasun erlatiboa* aldagaiaren salbuespenarekin. Aldagai horren informaziorik ez da jaso 2015ean, eta beraz alderaketa egiteko 2011ko ereduak (“eredu zaharra”) kendu egin da.

51. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISIETAN ERABILITAKO ALDAGAIK 2015. LMH4 ETA DBH2

1	Irakasteredua	
2	Lehen hizkuntza	
3	Jatorria [tr]	
4	Etxeko erabilera [tr]	
5	Eremu soziolinguistikoa	
6	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	
7	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	
8	Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	
9	Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	
10	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	
11	Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	
12	Ikaslearen ISEK maila	
13	Irakasleen erabilera haien artean	
14	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	
15	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	
16	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	(DBH2n soilik)
17	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	(DBH2n soilik)
18	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	(DBH2n soilik)
19	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	(DBH2n soilik)
20	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	(DBH2n soilik)
21	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	(DBH2n soilik)

## 5.2.2. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISI OROKORRA

Aipatu bezala, nahiz eta erregresio ereduan sartutako aldagai zerrenda 2011koaz alderatuta, ez den guztiz berdina, orduko erregresio-ereduaren emaitzak 2015eko emaitzekin alderatu ditugu eta emaitzak oso antzekoak izan dira (ikus xehetasunak 5.2.3 atalean). Ondorioz, orduko erregresio anizkoitzerako esandako gehienak orain ere berresten dira, bildutako informazioaren zein urteetan zehar sortutako ereduaren sendotasuna erakutsiz.

2015 analisian, 2011n egindako azterketaz gain, azterketa bera errepikatu da irakasteredu bakoitzerako. Beheko taulan ikus daitezke LMH4ko emaitza orokorrak eta ikasmaila bereko irakasteredu bakoitzarena.

### ERREGRESIO ANALISIA LMH4N

LMH4ko ikasleen unibertso osoarekin osatutako erregresio-ereduak mendeko aldagaiaren, *eskolako erabilera orokorraren*, %63,3 azaltzeko ahalmena du. Horretarako hamabi aldagaien datuak darabiltza.

*Irakasteredua* da erregresio ereduko lehen aldagaia. Jarraian, *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan*, *irakasleen erabilera haien artean*, *Euskara-Gaztelania begikotasuna* eta *eremu soziolinguistikoa* sartu dira. Bost aldagai hauen artean %62,1eko azalpen maila lortzen da. Ondorengo aldagaiek egiten duten ekarpen osagarria txikia da, aipatutako bost hauek azaltzen dutenarekin alderatuz gero.

Aipatutako bost aldagai esanguratsuenen artetik bi (lehena eta hirugarrena) eskolako baldintza linguistikoei zuzenean lotuta daude. Eredu estatistikoko bigarren eta bosgarren aldagaiak, berriz, eskolaz kanpo, ikaslearen herrian bizi diren baldintza soziolinguistikoaren isla dira, neurri batean. Laugarren aldagaiak, ikasleek euskararekiko eta gaztelaniarekiko dituzten jarrerak adieraz ditzake. Etxeko edo familiako baldintzei zuzenean erreferentzia egiten dieten aldagaiak ez dira lehen tokietan sartu erregresio ereduan. *Etxeko erabilera* zortzigarren lekuan sartu da, *jatorria* ereduaren bederatzigarrenean eta *lehen hizkuntza* hamaikagarrenean. *Euskara-Ingelesa* zein *Euskara-Gaztelania* erraztasuna ereduan sartu dira, baina hamargarren eta hamabigarren lekuetan, hurrenez hurren, eta azalpen maila nahiko txikiarekin. *Ikaslearen ISEK maila*, *Begikotasuna Euskara-Ingelesa* eta *Errendimendu akademikoa batez beste* eredutik kanpo geratu dira.

Ikasleak irakastereduka bereizita eta erregresio analisisa ereduak berreginez lortutako emaitzak aztertuta, lehen irakurketa zera da, irakasteredu gero eta euskaldunagoa erregresio ereduak gehiago azaltzeko gaitasuna irabazten du. Horrela A irakastereduan %26,7a azaltzen du erregresio ereduak, B ereduan %36,0 eta D ereduan %47,2. Emaitza hauek argi adierazten dute ere, eredu orokorrarekin alderatuta, erregresio eredutik *irakasteredua* aldagaia kentzean, erregresio ereduaren azalpen gaitasuna nabarmen jaisten dela espero zitekeen bezala, LMH4ko unibertso osoarekin egindako kalkuluan aldagai hori garrantzitsuena delako.

Era berean, analisi estatistikokoak eredu bakoitzeko aintzat hartu dituen aldagaien kopuruak ere behera egin du hiru kasuetan; horrela, A ereduan hiru aldagai baino ez ditu sartu, eta zortzina aldagai B eta D ereduatan.

Hiru hizkuntza ereduarentako ekarpen handien egiten duen aldagaiak *Erabilera eskolaz kanpoko jardueraren antolatuetan [tr]* da. Hiruretan lehen lekuan ageri da. Hiruretan ere, bigarren aldagaiak *Irakasleen erabilera haien artean* da. *Irakastereduaren* ondoren, bi aldagai horiek direnez LMH4 osoan ere *eskolako erabilera orokorra* azaltzeko ahalmen handiena dutenak, argi gelditzen da beren garrantzia kasu guztietan eta irakasteredua edozein izanda ere.

Esandako bi aldagai horiez gain A ereduaren ikasleen erregresio-analisan sartu den aldagai bakarra hauxe da: ikastetxea kokatuta dagoen udalerriko euskaldunen proportzioa (*eremu soziolinguistikoa* aldagaiak). Sortu den eredu estatistikoan deigarria da aldagai mota batzuk sartu ez izana, hala nola familiarenak edota ikasleenak beraienak. Are aipagarriagoa da, hala ere, eredu estatistikoaren ahulezia esplikatiboa (%26,7), *eskolako erabilera orokorrerako* zergatien hiru laurdenak azaldu gabe uzten baititu. Alegia, erabilera horren zatirik handienaren zergatia bilatu beharko litzateke gure ikerlan honetan aintzat hartu izan ez diren bestelako aldagaietan.

B irakastereduko analisiak *eskolako erabilera orokorraren* herena azaltzen du, eta sortutako erregresio-ereduak aldagai mota zabalagoa hartzen du aintzat -eredu guztientzat nagusitzen diren bi aldagaietaz gain-, familiakoak (hizkuntza-erabilera zein jatorria) eta ikaslerenak barne (hizkuntza begikotasuna, hizkuntza zailtasuna eta euskarazko hizkuntza-kompetentzia, esaterako). Hala ere, A ereduaren analisan sartu den *eremu soziolinguistikoa* aldagaiak, orain erregresio-eredutik at gelditu da.

D eredurako lanketa estatistikoan, erregresio-ereduak *eskolako erabilera orokorraren* ia erdia azaltzera iritsi da (%47,2), eta baliatzen dituen zortzi aldagaietatik sei B ereduan izan dira dagoeneko erabiliak, baina beste bi uzten ditu kanpoan: familia erabilera eta erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa. Hala ere, B ereduan ez bezala, beste bi aldagai baliatzen ditu: bata A ereduan ere agertu zen (*eremu soziolinguistikoa*) eta bestea berria (*erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania*).

Errepara diezaiegun, azkenik, erregresio-analisiak hiru irakastereduetan kanpoan utzi dituen aldagaiak. Baliatutako hamabost aldagaietatik A ereduaren kalkuluetan hamabi aldagai gelditu dira at; B eta D ereduetan zazpina aldagai, baina ez berberak. Hiru dira hiru irakastereduetako analisisetan kanpo gelditu diren aldagaiak: ikaslearen maila sozioekonomikoa (ISEK), *lehen hizkuntza* eta batez besteko errendimendu akademikoa.

52. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISA. 2015. LMH4 OROKORRA ETA IRAKASTEREDUKA

Ordena	Ikasle guztiak	R <sup>2</sup>	A eredia	R <sup>2</sup>	B eredia	R <sup>2</sup>	D eredia	R <sup>2</sup>
1	<b>Hizkuntza eredia</b>	0,350	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,181	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,167	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,291
2	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,519	Irakasleen erabilera haien artean	0,24	Irakasleen erabilera haien artean	0,271	Irakasleen erabilera haien artean	0,387
3	Irakasleen erabilera haien artean	0,582	Eremu soziolinguistikoa	0,267	Etxeko erabilera [tr]	0,326	Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,429
4	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,609			Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]	0,339	Eremu soziolinguistikoa	0,457
5	Eremu soziolinguistikoa	0,621			Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	0,349	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,464
6	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,626			Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,353	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,470
7	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,629			Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,357	Jatorria [tr]	0,472
8	Etxeko erabilera [tr]	0,631			Jatorria [tr]	0,360	Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]	0,472
9	Jatorria [tr]	0,631						
10	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,632						
11	Lehen hizkuntza	0,632						
12	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,633						
<b>Eredu estatistikotik kanpo geratutako aldagaiak</b>								
	Ikaslearen ISEK maila		Ikaslearen ISEK maila		Ikaslearen ISEK maila		Ikaslearen ISEK maila	
	Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Etxeko erabilera [tr]		Lehen hizkuntza		Etxeko erabilera [tr]	
	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]		Lehen hizkuntza		Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]		Lehen hizkuntza	
			Erraztasuna-zailtasuna euskara-gaztelania [tr]		Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]		Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]	
			Erraztasuna-zailtasuna euskara-ingelesa [tr]		Eremu soziolinguistikoa		Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]	
			Begikotasuna euskara-gaztelania [tr]		Errendimendu akademikoa batez beste [tr]		Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	
			Begikotasuna euskara-ingelesa [tr]					

			Jatorria [tr]				
			Euskarazko hizkuntza-konpetentzia				
			Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]				
			Errendimendu akademikoa batez beste [tr]				

## ERREGRESIO ANALISIA DBH2N

DBH2n osatutako erregresio ereduak mendeko aldagaiaren, ikasleen eskolako erabilera orokorraren, %77,0 azaltzeko ahalmena du. Horretarako hamahiru aldagaien datuak darabiltza.

*Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* aldagaia da erregresio-ereduko lehen aldagaia DBH2ko unibertso osoko kalkulu estatistikoan. Baita irakastereduka erregresioak egitean ere. Alegia, LMH4n ez bezala, esandako aldagaia *irakasteredua* aldagaiaren aurretik gelditzen da unibertso osoarentzat. Jarraian, *irakasteredua*, *etxeko erabilera* eta *irakasleen erabilera beraien artean* ditugu. Lau aldagai hauen artean %73,7ko azalpen maila lortzen da. Hortik aurrerako aldagaiek ereduari egiten dioten ekarpen osagarria txikia da, aipatutako lau horiek azaltzen dutenarekin alderatzen badugu.

Aipatutako lau aldagai esanguratsuenen artetik bi (bigarrena eta laugarrena) eskolako baldintza linguistikoei dagozkie zuzenean. Ereduko lehenengo eta bosgarren aldagaiak (*eremu soziolinguistikoa*) berriz, eskolaz kanpo, ikastetxearen herrian bizi diren baldintza soziolinguistikoaren isla dira, neurri batean. Etxeko edo familiako baldintzei dagokienez, *etxeko erabilera* aldagaia ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* loturarik handiena duten hiruen artean dugu, DBH2ko ikasleriarentzat.

Gorago adierazi den moduan, DBH2ko analisisian, LMH4koan erabili ez diren 6 aldagai txertatu dira, *Zein hizkuntza doakie hobeto...?* atalekoak, hain zuzen. Sei aldagai horietatik hiruk ez diote ereduaren azalpen gaitasunari ekarpenik egiten eta, hortaz, estatistikoki kanpoan geratu dira. Beste hiru dira modu horretan ereduaren sartzen diren aldagaiak, hirurak ere ikasleriaren hizkuntza-irudikapen soziolinguistikoei lotuak: hezkuntzaren, familiaren eta lagun-taldearen irudikapenei dagozkienak. Ereduestatistiko orokorrean azalpenik gehien eskaintzen duten lehen bi aldagaiak eskolaz kanpoko erabilera eta irakasteredua dira. Hortaz, pentsa izatekoa da, ereduaren beren ekarpen txoa egiten duten bi irudikapen horiek (hezkuntzarena eta lagun-taldearena), pisurik gehien duten beste bi aldagai horiei lotuta egongo direla.

Analisisian erabilitako 21 aldagietatik 8 geratu dira eredu estatistikotik kanpo, ez baitiote auresate edo azalpenari gainerakoek egiten dioten ekarpenari ezer gehitzen. Gehienak harremana dute hizkuntzen artean izan ditzaketen Erraztasuna-Zailtasunekin (*Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania*, *Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa*) eta ikasleek dituzten hizkuntzen gaineko irudikapenei lotutako aldagaiak dira (zein hizkuntza doakie hobeto... hitzaldiak; lan-mundua eta IKT).

DBH2ko erregresio ereduak irakastereduka aztertuta, LMH4n bezala, irakasteredua gero eta euskaldunagoa izan erregresio ereduak gero eta gehiago azaltzeko gaitasuna du. A eredurako %23,6a azaltzen du, B ereduaren %37,5 eta D ereduaren %69,4. DBH2n *irakasteredua* bigarren aldagaia izateak, aldagai hori neutralizatuz hizkuntza ereduka erregresioak egiten direnean, haien azalpen gaitasuna D ereduaren LMH4n bezain beste ez jaitea eragiten du, baina A eta B ereduaren kasu honetan ere azalpen gaitasunaren jaitsiera nabarmena da eta erregresio ereduaren bitartez bi eredu hauetan lortzen den *eskolako erabilera orokorraren* azalpena oso mugatua da

DBH2n ere, zatirik handiena azaldu gabe geratzen delarik. D ereduan aldiz, azalpen-maila nabarmen altuagoa da eta unibertso osoarentzat lortzen denetik 7,6 puntura geratzen da (%69,4 eta %77,0). Azterketarako baliatu diren aldagaiak, beraz, DBH2ko D ereduko ikasleen eskolako erabilera azaltzeko dira emankorren, eredu bereko LMH4ko ikasleen eta beste bi ereduetako bi ikasmailetako emaitzak nabarmen apalagoak izanik.

Aldagaien xehetasunari erreparatuz, azkenik, hiru irakastereduentzat *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* da aldagai nagusia, eta bigarrena A eta B ereduetan *Irakasleen erabilera haien artean* (D ereduan hirugarrena da). A ereduan *jatorria* da hirugarren aldagaia, B ereduan aldiz, *etxeko erabilerak* pisua hartzen du eta *jatorria* ez da ageri B eta D ereduko erregresio kalkuluetan.

Hiru ereduetako erregresioetan estatistikoki kanpoan geratzen diren aldagaiak lau dira, bi euskara-ingelesa alderaketarekin loturikoak (erraztasuna-zailtasuna eta begikotasuna), *euskarazko hizkuntza-kompetentzia* eta ikasleen irudikapenei loturiko aldagaietako bat (*Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT*).

53. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISIA. 2015. DBH2 OROKORRA ETA IRAKASTEREDUKA

Ordena	Ikasle guztiak	R <sup>2</sup>	A eredia	R <sup>2</sup>	B eredia	R <sup>2</sup>	D eredia	R <sup>2</sup>
1	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,536	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,167	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,196	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,507
2	<b>Hizkuntza eredia</b>	0,654	Irakasleen erabilera haien artean	0,194	Irakasleen erabilera haien artean	0,293	Eremu soziolinguistikoa	0,595
3	Etxeko erabilera [tr]	0,705	Jatorria [tr]	0,210	Etxeko erabilera [tr]	0,326	Irakasleen erabilera haien artean	0,640
4	Irakasleen erabilera haien artean	0,737	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,223	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,348	Etxeko erabilera [tr]	0,675
5	Eremu soziolinguistikoa	0,757	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	0,236	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,358	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,685
6	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,763			Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,365	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,688
7	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,765			Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,369	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,691
8	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,767			Ikaslearen ISEK maila	0,373	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,692
9	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,768			Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	0,375	Lehen hizkuntza	0,693
10	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,769					Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,694
11	Lehen hizkuntza	0,769						
12	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,769						
13	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,770						
<b>Eredu estatistikotik kanpo geratutako aldagaiak</b>								
	Ikaslearen ISEK maila		Ikaslearen ISEK maila		Lehen hizkuntza		Ikaslearen ISEK maila	
	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]		Etxeko erabilera [tr]		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	
	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Lehen hizkuntza		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	
	Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	
	Jatorria [tr]		Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]		Jatorria [tr]		Jatorria [tr]	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak		Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Euskarazko hizkuntza-konpetentzia		Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	



	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua		Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	Eremu soziolinguistikoa		Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza
	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT		Eremu soziolinguistikoa	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]		Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak
			Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea		Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua
			Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua		Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT
			Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT		
			Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea			
			Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza			
			Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak			
			Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT			

**LMH4KO ETA DBH2KO ERREGRESIO BIDEZKO ANALISIEN ARTEKO ALDERAKETA:**

DBH2n, bi kasutan du erregresio ereduak mendeko aldagaia auresateko ahalmen handiagoa LMH4n baino; zehatzago esanda, ikasmaila horietako unibertso osoekin eta D ereduko ikasleekin. Hau da, erabili ditugun aldagaietan informazio baliagarriagoa dago DBH2ko *ikasleen eskolako erabilera orokorra* auresateko bi kasu horietan, LMH4ko kasu berdinetan auresateko baino. Horrezaz gain, baliatutako aldagaiek ahulezia handia erakutsi dute A ereduko –bereziki- eta B ereduko ikasleen erabilera auresateko, bi ikasmailetan.

Bi ikasmailetak unibertso osoekin egindako analisietan, ondoko emaitzak azpimarra daitezke:

- Lehen bi aldagaiak berdinak dira LMH4 eta DBH2rako, nahiz eta kontrako ordenean ematen den: *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* eta *irakasteredua*. *Irakasleen erabilera haien artean* ere bietan ereduaren goikaldean ageri da (hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren).
- LMH4n eta DBH2n lortzen diren erregresio ereduaren arteko ezberdintasunen atalean hauxe nabarmenduko genuke: ikasleen *etxeko erabilerak* DBH2n pisu nabarmena hartzen duela (hirugarren aldagaia da ereduaren) LMH4n ekarpen oso-oso txikia egiten duen artean (zortzigarrena delarik ereduaren). Beste era batera esanda, ikasleen etxeko erabilerak, oro har, askoz gehiago azaltzen digu ikasleen eskolako erabilera orokorraz DBH2n LMH4n baino.
- Herriko euskaldunen proportzioa (*eremu soziolinguistikoa*) eta *hizkuntza begikotasuna euskara-gaztelania* aldagaiek kontuan hartzeko moduko kokapen bat lortzen dute LMH4ko eta DBH2ko erregresio ereduaren, beren ekarpena lehen mailakoa ez bada ere.
- LMH4ko erregresio nagusian kanpoan geratu diren 3 aldagaietatik bi, DBH2n ere kanpoan geratu dira (*Ikaslearen ISEK maila* eta *Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]*) Hirugarrena (*Errendimendu akademikoa batez beste [tr]*) DBH2ko ereduaren sartu bada ere, azken aurrena izan da eta azalpen maila txikiarekin.

5.2.3.ERREGRESIO ANIZKOITZAREN 2011-2015 ALDERAKETA.

ERREGRESIO EREDU “ZAHARRA”<sup>37</sup>

LMH4n, 2011n zein 2015ean errepikatzen diren aldagai berberak erabilia eta 2011rako eta 2015erako lanketa bera errepikatuz, bi urte horietako emaitzen artean egindako alderaketan, %70,6tik %63,7ra jaisten da erregresio ereduaren azalpen ahalmena.

Lehen bi aldagaiak (*Irakasteredua* eta *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*) mantentzen dira urte batean eta bestean, nahiz eta 2015ean lehenengoaren azalpen maila zertxobait ahultzen den. *Irakastereduaren* azalpenerako ahalmenaren jaitsierak eragin du, neurri handian, eredu estatistikoak 2015ean duen azalpen ahalmen apalagoa. Horren zergatia bilatzen hasita, litekeena da D ereduaren hedapenarekin eta A ereduaren gutxitzearekin topo egitea; izan ere, murgiltze irakasteredu horretara –D eredura, alegia– 2015ean hurbildu diren ikasleen zati baten baldintza soziolinguistiko erdaldunagoak –famiakoak, lagunartekoak gehi bizi diren ingurunearenak- ohikoagoak ziren lehen A eredu ikasleengan gaur egun baino. Horren ondorioz, eta esandako soslai erdaldunago hori duten ikasleen zati bat urtetik urtera D eredura hurbiltzen ari denez, litekeena da horren ondorioz pixkanaka ahultzen joatea irakastereduaren lotura estatistikoa *eskolako erabilera orokorrarekin*. Alegia, D eredu *ia-unibertsal* bihurtuz doala, eta ez dituela ikasleak ingurune soziolinguistikoaren arabera lehen beste bereizten.

Bestalde, *Lehen hizkuntza* eta *Ikaslearen ISEK maila*, bi urteetako batean kanpoan geratzen dira eta bestean azalpen maila txikiena gehitzen dute, ereduak onartzen duen azkena izanik.

54. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISIA. 2011KO ALDAGAIKIN ALDERAKETA 2011-2015. LMH4

LMH4	2011	R <sup>2</sup>	2015	R <sup>2</sup>
1	Hizkuntza eredu	0,467	Hizkuntza eredu	0,365
2	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,622	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,530
3	Begikotasuna Euskara-Gaztelania 1-3 [tr]	0,658	Irakasleen erabilera haien artean	0,590
4	Irakasleen erabilera haien artean	0,681	Etxeko erabilera [tr]	0,617
5	Eremu soziolinguistiko	0,694	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,626
6	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,700	Eremu soziolinguistiko	0,632
7	Jatorria [tr]	0,703	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,635
8	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,705	Jatorria [tr]	0,636
9	Etxeko erabilera [tr]	0,706	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,637
10	Ikaslearen ISEK maila	0,706	Lehen hizkuntza	0,637
<b>Eredu estatistikotik kanpo geratutako aldagaiak</b>				
	Lehen hizkuntza		Ikaslearen ISEK maila	

<sup>37</sup> 2011n ahozko gaitasun erlatiboa aldagaia zegoen, 2015ean ez. Bestalde, eredu zaharrean ez dira sartu 2015ean eskura izan ditugun Ebaluazio Diagnostikoetan oinarritutako *Errendimendu akademikoa batez beste [Tr]* aldagaia, *Euskarazko konpetentzia akademikoa, Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [Tr]* eta *Begikotasuna Euskara-Ingelesa [Tr]*

DBH2n, urte bateko eta besteko erregresio eredueta, %78,8tik %77,1era jaisten da erregresio ereduaren azalpen ahalmena, bi urteetan azalpen-maila oso berdintsua lortzen da beraz. Ikasmaila honetan, lehen sei aldagaiak (*Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*, *Hizkuntza eredu*, *Etxeko erabilera [tr]*, *Irakasleen erabilera haien artean*, *Eremu soziolinguistikoa* eta *Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]*) mantentzen dira urte batean eta bestean, nahiz eta 2015ean azalpen maila apur bat txikiagoarekin den.

Beste bi aldagai gehiago errepikatzen dira bi urteetan, baina ez postu berean eta ekarpen are ahulagoa eginez: *Komunikabide eta kultur kontsumoa (Tr)* eta *Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza? Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak*, *Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua* eta *Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT*, bi urteetan ereduetatik kanpo geratzen dira.

*Lehen hizkuntza*, *Ikaslearen ISEK maila*, *Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia* eta *Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]*, urteren batean kanpoan geratzen dira, baina bestean ere ez dute azalpen maila handirik eta ereduaren azken lekuetan ageri dira.

55. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISIA. 2011KO ALDAGAIKIN ALDERAKETA 2011-2015. DBH2

DBH2	2011	R <sup>2</sup>	2015	R <sup>2</sup>
1	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,595	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,539
2	Hizkuntza eredu	0,699	Hizkuntza eredu	0,661
3	Etxeko erabilera [tr]	0,741	Etxeko erabilera [tr]	0,710
4	Irakasleen erabilera haien artean	0,763	Irakasleen erabilera haien artean	0,740
5	Eremu soziolinguistikoa	0,777	Eremu soziolinguistikoa	0,760
6	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,783	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,766
7	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,786	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,768
8	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,786	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,769
9	Jatorria [tr]	0,787	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,770
10	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,787	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,770
11	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,788	Lehen hizkuntza	0,771
12	Ikaslearen ISEK maila	0,788	Jatorria [tr]	0,771
<b>Eredu estatistikotik kanpo geratutako aldagaiak</b>				
	Lehen hizkuntza		Ikaslearen ISEK maila	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak		Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua		Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT		Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	

EREDU BERRIA

LMH4n, erregresio analisia elikatzen diren 15 aldagaietatik, 12 dira bai 2011n eta bai 2015ean osatutako ereduaren baliatutakoak. Lehen zazpi aldagaiak berdinak dira, ezberdintasun bakar batekin: *Irakasleen erabilera haien artean* eta *Begikotasuna Euskara-Gaztelania* aldagaien lekua trukatu egiten dela urte batetik bestera, hirugarren lekutik laugarrenera. Berdin jarraitzen duten bost aldagaiak honako hauek dira, euren garrantziaren arabera zerrendatuta: lehenengoa *irakasteredua*, bigarrena *erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*, bosgarrena *eremu soziolinguistikoa*, seigarrena *Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]* eta zazpigarrena *euskarazko hizkuntza-kompetentzia*.

Ereduak kanpoan uzten dituen aldagaietatik, bi urteetan, bi errepikatzen dira (*ikaslearen ISEK maila* eta *errendimendu akademikoa batez beste [tr]*). Beste biak, (*lehen hizkuntza* eta *begikotasuna euskara-ingelesa [tr]*) urte batean sartzen dira, baina ez bestean.

56. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISIA. 2015EKO ALDAGAIKIN ALDERAKETA 2011-2015. LMH4

LMH4	2011	R <sup>2</sup>	2015	R <sup>2</sup>
1	Hizkuntza eredu	0,462	Hizkuntza eredu	0,350
2	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,617	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,519
3	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,654	Irakasleen erabilera haien artean	0,582
4	Irakasleen erabilera haien artean	0,677	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,609
5	Eremu soziolinguistikoa	0,692	Eremu soziolinguistikoa	0,621
6	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,697	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,626
7	Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	0,701	Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	0,629
8	Jatorria [tr]	0,703	Etxeko erabilera [tr]	0,631
9	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,705	Jatorria [tr]	0,631
10	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,706	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,632
11	Etxeko erabilera [tr]	0,707	Lehen hizkuntza	0,632
12	Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	0,707	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,633
<b>Eredu estatistikotik kanpo geratutako aldagaiak</b>				
	Ikaslearen ISEK maila		Ikaslearen ISEK maila	
	Lehen hizkuntza		Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	
	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]		Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	

DBH2n bi urteetan, erregresio analisia elikatzen diren 21 aldagaietatik 13k osatzen dituzte ereduak. Lehen zazpi aldagaiak berdinak dira, eta hurrenkera berdinean kokatu dira; honakoak, hain zuzen: *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]*, *Irakasteredua*, *Etxeko erabilera [tr]*, *Irakasleen erabilera haien artean*, *Eremu soziolinguistikoa*, *Begikotasuna euskara-gaztelania*, eta *Euskarazko hizkuntza-kompetentzia*.

Kanpoan geratzen diren aldagaietatik, urte bakoitzean zortzi, seik errepikatzen dute (*Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua, Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak, Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT, Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr], Ikaslearen ISEK maila eta Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]*). Beste lauk (*Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr], Jatorria [tr], Lehen hizkuntza eta Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia*), ereduan sartzen diren urtean azalpen maila txikiarekin egiten dute.

57. TAULA. ERREGRESIO ANIZKOITZ BIDEZKO ANALISIA. 2015EKO ALDAGAIKIN ALDERAKETA 2011-2015. DBH2

DBH2	2011	R <sup>2</sup>	2015	R <sup>2</sup>
1	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,589	Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan [tr]	0,536
2	Hizkuntza ereduia	0,691	Hizkuntza ereduia	0,654
3	Etxeko erabilera [tr]	0,735	Etxeko erabilera [tr]	0,705
4	Irakasleen erabilera haien artean	0,758	Irakasleen erabilera haien artean	0,737
5	Eremu soziolinguistikoa	0,774	Eremu soziolinguistikoa	0,757
6	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,780	Begikotasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,763
7	Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	0,782	Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	0,765
8	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,785	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,767
9	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,785	Komunikabide eta kultur kontsumoa [tr]	0,768
10	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	0,786	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia	0,769
11	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,786	Lehen hizkuntza	0,769
12	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lagun taldea	0,786	Errendimendu akademikoa batez beste [tr]	0,769
13	Jatorria [tr]	0,786	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hezkuntza	0,770
<b>Eredu estatistikotik kanpo geratutako aldagaiak</b>				
	Ikaslearen ISEK maila		Ikaslearen ISEK maila	
	Lehen hizkuntza		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Gaztelania [tr]	
	Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Erraztasuna-Zailtasuna Euskara-Ingelesa [tr]	
	Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]		Begikotasuna Euskara-Ingelesa [tr]	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Familia		Jatorria [tr]	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak		Zein hizkuntza doakie hobeto...Hitzaldiak	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua		Zein hizkuntza doakie hobeto...Lan mundua	
	Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT		Zein hizkuntza doakie hobeto...IKT	

## 6. ONDORIO NAGUSIAK

### 6.1. Ikasleen testuinguruaren ezaugarri batzuk

Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak baldintza ditzaketen ezaugarri eta datuei dagokionez (txostenaren 1. eta 2. atalak), zenbait ideia nabarmenduko dugu hemen.

Familiatik hasita, *etxeko erabilera orokorrari* buruzko datuak irakurrita, argi antzematen da egun EAEko haur eta nerabe gehienek gaztelaniaz egiten dutela beti edo nagusiki euren etxeetan. Dena den, apala izanik ere, LMH4ko ikasleen artean 2011-2015 epealdian *lehen hizkuntzan* sumatu da euskararen goranzko joera. Euskaraz hutsa edo euskara eta gaztelania, bi-biak, lehen hizkuntza izan dituztenak elkarrekin hartuta, LMH4n 3,6 puntukoa da *lehen hizkuntzaren* igoera: %33,5etik %37,1era. Oinarri sendoko aldaketa dirudi, familia eremuko euskara erabileran ere kide guztiekin -aitarekin, amarekin, neba-arrebekin eta guztiak elkarrekin daudenean- igoera gertatzen delako. Oraingo lehen zantzu bat baino ez den arren, garrantzia soziolinguistiko handiko aldaketa izan liteke, belaunaldi gazteen artean euskarazko transmisioan gorakada bat adieraz dezakeen neurrian. DBH2n, aldiz, aldagai horretan 0,7 puntu galduz, esan daiteke transmisio mota horretan egonkortasuna dagoela: %35,4, 2011n, eta %34,7, 2015ean.

Ingurune akademikoaren baitan ere, badago zer nabarmendu. Alde batetik, 2011tik 2015era altuagoa da D ereduari ari diren ikasleen proportzioa (6,5 puntu handiagoa LMH4n eta 5,6 DBH2n), eta baxuagoak aldiz beste bi irakastereduetakoak. Litekeena da, ereduaren bilakaera horrek euskararentzat aldekoagoak diren eskolako baldintzak areagotzea. Beste aldetik, *irakasleen erabilera haien artean* aldagaia dugu aipagarri, ikastetxean euskararekiko dagoen giroaren isla izan daitekeelakoan. LMH4ko irakasleen hizkuntza-portaera, ordea, ez dator bat aipatu berri dugun D ereduaren igoerarekin; izan ere, LMH4n beti edo gehienetan euskaraz egiten duten irakasleen proportzioa mantendu egin da 2011 eta 2015 artean (%70,6 eta %70,5, hurrenez hurren). Aldiz, DBH2n, beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen multzoa guztira 6,7 puntu igo da, 2011tik 2015era (2015ean %66,5).

Ikasleen hizkuntza-kompetentziei dagokionez, bestalde, nabarmentzekoa da 2015ean bi ikasmailetan *euskarazko hizkuntza-kompetentzia* (Ebaluazio Diagnostikoa proban) izandako beharakada. Jaitsiera horrek, hala ere, ez du islarik izan eskola giroko erabileren emaitzetan eta, zergatien bila hasita, pentsa liteke aldagai horren muina gertuago dagoela hizkuntzaren ezagutza formal edo akademikotik ikasleen komunikaziorako joera edota ohituratik baino.

*Eskolaz kanpoko jarduera antolatuen* esparruari dagokionez, bi ideia nabarmenduko ditugu; batetik euskarazko erabilerak jarduera horietan igoera apala izan duela DBH2ko ikasleen artean 2011-2015 artean, eta LMH4koen artean berriz, jaitsiera txiki bat. Eta bestetik, nabarmena dela lau urte hauetan ingelesezko jarduerak lekua irabazi dutela bi ikasmailetakoa ikasleen aisialdiko ekimen mota guztietan, hala nola eskolaz kanpoko ekintzetan, klase partikularretan eta udaleku eta kanpalekutan; baita hedabide eta kultura-konsumoko mota guztietan ere, bi ikasmailetan.

Ikasleriaren hautemateen inguruan ere badago zer aipatu. Nabarmenduko genuke hizkuntzen begikotasunaren inguruan jasotako datuek adierazten dutela euskararen prestigioaren edo harekiko atxikimenduen jaitsiera moduko bat, -batez ere- ingelesaren eta gaztelaniaren aldean. Euskarari eta ingelesari dizkieten begikotasunei buruz aitortu dutena alderatuz, bi ikasmailetan joera argi bat ikusten da: euskararen begikotasunean beheranzko joera. LMH4n lau urtetan 4,7 puntuko jaitsiera egon da eta DBH2n 7,5 puntukoa. Ordainetan LMH4n bi hizkuntzekiko aldebereko begikotasun orekatuak irabazten du pisua (3,7 puntu) eta DBH2n batez ere ingelesak du goranzko joera argia (5,3 puntukoa), 2015ean lehen lekua eskuratzera iritsiz.

Aurrekoarekin batera, euskara ingelesa baino errazagoa dela pentsatzen dutenen pisua nabarmen jaitsi da 2011tik, eta ingelesaren gaineko uste hori handitzen joan da, DBH2n lehenbiziko aldiz ingelesa euskara baino errazagoa dela pentsatzea nagusitzeraino. IKTekin hobekien lotzen den hizkuntzaren kasuan ere ingelesak gorantz egiten du (5,5 puntu, %17,6raino) DBH2n, nahiz eta oraindik gaztelania erraz gailentzen den (%50).

Bateragarria al da ingelesaren aldeko uhin hori euskarazko erabilerek goranzko joera izatearekin? Bi datu horien konbinazioak behar bada adierazten digu ikasle euskaldunen tipologia aldatzen ari dela, eta belaunaldi berrietako hiztunek euskararen erabilera neurri handiagoan lotzen dutela unearen eta egoeraren egokitasun eta komenientzia pertsonalarekin, bestelako lotura eta esanahi orokorragoekin baino.

## 6.2. Ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerak 2011-2015

2015. urtean egindako datu-jasoketarekin, lehen aldiz Arrue ikerketan izaera *longitudinaleko* azterketa egin ahal izan da EAEko ikasleen eskolako hizkuntza-erabileraz, izan ere, 2011n LMH4n neurtu ziren ikasleak dira 2015ean DBH2n neurtu diren berberak, neurri handian. Ikerketaren urrats berri horrek, oro har, berretsi egin du 2011n eskolako erabileraz eginiko deskribapena eta irakurketa, modu horretan lanaren oinarria sendoa dela berretsiz. Ildo horretako emaitzen berri aurreratuz, datuen irakurketa *longitudinalari* ekinez ikusten da 2011. urtean LMH4an *eskolako erabilera orokorreko tasa esleituan* %56,4ko puntuazioa lortzen duen irakasleriak 2015ean, DBH2n %42,3ko tasa baino ez duela.

Dena den, 2011-2015 epealdian, ikasleen eskolako euskarazko erabileren joera orokorra goranzkoa izan da, bi ikasmailetan. *Eskolako erabilera orokorrak*, LMH4n 3,0 puntu egin du gora eta DBH2n 2,4. Bi ikasmailetak bilakaera hori ulertzeko, oso aintzat hartzekoa da EAE mailan irakastereduetan gertatu den bilakaera. Izan ere, gertatutako D ereduaren hazkundeak azal dezake bi ikasmaila horietan ikasleek 2011tik 2015era erakutsi duten erabileraren igoera. Erabileraren bilakaera irakastereduka aztertuta berresten da interpretazio hori, irakasteredu bakoitzaren erabileran aldaketa aipagarririk ez dagoelako. Hortaz, ikasle guztiak batera hartuta LMH4n zein DBH2n dauden erabileraren gorakadak, erabilera mailarik handiena duen D ereduaren hazkundetik eratortzen dira. Goranzko joera hori, ordea, ez da ikasle motan guztiengan berdin banatzen. Erabilera mailarik altueneko (%70,1-%100) multzoak proportzio bertsuan irauten du epealdi horretan eta 2011n euskararik batere ez edo oso gutxi (%0-%30) baliatzen zutenen zati bat da 2015ean euskara tarteka edo sarriago (%30,1-%70) erabiltzera pasa direna. Hortaz, zentzuzkoa da pentsatzea, batetik, erabileraren igoeraren zergatia irakasteredu euskaldunaren hedapena dela eta, bestetik, egungo baldintza soziolinguistikoko orokorretan, hizkuntza-portaera euskalduneneko ikasleek erabilera areagotzeko dituzten aukerak sabaia jo dutela.

Aztertutako lau erabilerak banan-banan bereizita, LMH4n pixkatxo bat behera egin du *irakasleekin gelatik kanpo* erabilerak (-1,4 puntu), eta aldiz beste hirurek, gora egin dute (3,2 puntuz *irakaslearekin gelan*, 4,0 puntuz *ikaskideekin gelan* eta beste 4,0 puntuz *jolaslekuan*); DBH2n aldiz, igoera irakasleekiko bi erabileretan eman da batik bat (5,5 puntukoa *gelan* eta beste 5,4 puntukoa *gelaz kanpo*); *ikaskideekin gelan* erabileran ere igoera egon da, baina apalagoa (2,2 puntu) eta aldiz *ikaskideekin jolaslekuan* erabilera maila berdin-berdinean mantendu da (-0,1 puntu). *Irakasleekin gelatik kanpoko* erabileran LMH4n eta DBH2n agertzen den bilakaera kontrajarri horiek (higatze ahula vs. hazkunde nabarmena, hurrenez hurren) bat datoz *irakasleen arteko erabileraz* ikasleek aitortzen duten pertzepzioekin; izan ere, ikasleek esan bezala LMH4ko irakasleen arteko erabilera hori 0,1 puntu jaisten da eta, aldiz, DBH2koa 6,7 puntu igo. Posible ote da irakasleen arteko hizkuntza-portaerak horren eragin zuzenik izatea ikasleek irakasleekin duten erabilerarekin? Interesgarria litzateke susmo hori egiaztatzen saiatzea.

Bi ikasmailak eta lau erabilerak alderatzen baditugu, 2011, 2013 eta 2015ean neurtutako erabilerek patroi antzerakoa erakusten dute. *Ikaskideekin gelan* egiten den euskarazko erabileran erabateko alde dago bi ikasmailen artean: LMH4koek nagusiki euskaraz egiten duten artean, DBH2koak gehienbat gaztelaniaz aritzen dira. *Ikaskideekin jolaslekuan*, aldiz, bi ikasmailetan joera nagusia gaztelaniaz aritzea da, baina ez neurri berean: gazteenen euskarazko erabilera %40,9koa da eta DBH2koena aldiz %23,6koa. Azkenik, irakasleekin gehienbat euskaraz aritzen dira ikasleak, gelan zein gelatik kanpo, LMH4koen erabilerak bi egoeretan DBH4koenak baino altuagoak izanik.

Datuen argitan, ondoriozta genezake ikasleen zati esanguratsu batek bere eskola-giroko hizkuntza-ohituretako batzuk aldatu egiten dituela euskaratik gaztelaniara 10 eta 14 urteen artean. Hala ere, orain arte eman ditugun azalpenetatik kanpo gelditzen da, 2011n zein 2015ean, DBH2koen aldean

LMH4koek dituzten euskarazko erabilera altuagoen zergatia. Eskola giroko lau erabilera motak irakurketa *longitudinalaren* argira aztertuz, ikusten da erabilera mota guztietan gertatzen dela atzerakada. Hala ere, harremana irakasleriarekin –gelan zein gelaz kanpo- denean, ikasleen 2015eko erabilera tasak hurbilago daude 2011n zituztenetatik, harremana ikasleen beraien artean denean baino. Horrela, tasarik apalena bi urteetan jolaslekukoa den arren, guztiz deigarri gertatzen da gela barruko lagunekin duten erabileraren gainbehera: %64,2tik %38,3ra. Neurri handi-handian bi urteetako ikasle-multzo bera izanik, begi bistakoa da, adinean gorantz egin ahala euskararen erabilerak duen atzerapausoa, batez ere euskararen erreferente heldurik -irakasleria izan daitekeena-tartean izan ezean.

Baieztape horri gehitu behar zaio, dena den, 2015ean lehen aldiz egin ahal izan den azterketa *longitudinalaren* argitan, bi ikasmailetako erabileren arteko aldea 2-3 puntu txikiagoa dela oinarri hori gabe orain arte deskribatu izan duguna baino. 2011n, LMH4ko ikasleen *eskolako erabilera orokorra* %56,4koa zen, eta urte berean, DBH2koena %39,9koa (16,5 puntuko aldea). 2015ean ere alde hori antzekoa izan da, 17,1 puntuko zehazki (LMH4koen erabilera %59,4 eta DBH2koena %42,3). Aldiz, urte berean jaiotako ikasleen erabileren alderaketa eginda (*longitudinala*) eta beraz alderatuta 2011ko LMH4ko erabilera (%56,4) 2015eko DBH2koenarekin (%42,3), aldea, esan bezala, apalagoa da: 14,1 puntuko, hain zuzen. Halako alderaketa egiteko datuak lehen aldiz 2015ean izanik, ondorengo urteetako neurketetan ikasmailen arteko bi alderaketa-motak izango dira arretaz jarraitzekoak: urte berean jaiotako ikasleek bi ikasmailetan dituztenen artekoa (*longitudinala*) eta urte berean bi ikasmailetan ikasten ari diren ikasleen artekoa (*sinkronikoa*).

Bestalde, eskolako erabilerak alderatzen baditugu ikasleek eskolatik kanpo egunerokoan dituztenekin, ikusten dugu eskola dela EAEko ikasle gehienentzat eremurik euskaldunena, eta haietako hainbatentzat euskaraz aritzeko aukera eskaintzen dien bakarra.

### 6.3. Eskolako hizkuntza-erabileren loturak beste aldagaiekin

Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak zeren arabera eta nolatan aldatzen diren ezagutu nahian, 2015eko ikerketan ere erabilera horiek beste hainbat aldagaiekin dituzten loturak aztertu dira estatistikoki. Oro har, aurreko urteetako emaitzekin alderatuz, 2015ean oso parametro berdintsuak neurtu dira aldagai gehien kasuan, analisisien sendotasuna berretsiz.

Aztertutako aldagai guztien artean LMH4ko ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* loturarik sendoena duen aldagaia *irakasteredua* da, eta jarraian datoz *erabilera eskolaz kanpoko jardueretan*, *irakasleen erabilera haien artean*, *hizkuntzekiko begikotasunak* (Eus/Gaz) eta *eremu soziolinguistikoa* (edo ikastetxea kokatuta dagoen udalerriko euskaldunen proportzioa). DBH2n *erabilera eskolaz kanpoko jardueretan* aldagaia da *eskolako erabilera orokorrarekin* lotuen agertzen dena eta *irakasteredua* bigarren; ondoren datoz *etxeko erabilera*, *irakasleen erabilera haien artean* eta *eremu soziolinguistikoa*. Orokorrean, ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-giroa eta errealitatea adierazten dituzten aldagaiek lotura oso argiak erakusten dituzte aztertutako erabilerekin 2015ean, aurreko kasuetan izan den moduan. Aldagai guzti horietan eskolako erabileretik loturak norabide logikoan ematen dira, eta gehienetan intentsitate handiagoz DBH2ko ikasleengan LMH4koengan baino. Ezin da ahaztu, bestalde, eskolaren eta familiaren baitako zenbait aldagaik ikasleen erabilerekin duten lotura. Oso adierazgarriak dira, eskolaren kasuan, *irakasleen erabilera haien artean* aldagaiaren emaitzak, adierazten baitute eskola bakoitzaren hizkuntza-giroak baduela eraginik ikasleen erabileretan. Familiari dagokionez, *etxeko hizkuntzak* duen pisua nabarmena da DBH2n eta zerbait apalagoa LMH4n.

Hizkuntza ereduak aztertuta, ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* lotuen dagoen aldagaia bera da A, B zein D ereduetan, bai LMH4n, baita DBH2n ere; aldagai hori *erabilera eskolaz kanpoko jardueretan* da. Horrek berresten du ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-giroak duen garrantzia eskola barruko erabilerarako, irakasteredua edozein izanda ere. Bigarren aldagaia da *irakasleen erabilera haien artean*, DBH2ko D ereduaren salbu, non hirugarren gelditu den. Bistan da ikastetxeko eragina –irakasleen arteko erabilera horrek islatuta- ere ereduetatik harago doala. Badira, bestalde, irakastereduaren arabera garrantzia irabazi edo galtzen duten aldagaiek, LMH4n zein DBH2n.



Horrela, aipatzekoa da B ereduoen artean *etxeko erabilera* aldagai indartsu agertzen dela eta D ereduan *eremu soziolinguistikoa*, bi ikasmailetan.

#### 6.4. Emaizten interpretazioak eta gogoetak

Neurri batean aurreko urteetako lanen segida diren irakurketa eta ideia nagusi horiekin batera, badira datuetan beste hamaika ñabardura eta aukera interesgarri, interpretaziorako bide berriak irekitzen dituztenak.

Adibidez, 2015eko eskola-giroko hizkuntza-erabilerak eta 2011-2015 bilakaerak aztertutik, bi ideia nagusi nabarmendu behar dira erabilera horien interpretazioa egiteko garaian: lehenbizikoa, hizkuntza-erabilerarako arau zein baldintza sozialei dagokionean, LMH4n eskola-eremuak duen autonomiaren ideia, DBH2ko ikasle izatera pasa ahala nabarmen ahultzen den autonomia; eta bigarrena, ildo beretik, ezaugarri eta egoera ezberdineko ikasleen erabileren nolakotasuna eta erabileren arteko aldeak ulertzeko, hizkuntza-sozializazioaren kontzeptuaren egokitasunarena.

Bi ikasmailetako ikasleek eskolako egoera ezberdinetan dituzten hizkuntza-erabilerak argi erakusten dute eskolak lortu egiten duela EAEn beste gizarte esparru batzuetakoetatik ezberdinak, autonomoak, diren hizkuntza-erabilera arauen eta baldintzen arabera funtzionamendu bat ikasleekin egunerokoan. Horri esker, eskola beste esparru guztiak baino euskaldunagoa da, ikasle gehien-gehienentzat.

Eskolak lortzen duen gizartearekiko autonomiaren mugak ere argi erakusten ditu, dena den, datuen azterketak. Alde horretatik, uler daiteke ikasleak helduagotzen diren neurrian, gizarteko hizkuntza-erabilerarako arauak gero eta indar handiagoz sartzen direla eskolako errealitatean, autonomia hori urratuz eta mugatuz, eta zentzu horretan gizarteko arau orokorrekiko *konbergentzia* ematen dela, joera orokor modura. Zentzu horretan, aztertutako bi ikasmailetako ikasleen hizkuntza-erabileren artean ematen den *koska* ez da eskolako fenomeno bat, soziala edo orokorra baizik. Eta zentzu horretan ere, komeni da ikasleen eskola-giroko erabileren irakurketa euren hizkuntza-sozializazioaren ikuspegitik egitea.

Hainbat datu aipa litezke datuen irakurketa honen oinarri gisa. Esate baterako, bi ikasmailetako ikasleen eskolako erabileren arteko aldeak aztertzean –edo beste era batera esanda, 10 eta 14 urteko ikasleen alderaketa egitean– ikusten dugu, oro har, euskara ahulago dagoen lekuetan, bi adinetako ikasleen erabileren arteko aldeak nabarmenagoak direla, eta aldiz, euskara sendo dagoen eremuetan, alde horiek txikiak direla, ia desagertzeraino. Argi ikusten da hori, esate baterako, ikaskideen arteko *gelako* eta *jolaslekuko* erabilera-datuak zonalde soziolinguistikoarekin –edota, eskolaz kanpoko erabilerekin– gurutzatzean. Bi ikasmailetako erabileren arteko aldean irakurketa hizkuntza-sozializazioaren bidetik eginaz, esan genezake, nerabeen bulkada nagusia helduak izatea dela, edo haien jokaera batzuk imitatzea. Eta helduen mundua, EAEn, nagusiki gaztelaniaz aritzen da gaur egun (euskararentzat arnagune diren eremu soziolinguistiko euskaldunak salbu). Aldiz, euskara sendo dagoen gunetan, gazteek ez daukate euskaratik gaztelaniara pasa beharrik helduen munduarekin bat egiteko, euskara hor nagusi delako.

Sozializazioarekin loturiko interpretazioa egin genezake ere, ikusten dugunean, bi ikasmailetan, *lehen hizkuntza*, euskara edo gaztelania ez, “beste hizkuntza” bat duten ikasleek, batez beste, euskara gehiago egiten dutela jolaslekuan *lehen hizkuntza* “gaztelania” dutenek baino. Izan ere, “beste hizkuntza” bat dutenak, batez beste, eremu euskaldunagoetan bizi dira gaztelania dutenak baino.

Datuen irakurketa orokor honen amaiera modura, eta aintzat harturik 2011-2015 epealdian datuek izandako bilakaera, aipaturiko eskolaren *autonomia* eta betetzen ari den euskalduntze progresiboaren islatzat har genitzake neurtutako erabilera gehienek erakusten duten goranzko joera. Era berean, eta beste aldean, muga sozialaren edo gizarte-eraginaren adierazletzat har genezake DBH2ko ikasleen *jolaslekuko* erabilerak maila berdinean jarraitzea.

Aurreko guztiak ondorio bikoitz eta argi batera garamatza. Mugak muga eta zailtasunak zailtasun, eskola ekarpen baliotsu bezain nabarmena ari zaie egiten euskararen ezagutzari zein eskola eremuko

erabilerari; eskolari dagozkion euskararekiko baldintzen hobekuntzek aurrerapausoa dakarte erabileran. Aurrerapauso horiek beste gizarte eremutara zabaldu daitezten, ezinbestekoa da eskolarekin batera bestelako eragileek ere baldintza egokiagoak sortzeko ahalegina areagotu dezaten.

## ERANSKINAK

## 7. IKASLEEN EZAUGARRIAK

### 7.1. Sexua

58. TAULA: IKASLEEN SEXUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015

	Sexua					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Neska	48,5	48,8	48,7	48,7	49,4	48,2
Mutila	51,5	51,2	51,3	51,3	50,6	51,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>18.550</i>	<i>19.114</i>	<i>21.107</i>	<i>17.183</i>	<i>17.121</i>	<i>19.023</i>

### 7.2. Ikasleen lurralde banaketa

59. TAULA: IKASLEAK, EUREN IKASTETXEA DAGOEN LURRALDEAREN ARABERA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015

	Lurraldea	
	LMH4	DBH2
	2015	2015
Araba	14,9	15,3
Bizkaia	50,8	50,4
Gipuzkoa	34,3	34,3
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>21.167</i>	<i>19.095</i>

### 7.3. Ikasleen (eta euren gurasoen) jatorria

60. TAULA: IKASLEEN ETA EUREN GURASOEN JAIOLEKUARI BURUZKO GALDEREN EMAITZAK. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2015

	Non jaio zinen zu?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskal Herrian	88,6	88,9	88,8	87,9	87,0	87,1
Beste Autonomi Erkidego batean	3,8	5,9	6,8	2,8	3,6	4,0
Atzerrian	7,6	5,2	4,4	9,4	9,5	8,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.552	19.114	19.823	16.986	17.121	18.061
	Non jaio zen zure aita?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskal Herrian	76,5	77,1	76,2	72,8	73,6	74,5
Beste Autonomi Erkidego batean	13,7	15,2	15,4	16,7	15,7	14,8
Atzerrian	9,8	7,8	8,4	10,6	10,7	10,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.404	18.683	19.499	16.880	16.940	17.878
	Non jaio zen zure ama?					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Euskal Herrian	78,3	78,4	77,4	74,6	74,6	76,2
Beste Autonomi Erkidego batean	11,9	13,5	13,9	14,5	14,2	12,5
Atzerrian	9,7	8,2	8,8	10,9	11,1	11,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.415	18.755	19.618	16.895	16.992	17.950

61. TAULA: IKASLEEN ETA EUREN GURASOEN JAIOLEKUAREN ARABERAKO SAILKAPENA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15

	Ikaslearen familia jatorria					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Bi gurasoak eta ikaslea bertan jaioak	64,9	64,4	60,4	60,0	60,6	58,9
Gurasoetako bat kanpoan jaioa; ikaslea bertan jaioa	17,4	16,0	14,6	20,9	19,9	18,6
Gurasoak kanpoan jaioak; ikaslea bertan jaioa	4,8	5,7	6,2	6,0	5,2	4,9
Guraso bat edo biak bertan jaioa(k); ikaslea kanpoan jaioa	3,4	3,7	3,5	3,0	3,5	3,6
Gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak	7,6	6,7	6,6	10,1	9,2	8,6
Beste egoerak eta informazio hutsuneak	1,8	3,5	8,6	0,0	1,6	5,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	18.636	19.114	21.167	17.184	17.121	19.095

#### 7.4. Ikastetxeen titularitatea

62. TAULA: IKASLEAK MATRIKULATUTA DAUDEN IKASTETXEETAKO TITULARITATEA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15

	Titularitatea					
	LMH4			DBH2		
	2011	2013	2015	2011	2013	2015
Publikoa	51,0	50,3	51,2	46,2	46,2	46,9
Hitzartua	49,0	49,7	48,8	53,8	53,8	53,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>18.636</i>	<i>19.114</i>	<i>21.167</i>	<i>17.184</i>	<i>17.121</i>	<i>19.095</i>

## 8. TAULA GURUTZATUAK (I): ESKOLAKO ERABILERAK HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA

8.1. Ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, hainbat aldagaien arabera: informazio osagarria.

63. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA EREMU SOZIOLINGUISTIKOA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Eremu soziolinguistikoa									
	LMH					DBH				
	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20
Guztia euskaraz, %100,0	55,4	40,7	16,8	5,5	3,1	63,9	38,9	6,7	0,4	0,1
%70,1-%99,0	36,0	41,8	27,9	17,3	15,7	27,7	34,0	17,0	3,1	0,6
%30,1-%70,0	7,6	16,4	38,6	52,6	54,2	6,1	20,7	45,8	46,9	42,6
%1,0-%30,0	0,7	1,1	12,6	19,6	23,4	1,7	5,7	24,3	38,7	47,7
Euskararik ez, %0,0	0,2	0,1	4,1	5,0	3,5	0,6	0,7	6,2	11,0	9,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	802	2.247	5.040	9.529	1.980	527	2.153	4.749	8.927	1.687



64. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA LEHEN HIZKUNTZA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?							
	LMH				DBH			
	Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat	Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
Guztia euskaraz, %100,0	39,8	15,2	4,8	8,7	31,3	7,8	1,4	4,2
%70,1-%99,0	37,9	30,9	16,7	18,2	28,6	16,4	3,9	8,5
%30,1-%70,0	19,5	44,9	51,7	42,9	33,5	54,6	42,8	27,9
%1,0-%30,0	2,3	7,7	21,7	19,6	6,0	20,0	41,2	34,6
Euskararik ez, %0,0	0,5	1,2	5,1	10,7	0,6	1,3	10,7	24,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	4.227	3.097	11.337	1.078	3.641	2.611	10.832	936

65. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA IRAKASTEREDUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Irakasteredua					
	LMH			DBH		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
Guztia euskaraz, %100,0	0,0	2,0	19,4	0,0	0,4	12,9
%70,1-%99,0	1,0	6,8	30,9	0,3	1,2	16,3
%30,1-%70,0	5,5	49,6	43,8	1,8	26,7	53,4
%1,0-%30,0	47,1	37,8	5,1	38,0	64,7	16,1
Euskararik ez, %0,0	46,4	3,7	0,8	59,9	7,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	1.008	4.799	13.957	1.595	4.721	11.727

66. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA TITULARITATEA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Titularitatea			
	LMH		DBH	
	Publikoa	Hitzartua	Publikoa	Hitzartua
Guztia euskaraz, %100,0	14,0	14,3	8,6	8,4
%70,1-%99,0	25,8	21,2	12,1	9,9
%30,1-%70,0	48,1	38,2	50,8	33,8
%1,0-%30,0	9,4	21,2	22,5	38,1
Euskararik ez, %0,0	2,6	5,1	6,0	9,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	10.028	9.736	8.532	9.511

67. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA IKASTETXEAREN ISEK MAILA MULTZOKATUA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Ikastetxearen ISEK maila multzokatua							
	LMH				DBH			
	Maila baxua	Maila ertain-baxua	Maila ertain-altua	Maila altua	Maila baxua	Maila ertain-baxua	Maila ertain-altua	Maila altua
Guztia euskaraz, %100,0	4,5	15,2	21,5	12,0	0,9	13,4	14,6	3,4
%70,1-%99,0	13,7	25,6	27,6	23,5	3,4	14,1	15,7	8,8
%30,1-%70,0	53,6	45,0	40,2	39,3	37,6	41,4	45,0	42,3
%1,0-%30,0	21,1	12,4	9,3	19,4	42,0	27,1	22,1	34,4
Euskararik ez, %0,0	7,1	1,7	1,4	5,8	16,1	4,1	2,6	11,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	3.246	4.687	5.461	6.370	3.734	4.434	5.061	4.814

68. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	ERABILERA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAN (multzotan) [Tr]									
	LMH					DBH				
	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20
Guztia euskaraz, %100,0	57,0	19,4	13,2	3,5	3,0	62,2	21,9	9,3	0,4	0,1
%70,1-%99,0	28,3	49,2	29,1	16,3	9,0	24,2	41,5	17,4	3,5	0,9
%30,1-%70,0	12,1	27,3	46,6	59,0	47,3	12,2	31,3	54,9	55,2	32,0
%1,0-%30,0	2,4	3,6	10,0	19,1	29,2	1,2	5,0	16,8	37,2	48,4
Euskararik ez, %0,0	0,2	0,5	1,1	2,1	11,5	0,3	0,3	1,5	3,8	18,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	2.113	2.153	6.514	3.600	4.649	1.180	1.541	4.648	4.051	6.003

69. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA ETXEKO ERABILERA. LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	ETXEKO ERABILERA (multzotan) [Tr]									
	LMH					DBH				
	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20
Guztia euskaraz, %100,0	55,6	29,9	17,0	7,3	4,5	52,0	26,5	15,1	3,2	1,1
%70,1-%99,0	35,6	46,0	33,3	23,0	13,9	30,1	37,5	26,7	9,9	3,2
%30,1-%70,0	8,2	22,0	41,9	54,6	49,7	16,9	32,2	47,5	60,4	39,0
%1,0-%30,0	0,4	1,8	6,8	13,3	24,4	1,1	3,5	8,8	24,0	43,2
Euskararik ez, %0,0	0,1	0,3	1,1	1,8	7,6	0,0	0,3	2,0	2,5	13,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	1.916	1.473	2.088	3.874	7.356	1.317	1.105	1.302	2.808	8.601

70. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA HIZKUNTZEKIKO BEGIKOTASUNA (EUSKARA/GAZTELANIA). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Euskara-Gaztelania begikotasuna					
	LMH			DBH		
	Euskara nahiago	Biak berdin	Gaztelania nahiago	Euskara nahiago	Biak berdin	Gaztelania nahiago
Guztia euskaraz, %100,0	37,6	15,0	3,2	28,0	6,4	0,7
%70,1-%99,0	36,8	28,7	12,5	29,2	12,4	2,3
%30,1-%70,0	21,8	44,5	52,5	32,5	54,6	38,7
%1,0-%30,0	3,0	9,4	25,0	9,3	22,9	44,6
Euskararik ez, %0,0	0,9	2,4	6,8	0,9	3,7	13,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	1.379	2.168	2.928	1.317	1.785	2.883

71. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA EUSKARAZKO KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Euskarazko komunikaziorako konpetentzia (ebaluazio diagnostikoa)					
	LMH			DBH		
	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Guztia euskaraz, %100,0	8,6	14,5	22,2	4,8	9,9	16,7
%70,1-%99,0	18,3	23,8	31,2	6,7	13,6	18,3
%30,1-%70,0	44,5	45,3	39,0	36,9	47,9	46,8
%1,0-%30,0	21,4	14,3	7,2	38,9	26,1	17,3
Euskararik ez, %0,0	7,3	2,1	0,5	12,7	2,4	0,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	7.142	7.382	4.956	8.223	6.510	2.805

72. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA SEXU/GENEROA). LMH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Sexua			
	LMH		DBH	
	Neska	Mutila	Neska	Mutila
Guztia euskaraz, %100,0	15,7	12,7	8,6	8,4
%70,1-%99,0	24,0	23,1	10,6	11,2
%30,1-%70,0	42,6	44,0	43,2	40,6
%1,0-%30,0	14,2	16,2	30,4	31,0
Euskararik ez, %0,0	3,6	4,0	7,1	8,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	9.674	10.070	8.740	9.283

73. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA ERREFERENTE SOZIOLINGUISTIKOIA. LMH4. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Erreferente soziolinguistikoa												
	LMH												
	A eta %20,26koa baino txikiagoa	A eta %20,26tik %40,34ra bitartekoa	A eta %40,35etik %60,56ra bitartekoa	B eta %20,26koa baino txikiagoa	B eta %20,26tik %40,34ra bitartekoa	B eta %40,35etik %60,56ra bitartekoa	B eta %60,57tik %80,69ra bitartekoa	B eta %80,70ekoa edo handiagoa	D eta %20,26koa baino txikiagoa	D eta %20,26tik %40,34ra bitartekoa	D eta %40,35etik %60,56ra bitartekoa	D eta %60,57tik %80,69ra bitartekoa	D eta %80,70ekoa edo handiagoa
Guztia euskaraz, %100,0	0,0	0,0	0,0	0,2	1,8	3,2	18,3	6,7	5,5	7,9	21,6	41,3	56,3
%70,1-%99,0	2,4	0,9	0,8	5,8	6,9	6,2	16,7	40,0	24,1	24,2	35,6	42,5	36,0
%30,1-%70,0	23,2	3,8	4,0	47,9	49,5	51,9	48,3	40,0	61,3	58,8	38,7	15,5	7,0
%1,0-%30,0	43,9	46,5	48,9	41,7	37,8	36,3	16,7	13,3	8,2	7,9	3,5	0,6	0,5
Euskararik ez, %0,0	30,5	48,8	46,3	4,3	4,0	2,4	0,0	0,0	0,8	1,2	0,6	0,1	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	82	572	354	812	3.006	906	60	15	1.086	5.951	3.780	2.187	787

74. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA ETA ERREFERENTE SOZIOLINGUISTIKOAK. DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2015 (ESLEITUTAKO ERABILERA-TASA MULTZOKATUA, %)

ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (multzotan) [Tr]	Erreferente soziolinguistikoa											
	DBH											
	A eta %20,26koa baino txikiagoa	A eta %20,26tik %40,34ra bitartekoa	A eta %40,35etik %60,56ra bitartekoa	B eta %20,26koa baino txikiagoa	B eta %20,26tik %40,34ra bitartekoa	B eta %40,35etik %60,56ra bitartekoa	B eta %60,57tik %80,69ra bitartekoa	D eta %20,26koa baino txikiagoa	D eta %20,26tik %40,34ra bitartekoa	D eta %40,35etik %60,56ra bitartekoa	D eta %60,57tik %80,69ra bitartekoa	D eta %80,70eko handiagoa
Guztia euskaraz, %100,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,9	3,7	0,1	0,7	9,1	40,3	63,9
%70,1-%99,0	0,0	0,3	0,3	0,4	1,2	1,6	4,9	0,9	4,8	23,4	35,2	27,7
%30,1-%70,0	0,7	2,3	0,9	22,9	27,5	26,7	34,6	68,9	68,0	56,2	20,1	6,1
%1,0-%30,0	45,0	34,3	46,8	69,5	64,5	62,6	51,9	27,3	24,7	10,5	3,9	1,7
Euskararik ez, %0,0	54,3	63,1	52,0	7,1	6,6	8,2	4,9	2,8	1,8	0,8	0,5	0,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Maiztasuna (n)	140	1.107	348	757	2.864	1.019	81	790	4.956	3.382	2.072	527

8.2. Aldagai askea: Eremu soziolinguistikoa

LMH4 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Eremu soziolinguistikoa (5 eremu)														
		2011					2013					2015				
		%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	67,6	53,6	17,8	4,9	1,8	68,9	49,9	18,1	7,6	5,1	77,2	58,5	23,4	8,9	6,5
	Euskaraz gehiago	17,1	21,7	17,2	7,7	5,0	16,4	24,7	17,3	10,2	8,1	13,6	20,0	16,3	10,7	9,5
	Bietan berdin	8,3	11,7	14,4	10,1	8,0	6,1	11,4	15,5	12,9	13,0	3,4	10,5	12,7	10,4	9,7
	Gaztelaniaz gehiago	4,1	8,0	21,8	26,5	24,4	3,5	9,9	21,4	27,2	26,3	4,1	6,9	19,1	22,7	22,6
	Beti gaztelaniaz	2,2	4,9	28,3	50,2	59,7	5,0	3,7	27,0	41,3	46,7	1,7	4,0	28,2	46,9	51,3
	Beste hizkuntzan	0,6	0,2	0,4	0,5	1,1	0,2	0,4	0,7	0,7	0,8	0,0	0,1	0,3	0,4	0,4
	Erabilera tasa	85,6	77,7	43,4	22,4	15,6	85,0	76,6	44,1	28,6	24,3	90,1	80,5	46,7	27,8	24,2
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	66,6	67,7	41,2	25,9	18,3	68,5	68,3	43,4	31,6	26,9	77,3	72,2	49,6	36,5	36,8
	Euskaraz gehiago	23,1	21,6	24,9	23,9	23,3	21,0	20,1	23,0	24,0	24,1	16,6	19,5	18,8	21,5	20,7
	Bietan berdin	7,3	7,4	12,8	16,1	19,9	8,2	6,8	10,9	13,1	16,3	3,5	5,0	9,3	10,6	10,2
	Gaztelaniaz gehiago	1,4	2,1	9,8	15,9	17,4	1,1	2,8	10,7	14,1	15,2	1,7	2,1	8,9	12,8	14,0
	Beti gaztelaniaz	0,8	0,9	10,8	17,8	20,4	1,0	1,4	11,2	16,5	16,7	0,6	0,8	12,6	17,7	17,6
	Beste hizkuntzan	0,8	0,4	0,5	0,5	0,8	0,2	0,5	0,9	0,8	0,7	0,2	0,4	0,8	1,0	0,7
	Erabilera tasa	87,9	88,1	68,7	55,8	50,0	88,6	87,5	68,7	59,7	57,0	91,9	89,9	70,6	61,1	60,9
irakasleei gelan	Beti euskaraz	71,1	74,6	58,7	45,6	31,8	74,3	78,7	60,7	54,8	51,3	78,6	76,6	62,6	53,2	48,9
	Euskaraz gehiago	20,6	17,8	18,1	21,8	27,2	18,9	14,8	18,3	18,6	20,4	16,6	17,3	17,4	20,3	23,0
	Bietan berdin	6,3	6,0	11,7	14,9	23,9	5,6	4,7	9,5	12,0	13,7	3,2	4,7	8,8	10,9	13,9
	Gaztelaniaz gehiago	1,4	1,0	7,0	8,9	7,8	0,5	0,9	6,8	6,9	7,8	1,0	0,8	5,5	8,1	8,2
	Beti gaztelaniaz	0,3	0,5	3,8	8,3	8,6	0,4	0,5	3,8	7,1	5,9	0,2	0,3	3,8	6,3	5,6
	Beste hizkuntzan	0,2	0,0	0,6	0,6	0,7	0,4	0,3	0,9	0,6	0,8	0,4	0,3	1,9	1,1	0,4
	Erabilera tasa	90,1	91,2	79,9	71,6	66,1	91,4	92,4	80,9	76,4	75,4	92,9	92,1	81,4	75,9	75,2
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	83,7	79,0	55,9	39,6	27,6	85,6	77,1	53,6	42,5	33,6	85,5	77,8	54,4	40,6	33,0
	Euskaraz gehiago	7,9	9,3	13,0	16,0	16,5	8,3	10,9	14,8	16,3	17,3	8,0	10,7	13,9	14,8	15,5
	Bietan berdin	4,1	6,3	11,3	12,1	17,2	2,7	6,6	9,8	11,0	12,4	3,4	5,2	9,1	9,7	11,5
	Gaztelaniaz gehiago	1,3	2,8	7,9	10,5	13,5	0,9	3,0	8,1	10,9	13,8	1,0	3,2	8,8	11,8	11,2
	Beti gaztelaniaz	2,7	2,3	11,1	21,2	25,0	2,2	2,1	12,3	18,4	22,2	1,5	2,1	12,1	21,8	27,8
	Beste hizkuntzan	0,3	0,3	0,8	0,7	0,3	0,2	0,3	1,3	0,9	0,7	0,6	0,9	1,6	1,2	1,0
	Erabilera tasa	92,0	89,9	73,3	60,3	51,9	93,4	89,4	71,7	63,0	56,2	93,5	89,3	71,6	59,5	53,2
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	88,0	84,8	61,6	46,3	39,8	88,5	84,4	61,8	51,1	47,5	91,6	86,5	63,4	50,5	47,9



DBH2 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzuzue		Eremu soziolinguistikoa (5 eremu)														
		2011					2013					2015				
		%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20	%80,1- %100	%60,1- %80	%40,1- %60	%20,1- %40	%0- %20
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	78,1	51,0	9,0	0,8	0,0	76,1	44,6	9,1	0,7	0,3	80,8	48,5	9,4	0,7	0,2
	Euskaraz gehiago	11,4	18,5	11,2	2,3	0,9	8,7	21,2	10,0	2,0	0,9	10,2	22,3	12,1	2,0	0,5
	Bietan berdin	5,7	9,7	11,2	3,4	1,5	2,7	12,5	10,7	4,1	1,4	4,6	8,2	8,7	3,3	1,3
	Gaztelaniaz gehiago	3,0	12,5	21,5	16,0	9,7	3,7	13,5	24,4	23,3	15,8	2,5	12,4	24,1	18,8	13,0
	Beti gaztelaniaz	1,7	8,2	46,8	77,1	87,5	8,7	8,1	45,4	69,3	81,0	1,7	8,5	45,5	74,9	84,9
	Beste hizkuntzan	0,0	0,1	0,3	0,4	0,5	0,2	0,1	0,3	0,6	0,6	0,2	0,0	0,1	0,2	0,0
	Erabilera tasa	90,3	72,8	28,3	8,2	3,8	84,9	70,1	28,1	10,0	5,6	91,4	72,5	28,9	8,6	4,5
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	79,1	55,6	14,0	3,1	1,1	75,9	52,4	13,8	2,7	1,9	82,5	56,4	14,8	3,8	2,4
	Euskaraz gehiago	14,1	21,1	19,5	9,4	6,7	11,8	24,2	19,3	11,3	8,7	11,8	22,8	20,1	11,6	9,2
	Bietan berdin	3,0	9,4	13,7	11,3	9,6	2,9	9,7	13,3	11,9	11,3	3,0	7,5	13,5	10,9	9,2
	Gaztelaniaz gehiago	2,7	8,8	20,8	27,6	26,5	6,0	8,8	26,2	33,0	36,6	1,3	8,6	24,3	31,2	35,1
	Beti gaztelaniaz	1,0	4,9	31,6	48,2	55,9	3,5	4,8	27,2	40,7	41,3	1,3	4,7	27,1	42,1	43,9
	Beste hizkuntzan	0,0	0,2	0,4	0,4	0,2	0,0	0,1	0,3	0,4	0,2	0,0	0,0	0,2	0,3	0,2
	Erabilera tasa	91,9	78,3	40,7	22,7	17,5	87,7	77,6	41,4	25,4	23,2	93,2	79,4	42,7	25,8	22,7
irakasleei gelan	Beti euskaraz	70,7	67,0	41,0	27,3	14,0	76,1	71,9	46,7	33,6	27,6	75,5	71,8	46,9	33,1	26,4
	Euskaraz gehiago	22,3	21,9	23,8	25,1	29,9	17,7	18,4	23,2	25,1	28,2	17,8	19,1	25,8	27,8	29,9
	Bietan berdin	5,7	6,0	12,4	13,8	20,6	2,7	5,4	10,5	13,1	15,1	4,0	4,8	9,4	12,6	16,6
	Gaztelaniaz gehiago	0,7	3,8	13,1	15,5	19,5	2,1	3,1	10,3	13,0	16,1	1,5	3,1	10,6	14,0	17,0
	Beti gaztelaniaz	0,3	1,2	9,3	17,7	15,7	1,3	1,2	8,2	14,8	12,9	0,8	1,1	6,3	11,6	10,1
	Beste hizkuntzan	0,3	0,1	0,5	0,5	0,4	0,0	0,0	1,1	0,4	0,0	0,4	0,0	1,1	0,8	0,1
	Erabilera tasa	90,4	87,4	68,3	56,9	51,5	91,3	89,2	71,9	62,3	60,4	91,3	89,3	73,5	63,9	61,4
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	84,3	72,9	38,6	22,6	9,5	82,9	74,2	42,8	27,1	19,4	85,2	76,4	44,3	27,6	18,0
	Euskaraz gehiago	10,0	13,1	18,6	19,3	17,8	9,1	13,9	19,3	20,6	21,5	8,5	12,1	20,9	22,7	24,2
	Bietan berdin	3,7	6,0	11,8	11,6	17,7	3,3	5,3	10,1	11,7	12,7	3,2	4,6	9,1	10,8	11,5
	Gaztelaniaz gehiago	0,7	4,9	12,0	13,9	19,1	2,5	3,9	11,0	13,7	17,8	1,5	4,1	11,0	14,1	19,1
	Beti gaztelaniaz	1,0	2,8	18,5	32,2	35,2	2,1	2,6	15,9	26,5	28,3	1,5	2,6	14,0	24,2	27,0
	Beste hizkuntzan	0,3	0,3	0,4	0,4	0,7	0,2	0,1	1,0	0,5	0,3	0,0	0,2	0,6	0,6	0,2
	Erabilera tasa	93,8	87,0	61,5	46,4	36,5	91,9	88,2	65,0	51,8	46,3	93,6	88,8	67,3	53,5	46,7
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	91,2	79,2	44,4	27,3	21,6	87,9	78,5	45,7	30,6	27,1	92,2	80,0	47,1	30,7	26,8

8.3. Aldagai askea: Lehen hizkuntza

LMH4 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?							
		2011				2015			
		Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat	Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	48,5	20,9	5,6	10,7	53,0	22,8	8,9	14,9
	Euskaraz gehiago	23,6	17,1	8,0	7,5	20,2	17,0	9,9	10,1
	Bietan berdin	12,0	16,7	10,0	10,4	9,9	16,2	9,5	10,0
	Gaztelaniaz gehiago	9,9	24,1	25,8	17,9	9,6	22,7	21,9	19,3
	Beti gaztelaniaz	5,5	20,7	50,2	52,9	7,2	21,1	49,5	43,9
	Beste hizkuntzan	0,4	0,4	0,5	0,6	0,1	0,3	0,3	1,8
	Erabilera tasa	74,7	48,2	23,0	26,0	75,5	49,3	26,5	32,4
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	65,9	46,8	25,1	26,2	72,1	52,3	35,2	34,4
	Euskaraz gehiago	23,1	27,7	23,8	16,7	16,5	22,9	21,2	18,6
	Bietan berdin	6,3	12,8	16,8	13,0	5,2	9,9	10,5	10,9
	Gaztelaniaz gehiago	2,7	7,9	15,7	16,2	3,1	8,0	13,2	12,8
	Beti gaztelaniaz	1,5	4,7	17,9	27,1	2,6	6,4	19,0	21,8
	Beste hizkuntzan	0,4	0,2	0,6	0,7	0,6	0,5	0,9	1,6
	Erabilera tasa	87,1	75,9	55,3	49,3	87,8	76,4	59,6	57,0
irakasleei gelan	Beti euskaraz	76,3	65,8	43,6	39,6	78,5	66,4	51,1	45,1
	Euskaraz gehiago	17,0	19,2	22,3	15,8	15,3	19,3	20,8	19,0
	Bietan berdin	5,2	10,5	16,2	13,1	3,9	8,1	11,9	12,2
	Gaztelaniaz gehiago	1,1	3,0	9,3	14,1	1,1	4,0	8,6	9,4
	Beti gaztelaniaz	0,3	1,2	7,8	16,2	0,7	1,8	6,2	12,2
	Beste hizkuntzan	0,1	0,2	0,7	1,2	0,5	0,4	1,4	2,0
	Erabilera tasa	92,0	86,2	70,8	61,5	92,2	85,9	74,8	67,8
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	81,6	62,3	38,0	36,9	79,2	57,4	37,6	36,5
	Euskaraz gehiago	9,5	14,5	15,6	10,9	9,9	13,9	15,4	13,1
	Bietan berdin	4,9	10,7	13,4	9,2	4,5	10,1	10,2	10,2
	Gaztelaniaz gehiago	2,3	5,5	11,1	12,7	3,0	8,7	12,1	11,9
	Beti gaztelaniaz	1,5	6,6	21,2	29,3	2,6	8,9	23,4	25,5
	Beste hizkuntzan	0,3	0,4	0,7	1,0	0,9	0,9	1,3	2,9
	Erabilera tasa	91,7	79,9	59,2	52,8	89,5	75,1	57,3	54,3
Escolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	83,8	67,5	46,1	43,0	84,0	67,3	49,1	48,9

DBH2 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?							
		2011				2015			
		Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat	Euskara	Bai euskara bai gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	38,7	12,2	1,9	6,0	38,5	12,1	1,9	6,8
	Euskaraz gehiago	18,4	10,2	2,5	5,5	18,8	9,7	2,9	5,2
	Bietan berdín	11,2	10,6	3,8	5,1	8,3	8,1	3,3	6,3
	Gaztelaniaz gehiago	16,6	27,6	14,3	9,2	18,6	28,1	16,5	12,8
	Beti gaztelaniaz	15,0	39,3	77,3	70,9	15,8	41,9	75,3	67,2
	Beste hizkuntzan	0,1	0,2	0,2	3,4	0,0	0,1	0,1	1,6
	Erabilera tasa	62,3	32,1	9,2	14,9	61,4	30,5	9,8	17,1
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	44,3	17,6	3,9	7,9	44,5	17,8	5,1	10,7
	Euskaraz gehiago	23,7	22,2	8,7	7,8	22,8	20,0	11,6	9,8
	Bietan berdín	11,5	15,4	10,8	7,2	10,5	15,0	10,0	9,2
	Gaztelaniaz gehiago	12,7	25,8	25,8	14,9	14,7	29,5	29,9	19,0
	Beti gaztelaniaz	7,7	18,8	50,3	60,4	7,3	17,7	43,3	50,4
	Beste hizkuntzan	0,1	0,1	0,4	1,8	0,1	0,1	0,2	0,9
	Erabilera tasa	71,0	48,4	22,3	21,1	70,6	47,6	26,2	27,4
irakasleei gelan	Beti euskaraz	70,9	49,7	23,0	17,6	74,3	53,3	29,9	24,5
	Euskaraz gehiago	20,1	27,8	26,0	13,8	18,7	28,3	28,7	19,1
	Bietan berdín	4,7	11,3	15,7	11,1	3,5	9,3	13,8	12,1
	Gaztelaniaz gehiago	2,9	7,9	17,8	16,1	2,6	7,2	15,5	17,0
	Beti gaztelaniaz	1,4	3,0	17,0	40,2	0,8	1,7	11,2	26,0
	Beste hizkuntzan	0,0	0,3	0,6	1,2	0,1	0,2	0,9	1,4
	Erabilera tasa	89,1	78,1	54,8	37,5	90,7	81,0	62,2	49,1
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	75,1	47,1	18,6	15,3	77,9	50,9	24,0	21,2
	Euskaraz gehiago	13,1	22,9	19,0	10,8	12,8	23,6	23,1	14,9
	Bietan berdín	5,4	11,6	13,0	9,8	4,1	9,5	11,3	9,3
	Gaztelaniaz gehiago	3,0	9,0	16,1	12,3	2,9	9,5	16,0	12,7
	Beti gaztelaniaz	3,3	9,0	33,0	50,0	2,3	6,2	25,1	40,6
	Beste hizkuntzan	0,1	0,3	0,4	1,9	0,1	0,3	0,6	1,4
	Erabilera tasa	88,4	72,4	43,3	31,3	90,2	75,7	50,9	40,1
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	73,7	51,4	26,7	23,4	73,9	51,7	30,6	29,5

8.4. Aldagai askea: Irakasteredua

LMH4 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Irakasteredua								
		2011			2013			2015		
		A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	0,1	3,1	24,5	1,3	3,8	24,5	0,1	3,9	28,1
	Euskaraz gehiago	0,5	4,3	17,1	2,5	4,4	18,5	2,1	5,2	16,8
	Bietan berdin	0,7	5,3	15,2	1,0	7,1	16,6	1,2	5,2	13,2
	Gaztelaniaz gehiago	4,8	23,4	23,4	7,3	25,6	22,7	6,0	19,7	20,0
	Beti gaztelaniaz	93,4	63,5	19,3	86,8	58,6	17,0	89,5	65,7	21,5
	Beste hizkuntzan batean	0,5	0,4	0,5	1,1	0,5	0,7	1,1	0,2	0,3
	Erabilera tasa	2,1	14,8	50,8	5,5	17,1	52,4	3,8	15,3	52,4
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	0,7	12,1	51,2	1,4	13,8	53,8	1,0	16,5	59,0
	Euskaraz gehiago	2,0	20,5	27,8	4,4	20,8	25,7	2,2	19,9	21,8
	Bietan berdin	6,7	24,1	10,4	7,8	19,1	9,5	3,7	15,2	7,6
	Gaztelaniaz gehiago	13,5	22,4	7,3	13,3	22,6	6,8	10,3	20,2	6,7
	Beti gaztelaniaz	75,7	20,2	3,0	70,5	23,1	3,5	79,3	27,2	4,3
	Beste hizkuntzan batean	1,5	0,7	0,3	2,6	0,6	0,6	3,6	1,0	0,5
	Erabilera tasa	8,9	45,2	79,0	11,9	44,6	79,5	7,0	44,1	80,9
irakasleei gelan	Beti euskaraz	0,5	25,1	71,4	3,2	35,0	74,3	1,8	31,3	72,7
	Euskaraz gehiago	2,5	28,7	19,0	6,0	27,7	15,7	4,8	29,7	16,8
	Bietan berdin	13,2	28,5	6,2	15,0	22,0	5,4	13,2	20,9	5,5
	Gaztelaniaz gehiago	30,2	11,8	2,3	28,3	9,6	2,6	27,2	11,6	3,0
	Beti gaztelaniaz	49,5	5,4	0,9	43,5	5,1	1,7	40,2	5,6	1,8
	Beste hizkuntzan batean	4,2	0,5	0,1	4,1	0,5	0,4	12,9	1,0	0,3
	Erabilera tasa	16,5	63,8	89,4	22,3	69,2	89,3	18,8	66,9	88,8
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	0,3	22,2	68,0	2,0	26,1	64,2	1,5	23,9	61,9
	Euskaraz gehiago	1,5	19,3	13,2	3,6	21,1	13,7	2,8	20,0	12,5
	Bietan berdin	4,9	21,3	7,4	6,5	16,9	7,5	6,3	14,6	7,2
	Gaztelaniaz gehiago	15,7	14,9	5,0	14,6	15,1	6,3	16,0	15,8	7,0
	Beti gaztelaniaz	74,9	21,7	6,0	68,4	20,0	7,8	67,4	24,5	10,5
	Beste hizkuntzan batean	2,6	0,6	0,4	4,9	0,7	0,5	6,2	1,3	0,9
	Erabilera tasa	7,8	51,1	82,8	11,6	54,1	79,8	10,7	50,1	76,6
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	7,5	37,7	70,4	11,4	39,9	70,7	8,6	38,0	70,4

DBH2 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Irakasteredua								
		2011			2013			2015		
		A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	0,0	2,1	17,9	0,1	1,1	16,4	0,1	0,6	16,7
	Euskaraz gehiago	0,6	2,0	10,8	0,6	1,0	10,1	0,8	0,9	10,6
	Bietan berdin	0,3	2,3	9,6	0,3	1,8	9,9	0,4	1,2	7,4
	Gaztelaniaz gehiago	2,6	9,7	22,8	3,5	14,3	27,5	1,7	10,4	23,9
	Beti gaztelaniaz	95,2	83,8	38,6	93,9	81,4	35,7	96,6	86,6	41,3
	Beste hizkuntzan batean	1,2	0,1	0,2	1,6	0,4	0,3	0,4	0,2	0,1
	Erabilera tasa	1,3	7,1	36,5	1,6	6,3	35,9	1,3	4,6	34,3
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	0,0	2,8	23,0	0,2	1,5	21,6	0,1	1,6	22,7
	Euskaraz gehiago	0,4	5,2	20,8	0,8	4,7	21,9	0,8	4,9	21,0
	Bietan berdin	0,9	8,8	15,0	0,8	9,2	14,8	1,1	7,8	13,3
	Gaztelaniaz gehiago	5,1	26,2	24,8	7,4	32,1	29,6	5,8	29,5	27,7
	Beti gaztelaniaz	92,0	56,8	16,1	89,3	52,3	12,0	91,4	56,1	15,3
	Beste hizkuntzan batean	1,5	0,2	0,2	1,5	0,2	0,1	0,8	0,1	0,2
	Erabilera tasa	2,1	17,7	52,3	3,1	17,7	52,8	2,7	16,5	52,0
irakasleei gelan	Beti euskaraz	0,4	13,3	55,5	0,3	15,6	62,2	0,3	14,4	58,7
	Euskaraz gehiago	0,8	27,6	28,2	1,5	29,4	25,4	1,6	30,4	27,8
	Bietan berdin	4,8	26,1	7,8	6,8	24,8	6,0	8,2	24,6	5,9
	Gaztelaniaz gehiago	22,6	23,6	6,2	22,5	20,6	4,7	27,5	21,9	5,5
	Beti gaztelaniaz	69,1	9,2	2,2	65,6	9,2	1,6	56,4	8,2	2,0
	Beste hizkuntzan batean	2,5	0,2	0,2	3,3	0,4	0,0	6,1	0,4	0,1
	Erabilera tasa	9,0	53,0	82,1	10,5	55,2	85,5	12,4	55,0	83,9
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	0,1	10,1	53,2	0,3	10,8	57,0	0,4	9,6	55,5
	Euskaraz gehiago	0,9	16,7	22,4	1,2	18,5	22,8	1,2	20,2	23,5
	Bietan berdin	2,0	19,0	9,3	2,5	18,9	7,8	3,9	18,1	6,8
	Gaztelaniaz gehiago	7,9	24,2	7,4	8,4	24,8	6,6	9,8	25,2	7,3
	Beti gaztelaniaz	87,8	29,8	7,4	85,0	26,5	5,6	81,4	26,6	6,7
	Beste hizkuntzan batean	1,2	0,3	0,3	2,7	0,5	0,2	3,2	0,4	0,2
	Erabilera tasa	3,8	38,1	76,5	4,5	40,3	79,7	5,7	40,0	78,3
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	3,4	23,6	55,6	4,2	24,0	56,6	4,6	23,0	55,2

8.5. Aldagai askea: Titularitatea

LMH4 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Titularitatea					
		2011		2013		2015	
		Publikoa	Hitzartua	Publikoa	Hitzartua	Publikoa	Hitzartua
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	16,1	17,1	17,8	17,5	21,3	20,3
	Euskaraz gehiago	13,9	10,5	15,0	12,6	14,3	12,2
	Bietan berdin	14,0	8,5	15,2	11,0	12,5	8,8
	Gaztelaniaz gehiago	24,1	19,8	24,9	20,2	21,6	16,8
	Beti gaztelaniaz	31,4	43,7	26,3	38,2	30,0	41,5
	Beste hizkuntzan batean	0,5	0,5	0,8	0,5	0,4	0,3
	Erabilera tasa	39,6	34,2	42,9	37,5	43,6	38,1
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	41,1	31,4	44,7	35,4	51,4	39,9
	Euskaraz gehiago	27,0	20,4	25,7	20,6	22,2	18,4
	Bietan berdin	12,3	15,8	11,5	12,4	8,5	10,1
	Gaztelaniaz gehiago	10,1	14,1	9,5	13,4	8,7	11,7
	Beti gaztelaniaz	9,2	17,6	8,0	17,5	8,5	19,0
	Beste hizkuntzan batean	0,3	0,7	0,6	0,8	0,7	0,9
	Erabilera tasa	70,0	58,1	72,1	60,3	74,5	61,7
irakasleei gelan	Beti euskaraz	61,2	44,4	66,4	52,7	65,8	52,1
	Euskaraz gehiago	19,9	21,2	17,3	19,4	17,9	20,7
	Bietan berdin	8,6	17,7	7,6	13,2	6,8	12,5
	Gaztelaniaz gehiago	4,8	9,4	4,1	7,9	5,0	7,7
	Beti gaztelaniaz	5,2	6,4	4,1	6,0	4,1	5,2
	Beste hizkuntzan batean	0,2	0,9	0,4	0,9	0,3	1,9
	Erabilera tasa	81,6	71,5	84,2	75,8	83,9	75,8
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	58,1	41,5	56,3	44,4	53,8	45,3
	Euskaraz gehiago	13,4	14,7	14,4	15,7	13,2	14,5
	Bietan berdin	8,9	13,5	8,5	11,5	7,9	10,0
	Gaztelaniaz gehiago	6,9	10,5	8,1	10,2	8,6	10,6
	Beti gaztelaniaz	12,4	18,9	12,0	17,2	15,8	17,8
	Beste hizkuntzan batean	0,4	0,9	0,7	1,0	0,7	1,8
	Erabilera tasa	74,3	61,9	73,4	64,4	69,8	63,8
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	60,8	51,8	63,0	54,9	63,3	55,4

## ARRUE IKERKETA, 2011-15: EMAITZA NAGUSIAK

DBH2 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Titularitatea					
		2011		2013		2015	
		Publikoa	Hitzartua	Publikoa	Hitzartua	Publikoa	Hitzartua
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	11,7	10,6	11,1	9,7	11,5	10,5
	Euskaraz gehiago	7,6	6,6	7,6	5,7	8,0	6,5
	Bietan berdin	7,9	5,1	8,7	4,8	6,5	4,0
	Gaztelaniaz gehiago	19,6	13,9	25,3	17,6	22,4	14,8
	Beti gaztelaniaz	52,7	63,6	46,8	61,9	51,3	64,1
	Beste hizkuntzan batean	0,5	0,2	0,6	0,3	0,2	0,1
	Erabilera tasa	26,2	21,6	27,4	20,8	26,4	21,1
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	14,9	14,0	14,6	12,9	16,2	14,2
	Euskaraz gehiago	16,5	11,4	18,4	11,6	18,3	12,0
	Bietan berdin	14,1	9,3	14,3	9,5	13,1	8,7
	Gaztelaniaz gehiago	25,5	20,3	30,2	25,8	28,8	23,8
	Beti gaztelaniaz	28,7	44,6	22,3	39,9	23,5	40,9
	Beste hizkuntzan batean	0,3	0,5	0,2	0,3	0,2	0,3
	Erabilera tasa	40,7	32,2	43,1	32,8	43,6	33,6
irakasleei gelan	Beti euskaraz	41,4	32,5	48,8	36,9	47,4	37,1
	Euskaraz gehiago	28,3	21,3	26,2	21,9	28,7	23,9
	Bietan berdin	9,9	14,8	8,3	14,0	7,5	14,0
	Gaztelaniaz gehiago	9,7	16,1	8,1	13,6	9,1	14,1
	Beti gaztelaniaz	10,4	14,7	8,5	12,8	7,1	9,7
	Beste hizkuntzan batean	0,2	0,7	0,1	0,8	0,1	1,2
	Erabilera tasa	70,0	59,8	74,6	63,7	75,0	65,5
...irakasleei gelatik kanpo.	Beti euskaraz	38,6	30,6	43,4	33,1	43,6	34,1
	Euskaraz gehiago	22,3	14,4	22,7	16,1	24,1	17,6
	Bietan berdin	10,6	11,5	9,5	11,1	8,0	10,7
	Gaztelaniaz gehiago	9,8	14,1	9,1	14,2	9,8	14,4
	Beti gaztelaniaz	18,3	28,9	15,1	24,7	14,2	22,4
	Beste hizkuntzan batean	0,3	0,5	0,2	0,8	0,2	0,8
	Erabilera tasa	63,2	50,7	67,4	54,3	68,2	56,3
Eskolako erabilera orokorra	Erabilera tasa	44,1	36,3	46,8	37,4	46,7	38,4

8.6. Aldagai askea: Ikastetxearen ISEK maila multzokatua

LMH4 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure		Ikastetxearen ISEK maila multzokatua											
		2011				2013				2015			
		Maila baxua	Maila ertain-baxua	Maila ertain-altua	Maila altua	Maila baxua	Maila ertain-baxua	Maila ertain-altua	Maila altua	Maila baxua	Maila ertain-baxua	Maila ertain-altua	Maila altua
...gelako lagunekin jolaslekuan?	Beti euskaraz	5,1	17,9	22,8	15,2	7,4	15,5	26,3	17,5	8,4	22,5	30,4	17,7
	Euskaraz gehiago	6,2	13,3	16,4	10,8	9,8	14,6	17,5	12,3	8,0	13,8	15,4	13,7
	Bietan berdin	6,9	13,6	13,0	10,3	12,2	15,4	14,0	11,0	9,4	12,8	10,3	10,1
	Gaztelaniaz gehiago	23,9	23,5	21,1	21,0	25,4	24,3	21,4	20,6	22,8	20,2	17,4	18,3
	Beti gaztelaniaz	57,3	31,2	26,1	42,3	44,0	29,4	20,3	38,2	50,7	30,4	26,4	39,9
	Beste hizkuntzan	0,5	0,5	0,5	0,4	1,2	0,7	0,5	0,5	0,7	0,3	0,2	0,3
Erabilera tasa	19,2	40,5	46,9	33,7	27,3	40,3	51,8	37,3	24,8	44,3	51,4	37,6	
... gelako lagunekin gela barruan?	Beti euskaraz	20,1	40,4	44,8	33,4	29,3	40,4	49,8	37,4	33,8	49,9	54,3	41,4
	Euskaraz gehiago	23,2	25,7	26,1	21,0	24,0	24,8	24,4	20,2	20,6	20,9	21,1	19,1
	Bietan berdin	14,6	14,4	12,7	14,7	13,4	13,7	10,9	10,5	10,4	8,9	8,5	9,6
	Gaztelaniaz gehiago	15,6	11,7	8,6	13,7	15,0	10,5	7,7	13,4	13,7	9,9	7,7	10,8
	Beti gaztelaniaz	26,0	7,5	7,5	16,4	17,3	9,9	6,6	17,7	20,2	9,7	8,0	18,1
	Beste hizkuntzan	0,5	0,3	0,3	0,8	1,0	0,6	0,6	0,8	1,1	0,7	0,5	1,0
Erabilera tasa	48,7	69,8	72,8	59,9	57,8	68,5	75,5	61,2	58,0	72,5	76,2	63,3	
irakasleei gelan	Beti euskaraz	38,0	57,1	62,2	48,9	50,4	61,6	70,4	53,8	47,6	63,8	67,4	54,1
	Euskaraz gehiago	21,7	22,0	20,3	19,3	20,6	18,5	16,0	18,9	21,4	18,5	18,6	19,4
	Bietan berdin	13,7	12,1	10,9	15,4	11,6	10,7	7,7	11,8	10,7	9,2	7,8	11,0
	Gaztelaniaz gehiago	10,5	5,4	4,1	9,2	7,2	5,4	3,3	8,1	9,6	5,4	3,4	7,8
	Beti gaztelaniaz	15,8	3,2	2,2	6,1	9,5	3,2	2,4	6,3	10,1	2,8	2,3	5,3
